


Salvador Zapiain

"ATAÑO"

Nora goaz?



5396

GA8-128/97

NORA GOAZ?

Auspoa Liburutegia
219

SENDOA ARGITALDARIA

B.º Ugaldetxo

Tels. 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Salbador Zapiñain
«Ataño»

NORA GOAZ?

Auspoa Liburutegia
(219)

© Sendoa Argitaldaria
Fotokonposatzaile: Cometip, S.L.
Inprimatzaile: Gráficas Lizarra
ISBN: 84-85846-88-5
Depósito Legal: NA. 355-1994

BASERRIA

Lurraren pujak bideak itxi
orain iñor ez baidabil,
garai bateko gurdibidea
ezin igarorik nabil.
Endalar, sasi ta piñupean
baserri xar bat or urbil,
ez txakur-zaunka, ez aur-jolasik,
ez bei marru, ez iskanbil,
bakar ta utsa nere sortetxe
maitea ain dago ixil.

Mendi-egal oietako baserri batean jaio ta azi giñanontzat, eraspén ikaragarria dauka, zaartu ta gero ere, baserriak. Erdi larru gorririk, oiñetako kaxkar batzuekin, an ibiliko giñan mendi egal aietan benetan aske, otz-beroen beldurrik gabe. Bost-sei urteko umerik ezin liteke kalean bakarrik utzi. Baserrian, berriz, ez du laguntzaren bearrrik. An ez dabil berebil eta motorrik. Dena libre dauka. Aita zanari bein baiño geiagotan entzuna:

–Torero ikasi bearko diagu.

–Ori zergatik?

–Orko berebil edo motorren batek ez arrapatzez-

keroz, zerbaiten bearra bazeukagu. Ezker-eskubi besterik bai al zebillek?

Baserrian ez dago olako beldurrik. Kaletik gure etxera datozen umeak, arritu ta zoraturik geratzen dira, an daukaten askatasunarekin.

Nik ere, bada, nere urterik onenak baserrian igarotzen nituen. Bizi bearrak, etxea batentzat baida, bota giñuen ortik. Baiña ez maite ez genduelako.

Urtearen buruan tarteka bisitatxo bat egiten diot, nere urterik onenak igarotako baserriari. Bereala, zine batean bezela, nere burutik badoaz orko oroitz goxoak. Baita mikatzak ere.

Joandako guraso maiteak ziguten maitasunak etzeukan neurririk. Aiek bai, nekearen beldurrik gabe, fameli on bat azitzeko asmoan ezkondu zirala. Ez gaur bezela. Batzuek ez dute seme-alabarik eduki nai; aragiaren atsegiña besterik ez. Beste askok, berriz, bat edo bitik gora ez beiñepein. Gu, berriz, berderatzi anai giñan. Gure gurasoentzat, askoz bizimodu errezagoa izango zan birekin edo irurekin. Baiña kristauak ziran eta Jainkoak ematen zizkien guziak zetozen mundura. Baserrian jaio ta azi dan batentzat, aien ondoan igarotako gaztaroa ezin liteke aztu. Etxera egiten detan bisita oietan, len esan detanez, dana datorkit gogora.

Goizean goiz jeikiko zan ama, sua piztu ta kapesnea berotzeko. Bereala azalduko zan aita ukuilluko lanak egitera, beiak luzetetsirik marruka asi baiño len. Gu jeiki alean, amak, banaka-banaka muxu bana emanek, berak zekien bezela jarria, emango zion baikoitzari bere katillukada. Gero, sukaldean jarraituko zuen. Gu lasterka aterako giñan kanpora. Ordurako aita astoa atarian zeukan, mokadu bat aurrean jarriarik. Saskia lotu ta zamatu bitartean jango zuen ura. Ordurako ama, dotoreago jantzia, aterako zan atarira. Ume txiki guziei muxutxo bana berriro emanek, joango zan, astoa aske aurrera botata. Onek etzuen

agindu bearrik. Bidean belar-punta batzuk moztu ta janez, txuxen joango zan bere bidean.

Gutxi gora-beera noiztsu etorriko zan jakiten genduen, eta goiko bidera ertengo giñan. Beste muxu banarekin artuko giñuen. Batzuei mukiak garbituz eta bakoitzari goxokiren bana emanaz, berarekin batera jetxiko giñan denok sukaldera. Baiña ama joan ta etorri bitartean, guk aizkatuko genituen mendi-egal aiek guziak.

Udaberri, udara ta udazkenean naiko fruta bage-neukan. Ez giñan goseak galduko. Amaika gerezi-muturretan ibiliak, erorikada bat egin gabe, askatasun osoan, ezeren ta iñoren beldurrik gabe.

Baiña orduan aintzakotz artzen ez nituen gauza zoragarri askok, gaur kilimatu egiten naute.

Goizean goiz oilloen arteera mendiruntz, eta oillarra alai asko kukurrukuka oilloen artean. Eguzkiaren arteera. Baserri inguru guzian txorien berritxukeri goxoa, elkarrekin eztabaidan ari balira bezela. Zelaietan kirkerren kantu-otsa... Zenbait kaleetako umek ez dakite onen berri. Baiña batez ere illunabaretan, egun kixkalgarrri baten ondoren, eguzkiaren sarreran, itxas aldetik aterako zuen ipar aize atsegingarri bat, giroa ezetu ta preskatuz. Etzenduen orduan txori-abestia besterik entzungo, bakoitzak bere abotsean eta zekien bezela.

Alare, birigarroa zan danen errege, gure lur ontan beiñepein. Zugaitz baten muturrean, geienetan igiturrean, bere abots ederrean an ariko zan kantari. Nerezat zoragarria da benetan. Orain, zaartu ta gero, ori kantari somatzen detan bakoitzean, beste mundu batean banengo bezela egoten naiz entzuten, eta nere gaztetako atsegin ta naigabeak banan-banaka doazkit nere oroimenean barrena.

Etxeko txakurrak, katetik askatzean artzen zuten pozez, iru edo lau buelta emengo zizkieten zaunkaka etxeko barruti guziei.

Tximinietakoa keak, regla batekin zuzenduta bezela, txuxenean mendiruntz eramango zituen aizeak, auzokoekin bat eginta. Elkar-musuka ariko ziran, aitutzen ziran arte.

Itx gutxitan ori zan gure baserriko bizimodua. Baiña ez kaletarrena. Aiek etzekiten, eta ez dakite, orren berri. Giro orrek berdin jarraitzen du. Baiña gorputzaren atsegiñari artu diote eraspena, eta ori ulertzeko biotz garbia bear.

Euskalerra zear badaude, bada, amaika olako baserri xaar; eta -zergatik ez aitortu?- bai berriak ere. Baiña, zoritxarrez, asko ustua dira, sarrerako bertsoak dion bezela; eta ortan jarraituko duen beldurra. Zenbat ez ditugu ikusten, mendigain eta egaletan, Euskalerra ia orain berriro arte nola bizi izan dan erakusgarri? Aurrerapenak orri ere emen dio bere jipoia.

Gaurko abiadura ta martxarekin ezin bizi litezenak dira ustutako geientsuenak beiñepein. Baiña onak ere galdu dirala ez dago ukatzerik, etxe berriak egiteko txikituak, erri-inguruetan zeudenak alegia.

Orduan baserritarrak, etxean eta etxetik bizi ziran fameliak, gizarte bat osoa egiten zuten, erri koxkor bat balitz bezela. Bertan sortzen zuten ia etxean bear zan guzia. Ogia ere etxean erre, bere zelaietako garia irinduz. Ezagutu nuen nik gure baserrian ortarako la-bea. Jantzia ere bertan egiten zan, liñoa ereinta. Oraindik Liñaputzueta esaten zaio belar ori garbitzen zuten erreka xigorrari.

Aterpea izan ezkerro, andik edo emendik aterako zuten bizimodua. Fameli bikain askoak azi ere bai, gaur ez bezelakoak. Baserria zan berentzat dena.

Etzuen mundua gaurkoak bezela ezagutuko. Iñorako ametsik ere etzeukan. Non biziko zan an baiño obeto, etxean elkarrekin ondo konpontzen baziran beiñepein?

Nere osaba bati askotan entzuna: etxeko potajea ta pitarra bezelakorik etzuela iñon arkitzen. Norako

ametsetan bizi bear zuen arek? Jakiña, gaur ainbeste jolasleku etzan gizonaren biotza lilluratzeko.

Gaur gazteari zailla egiten zaio baserriari lotuta bizi bearra. Itxurazko askatasun orrek txoratuta, badijoa erriko zurrunbullura, mendiko pakea utzita. Baiña len baiño lotuago geratuko da, bere burua griña gaiztoz beteta. Baserritar bat baiño geiago ezagutu ditut, kalera aldegiñak damututa.

Mundu zabaleko berriak ere gertatu orduko dakarzkigu aurrerapenak. Zoragarritzko ipuiak alegia. Ona bereizten digute, txarra ixilduta. Ori dena eragozpen aundia da Euskalerriko baserrientzat.

Zaarrak, berriz, naigabez, laguntzaille gazterik gabe gelditzen diranean, dena utzi ta aien atzetik jexi bearra.

Etzan gaur bezelako abiadurarik. Egazkin eta berebillik ere ez, noranai benetako erreztasunean joateko. Etzan irrati ta telebistarik, oraindik berriak baidira. Nongo baserritarrak irakurriko zuen orduan egunerokoa? Etzekien, alderatzekorik ere, mundu ontako berri. Gaur egunean telebistak lotzen ditu gazteak eta zaarrak, baita baserritarrak ere, eta gu gaztetan zorabiatzen giñun giro eder ori ez dute nabaitzen.

Etzan gaur ainbeste taberna. Sagardotegiak bai ugari. Bertakoenak, ordea. An etzuten baserritarrak bertako giroa besterik arkitzen. Gaurko aurrerapen au geiena baserriaren kalterako dator. Egia da nekazariaren bizimodua ere erreztu dala. Beti ere, ordea, etxeari lotua.

Baserriko gauza erdi utsean dago. Egin dezagun kontu: esnea, ogei ta amar pezeta litroa; ille moztea, milla pezeta. Nora goazke orrela?

Ulertzen erreza zaigu ori, askatasun ori denok maite degu ta. Baiña baditu bere utsunak, eta ez nolanaikoak. Baserritarra lan-paltan ez da geratuko, baiña kalekoa bai. Runrrun ona dabil.

Asko ustu badira ere, zorionez oraindik geienak

beteak daude. Gizaldi bat bukatu ta martxa galdu baiño len, beste bat dator atzetik, oiñordeak bezela arek utzitako utsuna betetzera, jarraipenari eutsiz.

Baserria izan da eusko abendaren bizi, euskera-
ren eusgarri, kabia bete ume azi ta lau aizeetara za-
baldu dituena.

Iru edo lau gizalditan amaika ekaitz gaizto zutik igaro baditu ere, oraingo au du denetan larriena: kale bizitzako erreztasun ori. Eta baserriarekin batera joango zaigu euskera ere. Euskaldunen nortasunak ere ari du bere jipoia artzen.

Ardi galduak bezela, txuri-txuri, or ikusten ditugu mendigain, egal, sakon eta ordeketan, ixil-ixilik eta bakarka. Orregatik, baserriar euskalduna kaleko bizi berrian sartzeko benetan piakaitz bezela agertzen digute. Etxean baidauka bear duan guzia. Ura da bere lantokia. Andik bizi dira denak. Zail egiten zaio nekazariari aldaketa ori.

Urtearen lau giroetan badu baserriak bere lillura, garbia gaiñera. Udaberriak, poliki-poliki eguzkia igoaz, bizitzaren asiera dakar. Denetik dator oparo, muskil berrituz, besoak jasoz eguzkiari eskari zeuden zugaitzak jantziz. Dena lorea da, esan degun bezela, otzaren mende zapaldua zegoen izadiaren piztuera. Zugaitzak eta soroak zoragarriak ari dira jartzen. Baiña aro ortan, egundo lanari uzten ez badio ere, gogotik ekiten dio. Beretzat neketsu eta gogorra da. Or ereiten duena bilduko du, ordea, gero negu atsegingarri bat igarotzeko. Bizitzeko bear dituen gauzen asiera baida ori. Dena dator goraka, eguzkitik asita: fruta, belar, arto... Batez ere baratza. Lorea besterik ez da ikusten, sagasti zabalak elur-malutaz beteak baleude bezela. Goazen lekura goazela, kantu-otsa entzungo degu. Baserriko bizitza alai da, bada, udaberrian.

Zenbat kalekumek ez dakite mitxirrika bat ere zer dan. Zazpi bat urtera arte kirkerraren kantu-otsik

entzun gabeak. Metro gutxiko ormigoizko kaja batean itxita, ori al da baserritik dijoazenak nai duten askatasuna?

Udaberriko nekeen saria udarak dakar, baiña ez oraindik osoa. Ereindakotik dena dator oparo. Poliki-poliki laguntzen jarraitu bear udaberrian asitakoari. Udazkenean, berriz, erleak ezitia bezela, nekazariak berdin: udarak gozatu duena bilduko du, negua etxe-ko pakean lasai igarotzeko.

Batzuentzat negua omen da urteko arorik txarre-na, Baiña bere gogorkeri guziekin nekazariarentzat atsegiñena. Baserrian bizi nintzanean neretzat ala zan beiñepein, zalantzarik gabe. Ekaitzak eta otzak egiten dituela? Ez dauka aterpe txarra, eta betea gaiñera. Naiko sagardoa kupelean; sukalde bero bat; egur-aukera sutarako bizi-lagunentzat; eta ukuillurako zer janaren paltarik ez. Aro ortan artzen du nekazariak bere benetako atsedena. Askotan baserriak txondorra dirudi, neguan elur txuriz estalia eta tximinitik ke jario. Baiña barrunbe beroa ta betea.

Egunero alare norbait jetxiko da kalera, bere tratu ta esne pixarrak saltzeko eta bear duena erosteko. Udaran ostoz beteak ikusten genituen zugaitzak, beren beso soil aiek zerurontz jasorik. Eguna luzatu ta otzak urruntzean, berotuko du igaz bezela, eta nekazariak eraso bearko dio betiko lanari.

Olakoxea da baserriko bizitza. Urtero berdin, baiña badu urtean zear bere aldakuntza eta lillura. Ez da, fabrika batean bezela, eguna joan ta etorri beti berdin, lan aspergarria. Amaika gora-beera egingo ditu nekazariak bide zakar oietan barrena.

Baserritik kalera joandako bati atsegin izaten zaio bide oiek berriz igarotzea, bere gaztetako oroitz goxoak gogoratzuz. Bere bizitzako urterik atsegiñenak an igaro baizituen. Etxera urbildu aiñean azitzen dijoakio bere zoramena. Bidera ertengo zaizkio ango billobatxoak ongi etorria ematera.

Sutondoa da benetako baserriko aldarea. Suaren aldamenean zenbat poz eta atsegin gurasoen erdian! Baiña zenbat malko eta naigabe etxekoen ezin ta ez-bearrengatik, maiteen eriotzak, estuasunak, zorrak ezin gaindua eta uste gabeko nekeak etortzen zaizkionean! Batez ere, eriotz batek uzten duen ondorengo utsuna. Askotan okasio ta eztabaida gogorrak ere bai, ezin konponduz. Ori denak ikusiak gera, baserrian jaio ta azi geranok. Guretzat beiñepein ezin aztuak. Baiña kalean ere gertatzen dira olakoak.

Batez ere arratsero, suaren ondoan amonak edo amak erreztatzen zuen errosarioa. Orduan bizi zan sinismena gure baserrietan.

Mendira joan ta baserri bat utsa ikustean, tristura datorkit biotzera. Euskadik galdu du bere enda ta euskeraren eusgarri bat, ainbeste urtean sendi maitagarri bat eta langille askoren bizilekua izana. Zapuztutako kabia, erleak utzitako eultz utsa, orixe da usututako baserria. Euskadi Euskalerra bada, baserriari zor dio.

Jaiotetxean bizi dan nere anaiari entzun nion bein:

–Nik etxe oni eman diodan aiñako aurrerapena eman baliote Euskalerriko baserri guziei, Euskadik orain alako bi balioko likek.

Egunsentia orduko, tximinian gora dijoan kea kimiñari edo sortalde-aizeak artu ta mendi aldera daramanean, etxeko andrea jeikia dabil. Bere atzetik datozenentzat gosari txikia berotzen ari da. Geienak katillukada bat kapesne artuko dute. Baiña ordurako ukuilluan ere ari da norbait beiak jeizten. Beste bategen berebilla aterako du atarira, eta bere ontzietan txukun-txukun jarritako tratuak berebillean sartuko ditu. Aurrerapen au baserriari ere ondo datorkio. Ondoren, marmita esneak ere ara jasoko dituzte. Erteteko ordua irixtean, saskitxoren bat eskuan dakarrela aterako da atarira ama. Baiña bai bere seme-alaba

txikiak ere lasterka, egun onak eskeiñi ondoren amari muxu bana ematera. Orduan jarriko du martxan berebilla, eta bide biurri aietan barrena kalera. An daramazkien tratu ta esne pixarrak izango dira etxe-ko sendiaren mantenu-saria, denen arte irabazia. Ori da nekazariaren bizitza len eta orain; jakiña, gaurko aurrerapenekin.

—Bejondeizula, etxe-ko andre! —diot nik, ura bistatik galtzean—. Zuen etxean badator bizitza berria.

Gizonezkoak, berriz, laster aterako dira zelaietara beren tresna berriekin. Idi-pare ta uztar-bei gutxi ikusten da orain gure baserrietan.

Egunero ikusten degun au da gu jaio giñan base-txeetako bizimodua. Orregatik, baserri uts baten aurrean, ori dena datorkit gogora.

BIKOTE BERRIA

Olako baserri batean, bada –ez daukagu zergatik izenez aipatu, agian bestela norbaitek kargu artuko liguke ta–, guraso zaarrak larri bizi ziran, gaurko egunean Euskalerriko baserrietan zabaldua dagoen gaitz kutsakor ori ara ere sartuko zan beldurrak.

Seme-alaba asko zituzten. Denak kanpora ezkondu ziran. Maiorazkoa bakarra geratu zan etxean. Langille ta ona, ori bai; baiña urteetan aurrera. Otxamarra izaki, ordea. Bazirudien neskak izutu egiten zutela. Oietakoren batekin itz egiterakoan, gorritu egiten omen zitzaion aurpegia, eta mingaiña toteldu, gurasoak ziotenez.

Baiña etzan ori egi osoa. Aspaldi artan mutillak igertzen zion nai ta nai ezkoa zala, baserriaren etorkizunari begiratzezkeroz, emakume bat; eta, jakiña, landare gazteak ere etxe-atarian jolasean. Bai; gurasoak larri zebiltzala. Baiña etzitziaion gogorik egiten.

–Gure Joxe jelazko gizona izango da noski –zion askotan bere amak.

–Bai. Ez du gure beste seme-alaben antzik –aitak.

–Ez orixe. Zu ausarditsua ziñan. Dantzaleku ta

erromerietan billatzen zenduen beti norbait etxera laguntzeko.

–Aiek ziran urteak, aiek! Mutil gazte ederra; patrikan bost duroko baten paltarik ez eta askatasunean; aldamenean lagunetik aukera... Alare, oietako iñork etzidan biotzik betetzen. Baiña batek bere sarean arrapatu niñun, eta sekula nerekin ibili gabea.

–Ainbesterekin ibilita, azkenean neri begiak zorroztu.

–Bai. Ori ala izango da. Azkenean, ordea, nere atzetik nor zebillen igerri.

–Bai. Egia da ori ere. Zu zeunden nere biotzean, baiña ez izan ni zu bezin ausarta. Ni neska izaki eta nola aurreratuko nintzan? Erromerira joan ta laster billatuko ziñuzten nere begiak. Zu ordurako besteren batzuekin, eta zuen saillera biltzea lotsatu egiten ni, ixil-ixilik bazter batetik begira. Etxerakoan, aietakoren bat artuko zenduen, eta ni bakarrik.

–Eta zuk usteko zenduen ni ez nintzala oartzen?

–Bai ote gero, aukera zeneukan eta?

–Ez dizut ezetzik esango. Baiña aietako iñork etzuen nere biotzik betetzen. Jolasa ta nere xoxak txurrapatu naia beste gogorik etzeukaten aiek. Lenengo zuk esan zenidan: «Alperrikako kasturik ez egin, Joxe; gero etzaizu gaizki etorriko». Baiña beti bakarka ikusten ziñudan, eta: «Nere inguruan zebillek au. Maite nauelako ote da?». Ango dantza ta iskanbillan zebillen jende artetik neri begira, azkenean antz eman nizun.

–Elkar ezagutu genduen beiñepein, ta or dago azi degun famelia.

–Mutillaren eskubide berdiñak bear lituzke neskek ere. Ortara, amaika mutil zaar gutxiago izango litzake munduan, eta ezkontza jatorrago ta iraunkorragoak egingo lirake.

–Gure mutilla ere norbaitek edukiko du aukera-

tua; eta, neska aurreratuko balitzaio, seguru genduke ezkontza.

—Eta berak ez al du besteren bat edukiko?

—Nai ta nai ez onuzkero. Baiña arekin izketan asten bada, gorri-gorri egingo zaio aurpegia. Mingaiña, berriz, toteldu; eta lotsatua, lurrera begira, itz bat zuzenik etzaio aterako. Olakoa da gure mutilla.

—Neri ere gertatu izan zait ori. Baita oraindik ere. Zuek, emakumeak, etzerate olakoak, gu baiño askoz ausartagoak baizik. Aurpegira txuxen begiratzen dute; eta, mutilla ez bada lotsa galdua, kokilduta geratzen da. Orixe berbera gertatzen zaio gure mutillari ere.

—Azkenean guk billatu bearko diogu.

—Ori ere arraixku txarrekoa da, bada, Iñaxi. Gu naasten geralako ere, alako zaputzen bat artuko luke, ta kito.

—Aiton-amonon eta gure baserriaren etorkizuna ortan dago, bada. Au mutil zaar geratzen bazaigu, kanpora ezkondutako ergelen itxaropenetan ezin ginezke bizi. Salbatzezkeroz, onek salbatuko gaitu.

—Aiek au baiño erneagoak izan dira.

—Baiña baserrirako lau alako balio du onek. Besteak ez lirake sekula etxean errendituko.

—Zu sartu zaiten lenengo, Iñaxi. Nik Etxeberriko Anttoni daukat begiz joa. Urteetan aurrera dijoana da, gure mutilla bezela. Baiña oraindik neska ederra ta izketan goxoa ta atsegiña. Gazte txoro bat baiño obe degu. Zuk itz batzuk egizkiozu nolako estuasunean bizi geran, ea zertan geratzen dan edo nolako erantzuna ematen dizun. Alegiñak egin bear ditugu.

—Biak batera ez al litzake obe?

—Ortarako emakumeak zerate onenak. Baiña ez badizu aurrerapenik ematen, orduan kontatu nerekin.

—Nere ustez, mutillaren iritzia ikasi bear genduke lenengo, ea nolako asmoak dauzkan. Bestela, onek

ez badu ezkondu nai, neskak baietza eman ta gero leku txarrean utziko genduke. Biotzeko arazoak konpontzeko begirune aundia bear da. Ortan ez dago jolasik.

—Ondo erabakia. Beraren berri jakin bear degu lenengo.

Aita azokara joan zan batean, eta mutilla oitu bezela merienda-lege bat egitera etorri, amak dakiten bezela, goxo-goxo, zearka-zearka, galdetu zion:

—Oraintxe zaartzen ari nauk, motell. Onenbeste lanekin neketan nabillek. Ondozak eta txorabioak ere asi zaizkidak. Beti txutik ara ta onera, arratserako oiñak zanpuztuta geratzen zaizkidak. Eta ni gaitotzen banaiz, eta eziñean geratu, erruki zaituztet. Orduan zer gertatuko litzaizuteken ondo pentsatzen al dek? Orren gora-beera guzia ire esku zegok.

Semeak laster antz eman zion ama nondik nora zijoan, eta arrazoi zuela gaiñera eta bere kulpaz geiegi beartzen ari zala. Zerbait erantzun bear ta:

—Zu gaixo? Oraindik neska gazte bat dirurizu ta.

—Aizak: oso lore-zalea nauk, baiña gezurrezko losintxak etzidatek onik egiten. Ogei ta amasei urte igaroak dituk ezkondu nintzala. Zazpi seme-alaba azi dizkiagu. Oraindik zaarra ez banaiz ere, baldartua. Naiko lanekin nabillek. Askotan esan dit ori. Egune-ro kalera jetxi ta igo bearrak jipoi gaiztoa ematen zidak. Gero, arratsalde guzian txutik, etxeko garbitasunak ezin bukatu. Atsedean pixar bat artu nai ta ere, etzeukat aukerarik. Ori konpontzea, berriz, oso-osorik ire esku zegok. Ulertuko didak noski.

—Baietz uste det, ama. Baiña ortarako etzait gogorik egiten.

—Igesbide koxkorra dek ori, Joxe. Etxe ontan emakume gazte baten bear gorrian bizi gerala bada-kik. Orrela pentsatzen badek, zergatik ez aiz praille sartzen? Ire lekuan besteren bat geratuko uan.

—Prailletarako gogo gutxiago daukat oraindik.

–Nik serio itzegiten dit, eta jolaserako ez gaudek. Mutil zaarrak, geienak, azken onik ez ditek izaten munduan. Baserrian, berriz, nekazari emen jarraitu nai badek beiñepein, iri nagusitza kendu ta etxean golperik jo ez duenen bat ekarriko diagu. Ik aren morroi bizi bearko dek. Bestela, baserri onen erostunik billatzen badegu, saldu ta Erruki-Etxera joan. Onuzkero, anagorriren batzuk bearko genizkin atari ontan jolasean, gero ondo ibiltzezkeroz. Nik nere ta aitaren izenean itzegiten dit. Orain erabakia artzea ire esku zegok. Jakiñaren gaiñean ago.

–Oraindik beiñepein nik ez det iñor aukeratu. Ikusiko degu geroxeago.

–Ori ez dek, Joxe, arrazoa. Premi gorrizko eskea dek au. Gaztetxo bat baintza ere, ulerterreza uke. Ogei ta amalau urte ondo beteak dauzkak. Aita eta ni kaxkaildu xamarrak gaudek. Ura ere benetan kezketan bizi dek. Ez baidu baserriaren etorkizunik ikusten. Ire atzetik norbait dabillela, ez al diok iñori antzik ematen?

–Ni ez naiz oiei begira ibiltzen. Baserritar nekazari ta mutil zaar oni nork begiratu bear dio, erronrietara ere ez naiz joaten ta?

–Gezurretan ari aiz noski. Ogei ta amalau urte badauzkak eta zerbaitetan pentsatzeko badek ordua. Ire adiñean ez ote dek norbait izango begiz joa?

Amak atera arazi nai zion, ondoren arekin itzegiteko. Orduan ortan geratu zan. Egoskor itxi zan gure mutil zaarra. Amak dena aitari kontatu zion: nola itzegin zuten eta nolako erantzunak eman zizkion. Etzuela jarraitu nai izan.

–Arritzekoa da emakumeekin orren lotsatia izatea. Beste gaiñerakoan, alaia ta oso gizartekoa da ori. Ez mutil aldrebesa gaiñera. Onela luzaroan ezin giñezke, bada, bizi. Arazo onek aurrera edo atzera lenbailen egin bear du.

Aitak ere izan zuen ortaz semearekin itzegiteko

aukera. Belarra metatzera joanak ziran. Ama ere bai belarrak meta ondora biltzen laguntzera. Aiek meta bukatzen utzita, etxera joan zan merienda-lege baten billa. Lana bukatu ta itzalean zeuden aita-semeak. Urrutira ikusi zuten ama, saskitxo bat eskuan. Oraindik lan geiago bai-baizeukaten txorrokak egiten.

—Ez al dik, Joxe, amak errukirik ematen?

—Zer du, bada, amak, artaz errukitzeko?

—Ez diok ere buruari besteri begiratzen, ez, ik. Erdi gaixo ta lanpean itoa dabilhela, bere eziñetik azkeneko indar pixarrak ateratzen ari dek, laguntzarik ez daukalako. Gurekin batera emen jardun dek lanean. Gero, etxera joan ta bazetorrek merienda-lege bat guretzat dakarrela. Emengo nekeaz gaiñera, eguneroko txangoa egin bearra. Zazpi seme-alaba azi ta gero urteetan aurrera, aurki amarik gabe geratuko aiz.

—Eta nik zer egin bear det? Sendagillearen lana ez da ori?

—Ori al dek seme baten erantzuna? Sendagilleak zer ikusirik etzeukak or. Ezkondu adi eta lagun bat ekarri akiok.

—Nik ez dakit, bada, nork naiko duen nerekin.

—Edozeiñek, itzegiten badiok. Emakume-paltarik etzegok etxe auetan.

—Ez dakit, bada. Beste senide guziak ere nekazaritzari muzin egin diote, eta onerako iñork naiko al du? Baserrirako neska on bat billatzen ez da erreza izango. Lan garbia nai dute oiek.

—Gaurko egunari nekazaritzari eraspen gutxi diotela, zoritxarrez egia dek. Baiña seme-alabetatik iñork etzuela nai esateak zalantzan jartzen niok. Maiorazkoa etxean dagoela, etzegok besterentzat lekurik. Erorri ez baaiz ausartzen, nik billatuko dit bat, nai badek beiñepein.

—Utzi, aita, ori nere esku. Negua baiño len norbait billatuko al degu.

–Bai. Beti orrela gaituk.

Ordukotz ala geratu zan. Baiña, gurasoak elkar artuta, amak egin zuen bere jokoa. Aitak begiz joa zeukana, berari ere oso atsegin zitzaion mutilla. Ixil-ixilik egindako lana.

Auzoeneko neska zan. Bera ere, santuak jazten asi bearke zuela beldurtzen asia ordurako. Baiña oraindik sasoi oneko emakumea. Orri itzezin zion.

–Aizazu –erantzun zion neskak–: neri ere atsegin zait mutil ori, eta uste det gazteegiak geralako ez digutela galeraziko. Zaartzen ari naiz eta ez nuke neska zaar, besteren aurrak azitzeko, geratu nai. Egokiera detanean, jakiñaren gaiñean jarriko det. Ez ote dit gero purrustadaren bat egingo!

–Gure Joxe ez da olakoa. Bear du, beti zirika ari gatzazkio ta.

EGOKIERA

Ordu ori ere iritxi zan, bada. Egokiera oberik ezin zitzaion etorri, eta gure neska zaarrak etzuen galduko.

Mezetatik etxera zetorrela, mutilla bide-bazterrean naigabetua arkitu zuen: mezetara joan nai ta zegoen bezela lotsatu egiten. Txarrantxa baten gaiñetik igarotzerakoan, onek galtzari arrapatuta, ipur mäsaillean tarratara luze bat egin zion. Bestea jaztera joaten bazan, berriz, bazekien ordurako etzala iritxiko. Neskak andik gora igaro bear zuen, eta an bertan topo egin zuten, bat mezetarako asmoan eta bestea andik etxera.

–Egun on, Joxe –agurtu zuen goxo-goxo.

–Baita zuri ere, Anttoni.

–Zer dezu? Triste zaude noski.

–Olakoak neri gertatzen zaizkit.

–Zer da, bada, olako ori?

–Lotsatu ere egiten naiz esatea.

–Jesus! Zer ote da, bada, kontatu ere nai ez dezu-na?

–Mezetara noala, txarrantxa gaiñetik igarotzera-koan, galtzei tarratara luze bat egin diet atzetik.

«Ea nerekin itzegiteagatik egin duen ori!». Alako txinparta bat bezela pasa zitzaion ori burutik neskari. Baiña Joxek etzuen ainbesteraifnoko malezirik. Nora etzekiela geratu zan.

—Eta orregatik lotsatu? Edozeifni gertatu litzaio-kena da ori. Ea, ikusi dezagun.

Lotsatuta, baiña atzeraka jarrita erakutsi zion.

—Ori ez da ezer ere, Joxe. Nerekin ez bazera lotsatzen beiñepein, bost minutu baiño lenago, ifnork ezagutuko ez duen moduan josiko dizut ori.

—Ni zurekin lotsatu? Markesen baten semea naitzela uste al dezu? Ez daukazu, ordea, zerekin josirik.

—Bada ez bada ere, jostorratza ta aria beti nerekin ibiltzen ditut.

—Eta bertan josi bar al dizkidazu?

—Bai, Joxe, bai. Nere aurrean galtzak eraztea lotsatzen bazera, berriz, bertan soifnean dauzkazula.

Jostorratzari aria sartu ta josteko atzean belauiniko jarri zanean, lotsatu zan pixar bat gure mutilla, baiña utzi zion.

—Gaizki geratuko zait, ordea.

—Ez orixe. Autsi ta josi dizkizutenik ere ez dio ifnork antzik emango. Jakiña, erantzi ezkeru, obe. Ementxe kontu kontari, obeto ta aguroago josiko nizkizuke, soifnean dauzkazula baiño.

Neska zaarra umoreko zegoen, eta zirika ta adarra jotzen ari zitzaion, arritu ta lotsatua zegoen mutillari. Joxek ezetz zion; bestela, etxera joango zala beste batzuk jaztera.

—Ez olakorik. Belauniko ere bereala josiko dizkizut. Pazientzi pixka bat ar zazu.

Asi zan lanean eta, uste gabe edo nai zuelako, xixtako bat egin zion atzetik.

—Anttoni, josi galtzak, baiña ipurdiko erretena ez.

Algara gozoa egin zuen neskak. Alako jauzi bat egin baizuen mutillak.

—Oraindik idixko bizia zaude. Barkatu. Orratza nai baiño barrurago joan zait. Baiña ori ez da ezer ere.

—Baliteke ori, baiña alproja onak zerate zuek.

Amar bat minutu atsegiñak igaro zituen neska mutilla zirikatuz. Josi zituenean, ala esan zion:

—Nai badezu erantzi ta ikusi, autsi dituzunik ere ez dio iñork igerriko.

—Eskerrik asko, Anttoni. Olakoak al zerate zuek?

—Bai; olakoxeak. Eta zuk zer egiten dezu, beti mutil zaar? Baserri ortan emakume baten bear gorria daukazute, bada.

—Eta zu ere ez al zaude neska zaar?

—Egia diozu: nere urteak ere poliki-poliki badijoazela. Zuek mutil zaar geratzen bazerate, norako gaude gu? Gaurko mezetan ere, San Antoniori nobio jator bat eskatu diot.

—Eta ez al daukazu norekin ezkondu?

—Len ere esan dizut: eduki banu, onuzkero aspaldian ezkondu nintzan ni. Baiña San Antoniok ez dit entzun nai. Bera garbitu ta jazteko ote nauka? Izan ere, zuek orrela ixten bazerate, neska zaar geratu bearko degu.

—Neri ere gurasoak zirika ari zaizkit, ezkontzeko ta ezkontzeko.

—Arrazoi ere badute. Zuen baserri ortan emakume bat oso bearrezkoa dezute. Baiña zuk ez daukazu aukera txarra.

—Norekin, ordea? Ez det iñor ezagutzen.

—Ai, Joxe. Lotsatia zera. Baiña ori mutil batenzat ez da txarra. Berriz galtzak austen badituzu, non billatuko dezu ni baiño jostun oberik?

—Ez dakit, bada, arrobi ori ez det ondo ezagutzen ta.

—Badakit zer pentsatzen ari zeran. Baiña etzera agertzera ausartzen.

–Nere buruan nolako gogoetak darabilzkidan, nork antz eman bear dio?

–Nik darabilkidana darabilkizu zuk ere.

–Zer da, bada, zurean dabillen ori?

–Azkenean nik aurea artu bear. Zuk nai bazendu, pozik ezkonduko nintzakela ni zurekin. Ori darabilkit buruan. Bai zuk ere. Lotsatu egiten zera, ordea.

–Sorgiña al zera? Edo...

–Sorgiña, zergatik?

–Asmatu egin didazu ta...

–Orixe. Aurpegian antz ematen baidizut.

–Eta benetan al diozu ori: gure etxera etorriko ziñakela?

–Bai, Joxe. Eta aspaldian zauzkat begiz joa. Baiña neska naizen aldetik, zuri aurea artzea ezin auzartu ni ere.

–Ori ala bada, laster konponduko giñake.

–Ez al gaude, bada, ala? Zu mutil zaar eta ni ere neska zaar. Zuk diozun bezela, nai badezu, nork jarri bear dizkigu eragozpenak? Gazteegiak geralako ez gaituzte atzeratuko noski. Gaiñera, ez det uste zuen etxerako gaizki etorriko nintzakenik, nere ustez beinpein.

–Eskerrik asko, Anttoni. Berri on bat badet orain gurasoei emateko.

–San Antonio bedeinkatuak iritxi digu grazi au. Entzun ditu nere otoitzak –eta eskua eman zion mutillari.

–Agur, bada, Anttoni. Mezetara joan bear det.

–Orain mezetara? Jendea atera ta badator ta...

–Ederra egin degu orduan. Beste mezarik ez da noski?

–Ez. Elizan au zan azkenekoa. Baiña goiko komentuan laster asiko da.

–Utsegiterik ez nuen nai, bada. Baiña ala bearko du. Zurekin izketan, uste gabe joan zait denbora.

–Baiña alare ez litzake pekatu aundia izango, ez dezu naita egin ta. Txarrantxak izango lituzke kulpa guziak.

–Baita zuk ere, Anttoni. Minutu bat bezin aixa joan zait ordu erdi. Pekatuarekin asiera ematen badiogu, nola bukatuko ote degu azkenean?

–Len ere esan dizut: goazen goiko komentura. Nik bertaraiño lagunduko dizut. Ez degu bide galtzerik, biok andik igaro bear degu ta.

Alaxe, elkarrekin joan ziran.

–Datorren ostegunean Santiago dala jakingo dezu? –galdetu zion neskak.

–Bai; egia. Eta orrekin zer esan nai didazu?

–Biok joango giñakela ango meza nagusira.

–Baiña zer esan bear du jendeak?

–Laga akiozu pakean. Gu konpondu gera, bai, ta jarrai dezaiogun orri, elkarren jenioen berri ikasi arte.

Joxe alai ta berritxua zegoen. Komentura joanta ere, ezin zan neskarengandik berezi, eta onek ala esan zion:

–Agur, Joxe, bestela emengo meza ere utsegingo dezu ta.

Elkarri aurpegira begiratu bat emanetz, mutilla mezetara sartu zan, eta neskak etxerako bidea artu zuen.

Mutillak ere eman zizkion mezetan San Antonio-ri benetako eskerrak. «Zorioneko txarrantxa!» zion berekiko.

Bazkaltzerakoan, semea alai ikusten zuten gura-soak. Berak ere ala zeuden. Ordurako, neskak esanta, bai-baizekiten gertatuaren berri. Nekez bederenik, noizbait itza etorri zitzaion mutillari.

–Orain etzerate noski geiago zirika ariko.

–Zergatik diok ori?

–Billatu baidet andregaiia.

–Bejondeikela, motell! Lentxeago esan bauan, kafetxo bat merezi zin orrek –aitak.

–Oraindik ere garaiz gaude –esan zuen amak, eta berri atsegin orrengatik umore onean kafetxo bana artu zuten.

–Nor dek, bada, ori? –galdetu zioten.

–Etxeberriko Anttoni.

–Eldu xamarra dek, baiña i ere ala aiz. Beste gaiñerakoan, motell, neska sendo, zabal, langille ta alaia dek ori. Bera ikusita, bein baiño geiagotan pentsatu izan dit gure etxerako ez litzakela aldrebesa izango. Gurasoontzat berririk atsegiñenetakoa dek ori. Aspaldian begiz joa neukaketen.

–Itxusi xamarra dala noski –esan zuen, zer atera erazi, amak.

–Akatsik gabeko giza-emakumerik ez dago munduan –aitak.

–Señorita pintarra oietakoa baiño naiago det nik au –semeak.

–Motell, erorrentzat bear dek. Orren atsegiña bazaarik, obe –aitak.

–Etxea zerbait konpondu ere egin bearko degu, bada –semeak.

–Bai. Ori aspaldian erabakia zeukagu.

Poztu zan mutilla. Eta –zergatik ez aitortu?– bera ainbeste edo geiago gurasoak. Baserriaren etorkizunerako nai ta nai ezkoa zan ori.

AARI-JOKOA

Ezkondu baiño len elkar zerbait geiago ezagutu gabe etzuten, bada, aldarera igo nai. Betiko gurutzetu bear zutenak bakoitzaren griñen berri ikasi, al bazan, aldez aurretik.

Ostegunean, bada, gure bikotea erromerira atera zan, ez oso urrutira, Astigarragako Santiago-mendira, goizetik. Ango jaiak ziran eta meza entzutera angu ermitatxoan. Arratsaldean ere beste norabait egin zuten beste txangoren bat.

Len neska baten aurrean mutillari mingaiña toteldu egiten bazitzaion ere, orain ura aldamenean zeukalako etzeukan alakorik.

Baiña biak oartu ziran atzetik orpoz orpo zetorkiela neskaren auzoko beste mutil zaar bat. Baiña orduan etzuten aintzat artu. Ura ere Santiago-mendiko ermitara joango zala meza entzutera; eta, bide bereetik zijoazen ezkerre, etzan arritzekoa berei jarraiz etortzea. Ango meza asi bitarte etzuten bistatik galdu.

Erten ziranean, Astigarragako mutil bat ari zan txistua jotzen. Baiña dantzarako doiñurik ez det uste. Ala jo balu ere, gure uxapalak etziran asiko. Mutillak beiñepein etzuen artarako egokierarik eduki.

Irrifan ere ari ziran. Gure bikoteak ere jokatu zuen, eta mutillari gazta eder bat tokatu zitzaion. Anttoniri, berriz, erroskil-sortatxo bat.

–Zuk nik baiño suerte ohea izan dezu –esan zion neskak.

–Ez dakit gaur arte iñoiz jokatu detan, eta lenengoan erori.

Mutil gazte batzuk bezela, biak alai ta jostari an zebiltzan.

Noizbait jarri ziran, bada, etxerako bidean. Baiña len esan degun mutil zaar ura, gorakoan bezela, orpoz orpo beerakoan ere.

–Ondo ezagutzen al dezu ori? –galdetu zion mutillak neskari.

–Len ere esan dizut. Bai aspaldi ontan. Jaietan, ni nora, ori ere ara dijoa. Baiña ez degu oraindik elkarrekin itzegin. Zuri bezela, mingaiña totelduko zaio.

–Zure atzetik ote dabil?

–Zalantzarik gabe ori.

–Eta begizkoa al dezu?

Galdera orrek esan nai aundia zeukan. Laster ulertu zuen Anttonik bere laguna espatsu jarri zala eta bietan norengana jo bear zuen galdetu nai ziola.

–Banekien ori aspaldi. Baiña mutil pixka da nerezat. Baserri kaxkar batekoa, txurruta ere atsegin zaiona, beti orren iges ibili naiz. Ez baidet gogozkoa. Baiña ez beldurtu, Joxe. Zuk aurea artu diozu. Orren ondoan besterik zera zu. Zure gurasoekin ere egona naiz. Etxea ere, ni erregin bat bezela artzeko, konpontzen ari zerate. Ez balitz ala ere, len esan dizut zurruteroa dala, eta edan gaiztokoa. Ez naiz senarrarekin beldurrak biziko. Bere eskutik jipoiak artzen ain gutxi. Polita izango litzake ori, olako txoria ta kabia mozkor batekin trukaturko banitu.

–Eta beldurra ematen al dizu?

–Beti ere norbaitekin asarretu bearrak pena ematen dit. Bai al da etsai txikirik? Aurretik ezin duenak, atzetik egingo du lana.

–Ortaraiño zurekin txoratu badago ta okerrago. Olakoa bada, ez dakit aari-jokoren bat ez ote daukadan bidean.

–Ez det uste olakorik. Nik aintzat artu izan banu, eta itxaropen pixarren bat eman, baziteken. Baiña orain ez.

Mutilla beldur zan burrukaren bat ez ote zuen egin bearke. Alare, umorez onela esan zion neskari:

–Itxura duenez, guk usai ona botatzen degu, oraindik ere orpoz orpo jarraitzen digu ta. Ez dakit sekula ikusi detan.

–Utziozu pakean. Laster aspertuko da. Etzazula orregatik amets txarrik egin, gixaixo bat besterik ez da ta.

Etxeraiño lagundu zion. Baita neskaren gurasoe-kin itzegin ere.

Mutillaren ustez ondo zijoan neskarekiko artu-
-emana. Baiña laster bere atzelariari aurpegia eman bearke zion. Andik illebeta batzuetara, erritik etxera zetorren batean, topo egin zuen mutil kaxkar orrekin.

–Etxerako martxan i ere –agurtu zuen mazal-mazal Joxek.

Bestea errea zegoen, espatsu, Joxe neskarekin ikusi berria baizuen, eta erantzuna ere alakoa eman zion:

–Nola ezagutzen nauk ik?

–Nere andregaiak esanta, motell. Baita Joakin dekala izena ere. Ezeren txarrik bai al zegok ortan?

–Ondo zegok. Ikusi iñudan, bai, i arekin joaten, eta geroztik arekin abillela. Etxerakoan irekin itz bi egitera atera nauk bidera.

–Motell, biok bakarrik gaudek. Au baiño egokie-
ra oberik? Zer nai uke?

- Iri muturrak autsi. Asmo orrekin natorrek.
- Alajainkia! Ezagutzen ere ez aut eta itzetik ortzera zemaika al ator?
- Nerea bear luken norbait ezagutzen dek, bada, ondo.
- Zenbatean erosi dek? Nik txuxen jokatu dit. Etzioat iñori txarrik egin.
- Neri egin didak, bada.
- Zer dala ta?
- Anttoni nerea dek, eta utziok neska orri pakean.
- Ezkondu al intzan, bada?
- Ez. Baiña asmo orrekin nenbilleken.
- Eta itz emanak al zerate?
- Ez da ori ere.
- Orduan nolaz dek irea? Aske-askea zegoken Anttoni, neri itz eman arte.
- Berriro esaten dit neskatxa ori nerea dala.
- Berriro galdetzen dit: zenbatean erosi uan?
- Maitasunez erosia zeukat nik ori.
- Eta seguru al ago arek maite auala?
- Ori etzekit. Baiña bai nik maite detala.
- Ori ez dek aski. Arek maite auan itxura aundi-rik etzegok or. Gure atzetik abillela oartu nintzanean, lenago artu-emanen batzuk izan al zenituzten galdetu nionean, onela erantzun zidaken neskak: urtea baiño geiago zala atzetik asi intzala, baiña etzendutela oraindik elkarrekin itzegin.
- Utziok neska orri pakean. Bestela bertan autsi-ko dizkit mutur oiek.
- Alazankoa! Billatzen ainbeste kosta ta gero uzteko, ez aiz egitan ariko!
- Ez niñun bestela ire bidera aterako.
- Eta i bidera kargu artzera atera aizelako, orren

errez utziko detala uste al dek? Neska ez bada atzeratzen, nik jarraituko zioat, eta eskeleto batek ez dizkit gero nere muturrak autsiko.

Eta txamarra bide-bazterrean utziz:

–Ator, gauza baaiz, onera! –oiu egin zion Joxek.

Mutil sendo ura aurrean ikusirik, aren beso-zuztarrei begira, etzan urrats bat ere aurrera ematera auzartu. Bai-baizekien arek etzuela ikusteko ere. Baiña bera atera zan eta etzuen atzerarik egingo. Patrikan zeraman laban txorrotx bat artu zuen eskuan.

–Ni il da ere burua garbitu nai al uke-edo? Ez al aiz begi luze izango!

–Ori laster ikusiko diagu.

–Espak orrenbesteraíño itxutu al aute?

Etzuen noski iltzeko asmorik izango, baiña erasotzera zijoakion.

–Motell, laban txar orrek, ire esku aul oietan, ez niok batere beldurtzen. Orri gogor egingo dion arma ugari bazegok emen.

Bidetik iru edo lau arri artu zituen eta tira zion bat, baiña ez jotzera. Belarri ondotik burrundara zeramala pasa zitzaion.

–Aldegin zak antxintxika nere aurretik, bestela urrengoak ire mutur zorrotz ori zapalduko dik eta.

Labana patrikan sartu ta «au ez dek ortara gertuko» esanta, etxerako bidea artu zuen, bere kasa marmarrean.

–Ez uan asko galduko, nere aurrera ez baintzan azaldu –esan zion Joxek.

Mutil zaarraren desapioak urduri utzi zuen Joxe. Etsai txikirik ez dala bazekien ondo. Kontatu zion neskari gertatua eta egin zion zemaia.

–Ai, Joxe! Kontuz! Ez gero orrekin geiegi piatu. Jenio kaskarrekoa da ori.

–Eta zu ere, Anttoni. Agian aulenari erasoko dio.

–Baliteke ori ere, berarentzat ez naizenean berarentzat ez nadin izan.

–Orixe esan zidan, bada, neri.

Bere zemaia bete zuen, baiña ez mutil edo neska-ri erasota. Beren interesetan egin zien azio kaskar bana. Arrats batean, neskaren etxekoei arto-zelai bat moztu zien ondo-ondotik. Andik egun batzuetara, inguru xamarreko baserritar bat etorri zan Joxeren etxera. Auek aren baserri ondoan bai-baizuten beiar-soro eder bat.

–Ango zuen bi metak bart erre dizkitek –esan zien.

–Aiek bakarrak?

–Nik dakidala, ez dute beste aziorik egin.

–Oraintxe ederki utzi gaituzte negu lasai bat pasatzeko. Eta ez dezute iñor ikusi? Arratsean egindako lana noski.

–Illargitan iges egiten bai. Baiña nor izan ziteken ez.

–Nik lepoa jokatuko nuke, bada, nor dan asmatu baietz.

–Esan zazu, eta etzaio barkatu bear.

–Iñondik ere Bordatxoko Santi, nere semeari zemaia egin zion ta.

–Ondo dago. Ni, bear dan lekura parte ematera noa. Arto-zelaia ebakitzea ere orduan orren lana da.

Au somatena zan. Bazeukan bere agintea gure goiko zapaltzailleekin. Bai artu-eman bero xamarrek ere.

Arratsalde artan bertan eramán zuten guardiazibilak lotuta. Ikusitakoak ziotenez, bizkarrekoak emanenez. Orduan zillegi omen zan noski zigortzea.

Etzuen espetxean denbora asko igaro. Egindako

lan txarrak ordaindu ere ez. Zerekin ez baizeukan.
Barkatu egin zioten gaiñera.

Alare, naiko beldurra sartu zuen etxe aietan.
Leioak ondo iltzatuta jarri zituzten, kanpotik ireki
etzitezen.

ANKAGORRIAK

Illebeta batzuk igaro zituzten atzera-aurrera erromeri batzuetan barrena. Baiña ezkontzeko zeuden neska-mutillak baiña, itxura ohea zeukaten senar-emazte eldutako batzuen. Ezagutzen zituzten adiskide ta lagunuen artera erdi lotsatuak agertzen ziran. Azkenean, mutillak ala esan zion neskari:

–Eroarena egiten gabilta onela, Anttoni. Len ere ezkontzeko aski zaarrak gera, eta oraindik atzeratu egin bear al degu egun ori?

–Lotsagarri gabilta eta zurekin bat nator: lenbailen ta obe. Zure gurasoak ere kezketan bizi dira. Neri ala esan zidan zure amak lengoan: «Ea, Anttoni. Mugi zaitzete. Gure seme ori urtetan olaxe ibiliko litzake. Zirika zazu. Zure bear gorria dago etxe ontan».

–Nere amak esan al zizun ori?

–Aretzek berak, mezetatik etxerakoan.

–Ondo dago.

Ezkondu aurretik bear diran arazo guziak bete zituzten, eta erdi ixilka erriko elizan ezkondu ziran. Eztai ondorengo txangoa Arantzazura egin zuten, eta biak lotu ere, beren eginkizunak betez, artu zuten gurutze astun ura eramatera.

Gurasoak etxean emakume berria ikusi zutenean, poztu ziran. Beste martxa bat artu zuten orain base-
rriko gora-beerak.

Etxe askotan erraiña esango diote, baiña aiek ez. Alaba deitzen zioten. Onek, berriz, aita eta ama. Zer-
gatik erraiña edo suia izen oiek? Etxe ta sendi batean
eskubide osoarekin eta bertako etorkizunaren oiñarri
izango dan bati, emakume edo gizon, erraiña edo
sua deitu? Izen orrek fameli batean bereizketa txarra
egiten duela uste det.

Alaba, ori zan andik aurrera gurasoengandik en-
tzungo zuena. Ezkonberriak ere bereala etxekotzat
artu zuen bere burua, jaiotetxeko gurasoak utzi ta
beste batera aldatu zanean.

Ura zuten, bada, etorkizunaren itxaropena. Uste
gabekorik ezean, baserriak oraindik beste gizaldi bat
iraungo zuen. Landare berririk sortzen ez bazan ere,
gurasoak etzuten beraren atzena ikusiko.

Landare berriaren ezaugarriak ere laster azaldu
ziran, bada. Amaika baserri badaude olako baten zai,
zaarrak bertan jarraitu nai eta ondorengorik izan ez
dutelako edo seme-alabak ezkondu orduko kalera di-
joazelako. Benetan gerekoiak gera.

Au idazten ari danaren baserrian ere izan ziran
olako larriak. Xaarra il baiño urteren bat lentxeago
sortu zan landare berria. Mundutik joan baiño len
ura ikusteak etzion nolanaiko atsegiña eman aita za-
nari. Gurasoetatik ondorengoentzat emandako base-
rria galdu bearra mingarria izango da galtzen duena-
rentzat.

Amak, etxeko andre xaarrak, etxe barruneko
martxa bere bizkar artu zuen. Berriak, eguneroko ka-
lerako joan-etorria. Arratsaldean etzuen arek ere
etxean lanaren paltarik izango.

Lenengo anka gorria jaio zan. Mutilla bera. Aun-
dikiro ospatu zuten eta Bixente, aitonaren izena, jarri

zioten. Amaren aitarena, alegia. Ura baizuen bataio-ko aitajauna eta aitapontekoa.

Gurasoak baiño geiago poztu ziran noski beraren aiton-amonak. Onentzat seme bat geiago. Ura azi ta zaintzeko bizi zala zirudien. Ainbeste aldiz aipatutako aurtxo, etxeko oiñordeko berria. Lenago beste sendi bat bikaiña azi zuen. Orain bestea. Ankagorri oiek nola zaindu eta azi ondo ikasia zeukan.

Aurraren ama, berriz, askoz askeago geratu zan, amak etxe barruko martxa bere gain artu zuenean. Onentzat, berriz, kanpoko lan gogorra utzita, askoz ere neke gutxiago. Etxeko bizi-pozerako orain elkarrekin ondo konpondu bear.

Baserriko martxa, berriz, ondo zijoan, lanerako aurrerapen guziak ekarri zituzten ta.

Amalau urterako zazpi seme-alaba bazituzten. Etzuten gaurko famelien antzik: bi; geieneko iru, ta kito. Amonak, ordurako zaartu xamarra, ala omen zion:

–Zazpi. Ez dago gaizki. Nereekin batera amalau azi ditut, eta emen oraindik geiagorentzat balegoke lekua.

Seme-alabak goraka zijoazen. Gurasoak zaartzen, beeraka, berriz. Fameliko nekeak ere, jakiña, azitzen.

Aiton-amonak lanerako gauza ez. Asko bear eta nola zaindu? Ori dena Anttoniren bizkar geratu zan. Aiei zor zien, berriz, etxe artara ezkontzea. Aiton-amonen lana izan baizan guzia. Berari alako arrera egin ziotenak etzituen iruzurtuko. Alegin guziak egingo zituen, itxaron ta merezi zuten maitasuna agertuz.

Seme-alabak, berriz, bein ogei bat urterako, beren askatasunaren billa zebiltzan. Etzuten etxean entzun ta ikusi zutena ikasi. Ez gurasoak erakutsia aintzakotz artu ere. Kalera begira bizi ziran, baserriari muzin eginta. An zeuzkaten bazter guziak naastu dizkiguten Mesias berri oiek. Aiei jarraitu nai zieten;

ez gurasoei. Lanerako gogo gutxi, baiña diru asko bear.

Eskerrak aitonak zaarren saria jasotzen zuela. Senar-emazteak mantentzeko aiña baiño geiago noski. Baiña lanerako gauza ez. Amona nekez ibili ere egi-ten zan, eta Anttoniren buruausteak, zaindu ta aiek garbi edukitzeko. Eta beste lanak uzterik ez. Denetara ezin iritxi.

Gazteak, berriz, aske bizi nai zuten, gurasoen eziñari begiak itxita. Zaar aiekin nola kutsatuko zituzten eskuak? Eskerrak etzuten jan ta jazteko kutizi geiegirik. Alare, ogei bat urtera arte denak lagundu zieten aitari ta amari etxeko ta kanpoko lanetan. Bein ogeitik gora asi ziranean, kale aldera egatu nai zuten banaka-banaka.

Orduan azaldu zan Anttoniren biotz ona, eta zaar-
rrak ura aukeratzearekin asmatu zutela. Bestela, orain leku onean geratuko ziran. Ez da erreza. Maitasuna ta kristau biotza bear dira, arek gurasoak bezela mantendu ta zaintzeko.

Aitona joan zan lenengo, eta uste gabeen, zaulie-
na gaiñera ura zegoen-ta oraindik. Amonak ere laster jarraitu zion atzetik. Sendi askotan gertatzen dana da ori, ni oroitzen naizenez beiñepein, zaarraren zaarrez iltzen diranean: bat il ezkerro, besteak ere laster jarraitzen diola.

Atsedean aundia eman zion onek Anttoniri. Nai-
gabea ere bai, ordea. Errain batek nekez arkituko di-
tu aiek baiño atsegiñagoko gurasoak.

Beren seme-alabak azitzeak eta ezitzeak buruaus-
te aundiak ekarri zizkieten Joxe ta Anttoniri, lanera-
ko biak bakarrik geratu ziran ta. Poliki-poliki beren
aziburua artu zuten. Baiña, laguntzeko ordezt, eska-
riak ugaritu ziran. Beren ezerezetik ez dakit nola sor-
tzen zuten aiek bear zutena. Gurasoei edozer lanetan
laguntzeko moduan zeuden. Alare, beti kalerako
txangoa, gurasoak etxean bakarrik utzita.

Arratsalde batean, berriz, beren semeen maisua etorri zitzaien, eskari edo aolku bat ematera:

–Zuen semeak oso buru argikoak datoz, batez ere gazteena.

–Ala izango dirala ez det ukatzen, amaren seme-alabak dira ta –zion aitak–. Baiña ez al dira alper xamar eta biurriak?

–Eskerrik asko, Joxe, loretxo orrengatik. Baiña bionak dirala ezin ukatu –erantzun zion emazteak.

–Bai noski, bai. Talentuz zureak izango dira. Alper eta biurrikeriz, nereak.

Maisuak par egiten zuen, aien elkarrekiko konfiantza ura ikusirik. Baiña ajolagabeak zirala etzegoen ukatzerik.

–Zer erantzuten didazute?

–Baietz. Sinisten dizugu. Baiña zer adierazten diguzu orrekin?

–Orren etorkizunari begiratu bear zeniotekela.

–Ez dio, bada, berak asko begiratzen gureari. Esaiozu gurasoei laguntzeko.

–Gaurko gazteak olakoak datoz.

–Zoritxarrez, ez diozu gezurrik. Aolku maitagarria da ori. Ni ere buru azkarrekoa omen nintzan. Baiña emen ari naiz bakarrik, izerdi patsetan, lurra-ekin burruka, eguneroko ogia ezin kendurik, famelia aurrera ateratzeko; zaartzaroan gu jaso nai ez gaituzten seme-alabak azitzeko. Neri ere norbaitek lagundu balida, gaur agian injeniero izango nintzan. Urteak lanik gabe igaro, erretiro oparo bat artu ta bapo.

–Ez dezute semeentzat zuentzat baiño erretiro ohea ematea nai?

–Ezetzik ezin genezaizuke esan, semeak ditugu ta. Baiña etorkizun ona oientzat izango litzake. Base-riari beiñepein eraspen aundirik ez diote. Ezta gurasoei ere. Au degu gazteena. Neska-mutillak geratzen

dira. Besteak, denak aldegin zuten emendik. Guk lengoari jarraitzen diogu. Auek kale alde ortan beste Mesias berriak egin dituzte. Urtea zorrik egin gabe ezin degu bukatu. Zekorren bat saldu bear, urtea zorretan ez astezkeroz. Eta orren kastuak noren bizkar geratzen dira? Gabiltzan bezela, guk ezin genezake.

—Adiskide aberatsen bat ez badezute, zuek ordaindu beariko. Baiña badakizute zer dan seme bat injeniero edukitzea?

—Berarentzat izango da. Gaur arte beiñepein ez digu asko lagundu. Zaarragoen martxa artuko du onek: bukatzen duenean, anka. Nekazariok baserriak uzten baditugu, oien karrerak alperrikakoak izango dira.

—Ordaintzea zailla da. Ortan zuekin bat nator. Eta ori da fameli geienen kezka: modurik ez dutela. Baiña bear bezela saiatu ezkeru, nere ustez ordaintzea ez litzake eziña izango.

—Aixa diozu —erantzun zion amak, orduan sartu baizan elkar-izketara—. Etxe onek mutur guziak lotuak dauzka; neurtuak. Alperrikako kasturik ez da egiten. Bearrezkoak bai. Ezin da utzi. Zer uste dezu: txuletak janez bizi gerala? Sardin zaarrak, eta askotan ori ere eziñean.

—Orduan ez dezute semearen etorkizunik nai?

—Erantzun kaskar bat emateko naiko motiboa eman didazu. Ori beste arrazoa baida. Maisu jauna, denentzat nai genituzke etorkizun on oiek. Baiña baietza eman baiño len, eragozpen aundiak ikusten ditugu. Seme-alabak lagunduko baligute, or nonbait. Ez dute, ordea, ortan eskurik zikindu nai. Jateko ta lotarako bakarrik azaltzen zaizkigu etxera. Lanera dabiltzan iruk ez dute xentimorik emango, eta etxetik bizi. Beste bi ezkonduak ditugu. Geratzen zaizkigun bi gazteen auen leloa, berriz, ez da besterik goizero: «Ama, nik onenbeste pezeta bear ditut». Oien eder egitea ez da erreza. Badakizu gaurko egu-

nean zazpi seme-alaba azitzen zailla dala. Zuk nola askatzen dezu korapillo ori? –galdetu zion amak.

–Ez dakit. Ez det seme-alabarik izan.

–Guk zazpitaraiño izan ditugu, bada. Batzuk beren buruen jabe dira. Besteak etxetik bizi zaizkigu. Bati dena eman ta besteak larru gorririk uztea ere... Oiek denak gure seme-alabak dira, eta gazteena bezin maitagarriak guretzat. Bakarra bagendu, or non-bait. Bere senideak lagunduko baligute ere bai.

–Agintarien laguntza edo bekak ere aberatsen umeentzat izaten dira. Ez gu bezelako beartsuentzat –zion aitak.

–Zure iritzikoa naiz ni ere, Joxe: ez dala erreza izango ikastetxeko orren zorrak ordaintzea. Baiña Jaunak osasuna ematen badigu, ez, nere ustez.

Amaren arrokeria esnatu zan.

–Ai, maitea! –erantzun zion Joxek–. Zer besterik nai nuke nik? Baiña nondik atera bear diogu baserri oni orrenbeste diru? Alperrikako kasturik ez degula egiten ez dezu arestian esan? Tarteka erretzen ditudan zigarro oiek eta igandeetako baxo erdi ta parranda koxkorrak ere utzi bearko ditut. Oraintxe bizitzeak ez du neretzat atsegiñik. Semeak ori egingo balute... Seme-alabak gure bizkar nai duten bezela dabilzan bitartean, guk ukuilluko idiak bezela bizi bearko degu: jan truke lan egin ta katera. Ez al da ori geiegia izango, Anttoni? Mutil zaar geratu baintz, ez nuan asko galduko. Erruki-Etxean ez giñake okerrago biziko.

Naigabe ematen zion emazteari ainbesteraíño beartzea. Baiña arrokeri pixka bat esnatu zitzaion, len esan degun bezela: gurasoentzat aintzagarri zala seme bat injeniero edo sendagillea edukitzea.

–Orrenbesterik gabe xox batzuk aurreratu genezazke, Joxe.

–Ondo dago. Orren kontra ez naiz ni. Zerorrek jakingo dezu nondik eta nola aurreratu. Milagro txiki

ori ere egingo ote degu? Gure eziña ikusiz norbaitek lagunduko baligu... Prudentxioren emazteak agian? Umeak azitzeko beren gorputzak ematen dituztenak ere bai omen dira, ta lentxeago esan detana: uste gabeko laguntza ere azaldu litekela.

—Berak ere, udaran lana eginta, zerbait irabazi lezake —zion amak.

—Ametsetan bizi al zera, Anttoni? Ez dituzu dagoeneko ikusten, zigarro bana piztu ta eskuan ketan, neska kaxkariñen batekin lotsarik gabe txakurren gisa jolasean nola ibiltzen diran, oraindik amasei urtez peko mutillak? Nazkatuta aldegiten det nik oien ondok. Udaran ta diru geiago eman bearke diozu orri.

—Ori txarrena pentsatzea ere bada, Joxe. Ez al dira denak olakoak izango! —esan zuen amak, naigabetsua.

—Ez al ditut, bada, nik nere semeak orrela ikusten? Orain arte, denak olaxe joan dira baserri ontatik. Ezkondu ezkerro ta lenengo aurra izan ezkerro, al daketa pixka bat egin dutela badakit, Jaunari eskerak. Baiña besteak, lanera dabiltzanak ere, oker dabilta. Aurki alabatxo au ere asiko zaigu mutillekin batera zigarroa errez eta ezpaiñak pintatzen —aitak.

—Nolako karrera ikasi nai luke? —amak.

—Berak dionez, injenierotza —maisua.

—Ez du txarra aukeratu. Ni ere ala izan banintz, gaur ez nintzan, otz ta bero, busti ta legor, oien kutiziak asetzeko lurrarekin burruka ariko. Begi zorrotza izan du. Bejondeiola! —aitak.

—Baiña badakizu seme bat injeniero edukitzea guraso batzuentzat benetan aintzagarrria dala —maisua.

—Guretzat aizea besterik ez. Guk, beti bezela, eziñean jardun bearke degu. Berak asko irabaziko duela, jakiña —aitak.

Onek noizbait amor eman zuen, eta seme ori joan zan ikastera.

Lenengo urtea neke aundi gabe ordaindu zioten. Joxe gizarajoak bai zigarro erretzeari utzi ere. Baxo erdiak artzen zituen, baiña ez len ainbeste. Sudurrez beera begiratu ezkerro, abere baten bizimodua zera-maten gurasoak: beren mundu ontako atsegiñik geienak utzi ta seme-alabak azitzeko lan egin.

Etorri zan udara. Ikasleen oporrak ere bai. Oso nota onak atera omen zituen. Etzan gutxi. Beren nekeak zerbait bazekarten.

Esan degunez, aitak utzi zion zigarro erretzeari. Bere bizio pixarra ori zuen. Etzion semeak onen ejemploari asko begiratu. Len aitak alako bi ta geiago erretzen zuen orain berak. Beti bazuen lagunarteko otorduren bat. Norabaiteko txangoa berdin. Geiengan, euli txuri oietakoren bat aldamenean. Futbola dala edo pillota, jolasleku guzietara bere lagunekin joan bearra. Aiek geienak fameli aberatsetakoak. Ala ibiltzeko diru asko bear. Beti amari eske. Arentzat diña ezin sortu zuten. Ez bazion ematen, gaizki esaka.

Karrera ordaintzeko bear zana baiño askoz geiagoko txautu zuten udaran. Lan egin da zerbait irabaziko zuela oporaldian amak egindako ametsak, lekutan geratu ziran. Eta ori goraka joango zan. Naigabetua zebillen ama. Aita, sumindua. Semea, millionario bat bezela. Alare, noizbait etorri zitzaion ikastera joateko ordua.

–Diru asko aurreratu al du semeak udarako oporetan? –galdetu zion aitak amari, umoreko ta adar-jotzaille.

–Mesedez, zaude ixilik, Joxe. Ez ni zirikatu. Karrera guzia bukatzeko aña kastatu du orrek udara ontan –zion naigabetuta Anttonik.

–Ori ez da ezer. Laster asiko dira andik ere eskeak.

Aren kastuen berri ikasi zuten beste seme-alabak ere, eta askotan aurpegira esaten zioten amari:

–Zergatik ari bai ta guri ez?

–Ez dezute arrazoirik. Lantegiko irabazi guzia zerontzat jaso ta etxetik mantendu, zer geiago bear dezute? Onak zaudete zuek, gurasoei laguntzeko.

Ikaslearen zorrak ordaintzeko txekorra saldutako urteak bazituzten. Alare, gurasoak goi-beeak jota utzi bazituen ere, urterik galdu gabe bukatu zuen karrera. Baiña etzeukan gurasoei laguntzeko gogo aundirik. Al zuen lenen Amerika alde ortara joan zan, an lana billatuko zuela-ta. Arako txangoa ere gurasoak ordaindu zioten.

–Ea andik ere eske asten zaigun –zion aitak.

–Guk bialtzeko itxaropenetan badago, aspertuko da –amak.

Iñoizka eskutitzak etortzen ziran. Gaitz erdi etzala gurasoetaz aztutzen, eta ori pozgarria zan. Baiña txekerik sekula ez.

Lan on bat billatu ta asko irabazten omen zuela; ezkontza on bat egin ta aberats bizi omen zala, arrokeri-losintxak bere buruari eskeiñiz. Etzekiten egia zion edo ez. Len esan degun bezela, etzien dolar bakar bat ere biali.

–Eskutitz orrek ezkondu ta aberastu dala ez dio? –galdetu zion Joxek bere emazteari, piakaitz noski.

–Bai. Gezurra edo egia, emen ala jartzen du.

–Zergatik ez digu bere emaztearen argazkia igorri, gure erraiña ezagutzeko?

–Ori berak jakingo du. Benetan siniskaitz zaude.

–Bai, Anttoni. Emen baiño lanerako gogo geiago ez badauka, emaztea artuko zuen aberatsa. Berak egindakotik ez det uste. Eta, egia bada, ez da gutzaz asko oroitu. Kolorea galdutako soiñeko zaar auek utzi ta berriak egiteko ez litzaiguke gaizki etorriko. Gu iruzurtu nairik ote dabil? Seme gazteenaren itxaropenetan ezin giñezke, bada, bizi.

AQUI HAY OLOR A VACA

Sei seme-alaba ezkondu ziran. Laugarren semearen itxaropenetan egon ziran. Uraxe etxerako nai zuten. Emaztea zuen pozik etorriko zana. Baiña semea egoskortu zan. Gazteena geiegi maite zutela, eta geiena ari eman; zaarrenari, berriz, tokatzen zitziola gurasoak jasotzea. Aitzakia besterik ez. Aurreko irurak bezela, ura ere karrikara joan zan.

–Nai badek, oa. Ere burua dek lenengo. Ez dek, ordea, etxe ontatik xentimorik jasoko. Esker gaiztoko semea i ere.

Baiña ez det uste asko galdu zutenik. Gurasoak zaartzean, auek Erruki-Etxera eraman ta baserria saltzeko asmoan omen zala. Baiña erraiñak etzuen ori ontzat artuko.

–Arrazoi kaskarra dek ori, seme. Ere parteak artua aizela uste diagu i ere. Etxean lan egiteko gogo aundirik ez dek izan. Kanpoan lantokirik ezin dek billatu. Ezkontzeko moldaketak egiten ederki jorratu gaituk. Ea, ainbeste maite dituken Mesias oiek salbatzen auten. Emazteari gogor egin diok, pozik baserri-
ra ezkonduko zana. Arek urrutira ikusten baidu. Famelia azi nai badu, arek ere, guk ezik, bere itxilluak pasa bearko dizkik. Gurasoekin seme-alabak dituk

okerrenak. Gure etxetik ez dik iñork doterik eraman-go. Etxean geratzen danarentzat izango dek, illoba bada ere etortzen zaiguna.

Seme gazteena Ameriketara joan zanean, bada, besteak ere, ezkondu alean, kalera joan ziran.

Gazteena, neska, Pilar izenekoa, uraxe bakarra zeukaten oraindik etxera biltzen zana. Lau mutil ta iru alaba zituzten. Sei, kanpora ezkonduak; eta zaz-pigarrenak ere, etxean jarduteko gogo gutxi. Auzo xamarrean fameli erdaldun bateko neskame egiten zuen. Berak zionez, oso aberatsak. Berarentzat izan-go zan. Gurasoei beiñepein etzien asko luzatu. Udara aldea pasatzen zuen aiekin. Baiña urterik geiena baserrian gurasoekin. Udaran, an bazkaldu ta apaldu ondoren, lotarako gurasoetara etorriko zan. Ango etxeko andrea espaz betea bizi omen zan, eta ez omen zuen an neskatxa gazterik eduki nai.

Onen itxaropena zeukaten, bada, gurasoak: etzi-tuela bakarrik utziko. Baiña laster antz eman zioten ari ere etzala ura baserrirako jaioa.

Serbitzen zuen lekuan nagusiarengandik lotsin-txaren batzuk artuta, urriko egoaizea baiño arroago zebillen. Oraindik neskatxa gaztea zala, eman zion azkazalak eta ezpaiñak pintatzeari. Etxean bizi zan denboraren erdia ortan zeraman.

—Ire adiñean ezpaiñak pintatzea ere etzegon ondo, bestela ere aurpegi legun ta guria edukitzen dezu ta. Zaartu dan batek ori egitea etzaidan gaizki iruditzen. Ezpaiñak berez gorriak ditun. Baiña azkazalak? Dirua ta denbora galtzeko oitura gaiztoak ditun oiek.

—*¿Pero, papá! Esto lo hacen todas las mujeres.*

—Ori ez den egia. Ire amak pintatzen al dizkin?

—*No, papá, porque es vieja.*

—Pintatzezkeroz, olakoak egin bear ditun. Ez i bezelako gazteak. Ezpaiñak eta eskuko azalak pinta-tuarekin ona agon i, amak bezela, ukuilluko ximau-rretan lana egiteko. Martxa ederra baserrirako.

—*Ahora las mujeres no trabajan en la cuadra. Están liberadas de esos sucios trabajos.*

—Orduan, ik ere, bestea bezela, anka egin bear digun baserritik. Eta guraso gizarajo auek nork jaso bear dizkin?

—*Yo no, papá. Seis han ido por delante, porque aquí hay olor a vaca. Esto no me gusta y yo me voy a la calle.*

—Andik datorren esnea pozik artzen den, bada.

—*Sí, papá. Pero no tiene ese olor nauseabundo de la cuadra.*

—Larros artean bizi nai uken orduan ik?

—*No tanto. Pero tampoco en una pocilga.*

—Astero illeari kolore berria ematen dion. Zer egiten den ortarako?

—*Teñirme. Pero eso es corriente entre las mujeres.*

—Ortarako badaukan dirua. Ez ditzen noski duan egingo.

—*Sí, papá. El arreglo del pelo y teñirme. Pero cobran poco.*

—Txorakeri oiek danak aurrerapentzat artzen ditun. Baiña, zoritxarrez, lana egitea ez, ordea.

—*Mis manos no están para el trabajo del caserío.*

—Ortik egiten degunetik pozik jaten den, bada.

—*Sí, papá. Soy hija tuya. Tengo derecho.*

—Etzekiñat, bada. Zalantza pranko bazebilkiñat.

—*Ésa es una injuria para mi madre.*

Olaxe beti. Gurasoak euskeraz eta alaba erderaz ariko ziran.

—Senargaia bai omen den. Ala esan zidaten.

—*Sí, papá.*

—Nongoa den, bada?

–*Cacereño. Un chico guapísimo.*

–Orixe bear geniñan orain. Ez digun adarra gaizki jotzen. Ori ekarri bear al digun etxera?

–*Eso ni pensar.*

–Emendik datorren diruaren eske maiz abillen, bada.

–*Eso, papá, es otra cosa.*

–Gurasoak ezkonberritan bezela bakarrik utzi bear al gaitun?

–*Eso no es culpa mía. Había mayores y no han querido.*

–Leku onean utzi gaitun. Ire itxaropenetan geunden gurasoak. Kazereño bat gure suia, alajainkia!

–*¿Qué más da ser vasco o cacereño?*

–Ez naun orren kontra. Oietan ere denetatik ditun: onak eta gaiztoak. Baiña guk etxean euskalduna nai diñagu.

–*Yo le quiero muchísimo.*

–Ez den emendik bi urtera orrela itzegingo.

–*También, papá. Él me quiere mucho.*

–Eta lanik bai al zeukan?

–*Todavía no. Pero lo está buscando.*

–Urrundik, intxaurrak amabi; bertara joan ta bi.

–*Hoy en día es difícil encontrar trabajo.*

–Eta euskeraz bai al zekin?

–*No, papá. Lleva aquí poco tiempo. Tampoco lo necesita.*

–Eta ezkontzeko kastuak nola ordaindu bear ditun?

–*Creo que usted nos ayudará.*

–Eta neskametzan irabazitako txanponak non ditun?

–*El novio y yo lo gastamos todo.*

–Or konpon. Irabazi guzia iretzat, etxetik jan ta jantzi, eta diru eske.

—*Usted ya nos ayudará. ¡Qué bueno es usted, papá!*

—Ez duenak ezin eman. Erdaldun bat senar artze-ko non daukan burua?

—*Es que hablar castellano me gusta.*

—Eta euskerari zer egin bear dion?

—*Hablar vasco es un atraso.*

—Zer dion? Guk bi izkuntza zekizkiñagu. Ik bakarra, ta ori gaizki, nik baiño okerrago itzegiten den eta. Ori al den atrasoa? Irea noski. Oa emendik! Baserriko neska erderaz? Buruko miña egiten didan.

Aitaren azkeneko itxaropenak uxatu ziran. Baze-kien, bai, lendik ere. Orduak bere burua txukuntzen igarotzen baizituen.

Amarekin ere eztabaidak maiz izaten zituen. Askotan. nazkatua, ala esaten zion, itxogiten aspertua:

—Baiña, neska! Zertan ari aiz barrun ortan orrenbeste denboran?

—*Peinándome, mamá.*

—Alajainkia! Orrenbeste denbora? Garestia izango den ori.

Noizbait aterako zan, illea sekula ez bezela orraztuarekin. Ezpaiñak eta azkazalak pinta-pinta egiñak.

—Baiña, neska! Orrela gorrituak nork erabiltzen dizkin?

—*En la calle así andan todas. ¿Verdad que estoy muy guapa?*

—Bai. Afrikako beltzak ibiltzen ditun orrela. Eta kaleko martxa artu bear al digun ik ere?

—*¿Yo quedarme en el caserío? No, mamá. Al papá se lo he dicho clarito.*

Alaxe, ura ere kalera ezkondu zan, gurasoak bakarrik utzita. Zazpi seme-alaba azi ta ezkonberritan bezela geratu ziran, al zuten arte beren baserri xaarrean jarraituko zutela ta.

BIARAMONEAN

Gurasoak alabak eskatua etzioten eman eta asarre bizian aldegin zuen baserritik bere senarraren ondora, aitaren aurka gaizki esaka. Baiña, ari emateko, aziendak saltzen ezin ariko ziran bada.

–*Adiós, papá y mamá. No volveré más por acá.*

–Sei egun baiño len ikusiko aunagu gure baratzak arakatzen.

–*No, papá. Llevo muy mal recuerdo de ustedes.*

Ezkondu eta eztaí ondorea igaro zutenean, gurasoak emandako diru pixarrak txautu zituzten. Aukeraturutako etxera etorri ziranean, berriz, etzeukaten ez diru eta zer janik, sua pizteko ere ezer gabe. Senarrak ala esan omen zion:

–*Chica, aquí no hay nada. Vete al caserío a ver si te dan algo.*

–*Salí enfadada.*

–*No seas tonta, lotsati –orrenbeste euskera bazekien–. Los padres nunca niegan nada.*

Saskitxoa artu ta txut-txutik igo omen zan baserrira, amarengana, eskari. Onek maitasunez artu zuen. Baita oparo eman ere, itz txar bat aurpegira bota gabe. Amak alabari nola ukatuko zion, bada? Gorakoan arin eta tente etorri bazan ere, beerakoan

zamatua, saskitxoaren aldera oker-oker egiña, jetxi omen zan.

Andik aurrera, noiznai baserrian zuten, eta beera-koan ikusten zuten auzoak ala omen zioten:

—Gaur ere zama ederra bazeramak orrek. Gura-soen bizkar bizi dituk.

Amarekin ondo konpontzen zan. Baiña aitak arrapatzeko bildurrak zebillen. Alare, bein topo egin zuten. Itzegin ere bai. Alperkeria eta maitasunik eza bota zion aurpegira.

—Egun on, Pilar.

—*Igualmente, papá.*

—Badirudizute gure bizkar bizi nai dezutela. Senar gandul orri esaion, nere aldetik, lan egiteko. Etxetik iges egin digutenak ezin mantendurik ezin ariko gaitun.

—*Sí, papá. Ya anda buscando trabajo, pero no lo encuentra.*

—Jakiña. Ik emendik daramaken artean bapo bizi-ko dek ura. Iturri au agortzean izango dituzute kontuak. Ik mantendu bearko den, gaur arte bezela. Eraman zan, eramana. Orren murrizak ez gaitun. Goseak dagoen bati bazekiñagu jan ematen eta beste edozer-tan laguntzen, daukagunetik luzatzen. Alaba bati no-la ukatuko zionagu? Agurtzeko ere ez unan biotzik izan baiña.

—*Es que, papá, me das miedo.*

—Ori aitzaki bat besterik ez den. Alare, beldur izatea ez naun arritzen, iseka eginta joan intzanen ta. Aizearekin ez den iñor ere mantentzen. Guk, al degun arte, emango diñagu zer eramana. Baiña alperkerian bizi dan azkonar ari bizkarra berotuko nioken. Egundo seme-alabaren batzuk izaten badituzute, benetan erruki aunat, Pilar.

—*Gracias, papá. Ya sabía yo que usted es bueno.*

—Bizimodua ateratzeko aiña izan ez ta alare ez-kondu!

–*Todavía no tiene trabajo.*

–Baserri ontan ez egonan, bada, i gaizki. Ez lanik, dirurik ain gutxi, txantxangorri batek bezela fameli bat aurrera ateratzea orren erreza dala uste al den? Igerriko dion anka gorriak asten diranean. Senarrarengandik bizkarreko ederrak artzeko agon oraindik. Bein baiño geiagotan aren igesi gure babe-sera etorri bearra agon.

Andik aurrera ere aitari igesi egiten zion alabak. Entzun nai etzituen egiak gordin esaten baizizkion. Baiña, adarra jotzeagatik, bertso txar auek kantatzen zizkion, zetorrela ikustean:

Etxe polit au goian utzita
gure alaba bakarra
kale aldera urrun zitzaigun,
angoa zuen senarra.
Guraso auek al dan bezela
biok moldatu bearra,
gaur egunean baserrietan
au da askoren negarra.

Bere burua ezin txukunduz
eman zigun naiko nazka,
*«Agur, queridos, voy a la calle,
aquí hay olor a vaca.
¡Qué aburrida vivía aquí,
no volveré más por acá».*
Kalerakoan eraman zitun
diru ta gauzak pillaka.

Azkazal eta ezpaiñak gorri,
eskuan saskitxo utsa,
lau egun pasa baiño lenago
etorri zaigu onuntza.
Guk egiñetik artuko zuen
saskitxoa bete gauza,
amari musu otz bat eman ta
kalera pinpilipausa.

Egun batean topatu nuen
atari ondoan bakar,
izan genduen modua ere
itz bi egiteko alkar.
«Kalean ez al dago berdurik?»
esan nion. Berak zakar
erantzun zidan: «*Sí, papá, pero
allí todo hay que pagar*».

Alabak askotan entzun zion ori aitari kantatzen,
baiña ajola gutxi ari.

–Zuk nai dezun aiña kanta zazu, baiña utzi neri
bear dedana eramaten.

Amarekin ondo konpontzen baizan.

Astean iru bat aldiz etorriko zan, tente-tente go-
rakoan, anka puntan gaiñean baletor bezela; ta, bee-
rakoan, saskitxoaren aldera okertua.

–Orain ere bazeramak bere zama gure pintarrak
–zioten auzoak.

Baiña aitari benetako naigabe ematen zion, bere
alaba artara ikusita. Aur egiteko aurrera xamartua
zegoela zirudien, eta aren ixtilluak bizimodua atera-
tzeko! Topo egin zuen batean, ala esan zion:

–Zerbait pentsatu bearra daukan, Pilar. Bestela
ere burua galduko den.

–*¿Qué quiere usted que haga, papá?*

–Esaion senarrari nik badedala arentzat lana. Ja-
kiña, arrobian ondo irabaziko din, langille billa zebi-
llen nagusia ta.

–*Gracias, papá. Algo necesitamos. Ya se lo diré.*

Bi ordu baiño len etxean zuten kazereñoa. Joxek
eraman zuen nagusiarengana eta begikoa izan zi-
tzaion. Gizon sendoa eta indartsu itxurakoa. Biak ge-
ratu ziran konforme.

Etixerakoan, atagiarrebaren etxean bazkaldu zuen.
Amak-eta zerbait bazekiten erderaz eta ala galdetu
zioten:

–Lanean artu al zaituzte?

–Bai. Lenengo itzetik.

–Eta gogozkoa al zaizu lantegi ori?

–Errezagoak izango dira, baiña leku gutxitan emen baiño sari ohea.

–Bazkaltzera joateko urruti xamar daukazu etxea. Arrobara ekarri ta otza jaten asten bazera, osasuna galduko dezu. Gogozkoa bazaizu beiñepein, gurekin batera bazkaldu zenezake. Bat geiago izanagatik, kastua berdintsu datorkigu.

–*Y ¿sin pagar?* –galdetu zien.

–Jakiña. Ez al zera, bada, gure suia?

Kazereño mazalari atsegiñez malkoak asi zitzaizkion. Alabak iruzurtua zeukan.

Andik aurrera gure ezkonberriak poztu ziran. Baiña kazereñoak naigabe bat zeraman biotzean: berra zalako, aitagiarrebak-eta erderaz itzegiten zutela. Etzien ezer esan, baiña arrobi lagun guziak euskaldun garbiak zituen. Atzekoz aurrera edo aurrekoz atzera, bereala jarri zan itzegiteko moduan.

–Nere andrea da tonta –esango zuen–: jakin ta ez nai itzezin.

Sei urterako, lagunekin euskeraz itzegiñez, bertako batek bezin garbi itzegiten zuen euskeraz gure *el guapísimo* kazereñoak; eta guzia bere aitagi ta amagiarreben maitasunagatik.

Baiña aien alabak etzien sekula alako atsegiñik eman. Arentzat etzan gaztelera besterik.

JOXE, GAIXO

Urteak orrela pasa zituzten. Baserrian senar-emazteak, biak bakarrik, zazpi seme-alaba eder azi ta gero. Danak aldegin zuten, baiña alare etzeukaten bixitatzaillle paltarik. Utsik igoko ziran, baiña zama-tuak jetxi: barazki, gerezi, udare, gaztain... Baita ba-barruna ta leikua edo baina ere. Nork eraman palta-rik etzeukaten. Laguntzera etortzeko, berriz, iñor ez. Nekea batzuentzat, saria besterentzat. Urtez aurrera zijoazen, eta moteldu xamarak eta biak nekepean.

Alako goiz batean, Joxe eziñean geratu zan eta etzan jeiki. Miñez zegoen gizarajoa. Alderdi ederra baserri artarako.

Alaba joan ezkerro, auzoko amasei bat urteko neskatxa batek eramaten zien eguneroko esnea ta bil-tzen zuten tratu pixarra, berearekin batera saltzeko. Ari eskatu zion Anttonik.

–Len ere ez dezu guregatik gutxi egiten. Baiña ain bakar ta eziñean geratu naiz, beste mesedetxo bat ere eskatuko nizuke –esan zion Anttonik malkotsu.

Neskak laster antz eman zion, malkoak asi zi-tzaizkionean, ezbear gaiztoren bat bazutela etxean.

–Nai dezuna agindu, Anttoni. Nik al badezaket, ez dizut ukatuko.

–Joxe, senarra, ondoezik geratu zait oatzean. Ez badatorkizu gaizki, gurean zer gertatzen dan sendagilleari abisatu bear diozu. Etxean bakarrik ura gaixo utzita, ezin joan ninteke errira.

–Bai, Anttoni, bai. Lasaitu zait. Pozik egingo det nik ori. Eta orain zer egin bear dezu etxean bakarrik?

–Al dedana, Joanita. Beiak jeizten badakit. Segan ere bai. Asto eder bat ere badaukat zamaketarako. Etxeko ta kanpoko lan guziak neretzat geratzen dira orain. Senarrak ez badu gaitz luze ta gaitzoren bat, konponduko naiz.

–Esango banie, norbait etorriko litzake gure etxetik laguntzera.

–Eskerrik asko zure borondate onagatik. Zer duen jakin arte utzi zaiogun. Zazpi seme-alaba azi ditugu. Batzuk, beiñepein, ia egunero emen ditugu, txut-txutik etorri ta okertuak joaten diranak. Baiña apustu egingo nuke oietako iñor ez dala guri laguntzera azaltzen, alaba gazteena izan ezik. Baiña orrek berekin darama naiko zama.

–Orduan ez daukazu iñoren itxaropenik?

–Bai. Gure etxean bazkaltzen duen suiak bere ordu askeetan alegiñak egiten ditu. Guk alperra zala uste genduen, baiña bestelakoa atera zaigu. Izen txarra omen daukate emen. Alare, suirik mazalena badegu au. Beste bat ere azalduko da noski orrelako: erraiña, bigarren semearen emaztea. Baiña guretakorik, estu-estu ezean, iñor ez. Oiek gure nekeen berri ez dute jakin nai.

Joanitik txintxo-txintxo bete zuen emandako agindua, eta bereala azaldu zan sendagillea. Gaztea ta ibilkaria baizan au. Ondo aztertu ondoren, berri kaskar eman au zion Anttoniri.

–Pleuresia dauka.

–Eta gaitz gaiztoa al da ori?

–Gaitz guziak dira txarrak, eta au ere ez da ona.

–Baiña sendatuko al da?

–Bere buruari begiraten badio, eta nere aginduak bete, bai. Au baiño gaiztoagoak badira. Zuk bakarrik ordea lan guziekin, nola iraungo dezu?

–Zergatik diozu ori?

–Ondo zaindu bearrekoa eta luzea dalako. Sei bat illebeteko atsedena bear du, eta leku beroa.

–Ondo dago. Sendatu arte, nik esanta ez da lanean asiko.

–Eta geiegiak zu ere gaixotzen bazaitu?

–Orduan Jainkoaren esku utzi bearko dena, eta biok ospitalera.

–Alabaren bat etorriko zaizu.

–Bai, noski. Urteak dira ezkondu zirala. Gazteena, berriz, ukuilluko bei usai zikin orrek nazkatuta joana da. Baiña azalduko diran itxaropenik ez det galdu.

Bere txartela egin zuen sendagilleak, gaixoari zer eman aginduz.

–Biar berriro etorriko naiz. Baiña bitartean oke-rrago dagoala iruditzen bazaizu, abisatu. Gaitz au, berritan arrapatu ezkeru, ondo sendatzen da. Zaartu ta gero, benetan txarra. Baiña au, zorionez, nabaitu orduko geratu da eta ortan asmatu egin du.

Sendagillea joan zan, baserriko aiton-amonen egoera tristea salatuz.

Gure Anttoni larri zebillen orduan. Etxeko ta ukuilluko lanak egin ta bere gizona ere zaindu egin bear, eta bakarrik eta iñoren itxaropenik gabe egun batzuetan beiñepein. Baiña txutik egoteko gauza zan arte etzuen atzerarik egingo.

Sendagilleak semearekin biali zion bear zuen sendagaia. Baiña geiagoren bearra zeukanean, berak jexterik ez.

Urrengo goizean auzoko neska esne ta tratu billa

azaldu zanean, benetako tristura eman zion Anttonik neskari, denetarako bakarrik arkitu zuenean.

–Egun on, Anttoni. Bazabiltzala?

–Baita zuri ere. Ibili bearko. Illebeta gaiztoak datozkit atzetik.

–Eta gizonak zer gaitz du?

–Pleuresia edo olako zerbait esan zidan sendagi-
lleak.

–Gaitz gaiztoren bat izango da noski ori?

–Zalantzarik gabe. Luzea beiñepein. Ondo en di-
joala ere, sei illebeteko gutxieneko. Eta zure lagun-
tzaren bearrean naiz berriro, ezin baininteko iñora
joan, senarra gaixo ta bakarrik utzita.

–Zuk esan zer nai dezun eta nik, al badet, egingo
dizut.

–Naiago nuke nere seme-alabak olako boronda-
tea baleukate.

–Ez ote zaizu iñor etorriko?

–Bai. Bisitatzera danak. Laguntzera ez dakit. Gi-
zonak beiñepein lanean dabilta. Emakumeak askea-
go geratuko dira. Baiña erraiña, Prudentxio bigarren
semearen andrea, jakiten duen orduko emen izango
det. Jatorra da ura. Famelia, berriz, azia dauka. Ka-
zereñoa ere bai. Beien bazkak bere esku uzteko esan
dit: egingo dituela berak. Guk uste ez genduen beze-
lakoa atera da ori.

–Ez da gutxi. Eta zu nola konponduko zera lan
oiek guziekin?

–Eziñean geratzen banaiz, norbait azalduko da,
batez ere erraiña. Alare, kazereñoak asko arintzen dit
lana. Neretzat gogorregia zan ori.

–Nik etxean kontatu nuen, eta gureak alegiñak
egiteko borondate ona daukate.

–Ez genduke iñoren laguntza bearrik, zor digute-
nak ulertuko balute.

–Bai. Amaika aldiz esaten du ori nere amak:

mundu ontan esker txarreko seme-alaba asko bizi dala, gurasoak bakarrik orrela uzteko.

Sendagillearen txartela eman zion eskura:

–Or dezu zer gaitz daukan eta zer bear duen.

–Jesus! Eskribitu duenak ere ez luke irakurriko au!

–Saltzailleak bai aguro asko. Enkargu ori egingo didazu noski.

–Bai, Anttoni, bai. Au ta geiago ere, beartzen bazera.

–Nere alaba orrelakoa balitz, ez nuke ortara ibili bearrik. Baserritarra izateaz lotsatuta aldegiña da ura. Alare, ezin nezake gaizki epaitu, iru aur txikirekin bakarrik geratzen da ta. Baiña bere gizonak egiten didan laguntza ikaragarria da neretzat. Illunabarrean egun guziko bazkak eginda utziko baidizkit.

Neskak txintxo egin zuen Anttonik eskatua. Bazkalondoan Joanitaren gurasoak ere an azaldu ziran, ikertxo bat egin ta laguntzeko beren buruak eskeñiz.

–Eutsi arnasari, Joxe –esan zion auzoko gizonak–, oraindik sasoikoa ago ta. Ez aiz ain zaarra ere.

–Eutsi? Ez dek beti erreza izaten ori. Bestela ez uke iñor ilko. Baiña oraindik etzeukat olako nekerik. Sendagilleak esan zidanez, beldurrik ain gutxi. Lana besterik ez ta emen egon bearra. Anttoni gaixoa, berriz, denetarako bakarra. Gaitz luzea omen dek. Ala esan zidaken, eta beroan egoteko gaiñera. Sei illebeste etzaizkidak berealakoan joango.

–Presaka ibilita beiñepein etzak astakeririk egin. Beartzen bazerate, gutakoren bat azalduko dek. Aski dezute Joanitarekin abisatzea. Guk etzeukagu orain etxean indarraren paltarik. Okerrago ibili izan gaituk. Ire emazteak amaika aurrera-atzera egin zizkin, gureak min artu zuenean. Neretzat ez dek auzoak elkarrekin ondo etortzea bezelakorik. Nere ezaguera guzian, bi baserri auek ala izan gaituk beti.

–Beartzean azaltzen dituk benetako lagunak. Ez

aukeran bizi geranean. Eskerrik asko. Len ere ire alabatxo orrek etziguk mesede gutxi egiten. Epe luzea eman zidatek eta balitekek zuentzaz beartzea. Orrelakoa dek gure bizimodua. Gaur aukeran bagabiltza, biar eziñean. Guk ezin badegu, Jainkoak ordainduko dizue. Negargarria ez bada ere au, eguzkia bezelako zazpi seme-alaba azi dizkiagu, eta ez gaitzik iñok ere jaso nai izan. Oien kaka ta pixak garbitzen nekatu ondoren, atzea eman zigutek. Ama gaixoak, berriz, zer supritu zuen oiek ezin azirik? Amaika gaubela egiña dek. Zenbat ordu goxo ta kutizi ez ditugu utzi, oiek ziralako? Orain geienak ondo bizi dituk eta ez ditek gutzaz oroitu nai. Alaba, gaiñera, ia egunero emen dek. Guk egiñetik arrapala zeramak. Alare, ezin nindekek orretzaz geiegi kejatu. Aur txikiarekin bakarrik geratzen baida. Bere senarrak, berriz, illunabarrero egun guziko bazkak ukulluan jartzen zizkiguk. Erdaldun oietan ere badituk esker oneko gizonak. Gazteenak Ameriketatik tarteka eskutitzen batzuk egiten zizkiguk, bere bizimoduko arrokeria kontatuz. Baiña diru gutxi biali. Besteak zer egingo ditek? Batzuk, beiñepein, noiz ilko geran zai, baserria saldu ta dirua jasotzeko. Orrenbestetatik ez ote zaigu billobatxoren bat bederenik etorriko, aiton-amonekin bizi nai duenik? Batzuk lanik gabe gaizki zebiltzak. Dirua eskatu ere egiten zigutek. Olakorik azalduko balitz, etxea bere lur ta guzi, bere tresnak eta aziendak ere, berarentzat izango ituke. Xox bat ere ez litekek artuko nere seme-alabak.

—Bai. Tristeia dek ori, Joxe. Gu ibili giñun orrela, eta ire gurasoak ere bai. Oroituko aiz noski.

—Arrazoi dek ortan. Orduan ez nin ulertzen. Gaur bai, ordea. Bazizkiteken, bai, beren kezkek. Alare, guk etxeko lanari jarraitzen genioken. Nere egoera tristeia dek. Baiña ni bapo negok. Etzeukat oiñazerik. Ezeren paltarik ain gutxi. Emazte gaixoak benetan kupitzen niok. Ez dik jan ta lorik egiten ere noski. Beti txutik zebilek. Begiak larritu zaizkiok atse-

denaren paltan. Guk bazekiagu sei bei mantentzen ez dala erreza. Ori ta bereak egingo dizkik, eta ordu beretik ez dik igaroko neregana azaldu gabe, nola nagoen edo zerbait bear detan galdetzeraz.

—Negarra dariok ugari, Joxe. Baiña ez arrazoirik gabe. Ezertan beartzen bazerate beiñepein, alabarekin abisatu. Eta badakik gure kontsejua zer dan: eutsi arnasari, Joxe.

Eta, agurtuz, joan ziran auzoko nekazari mazal aiek. Len berak, ezbearrak ukuitu zituenean, maite zuten laguntza. Orain orduko ongilleak zebiltzan eziñean. Ordaiña zor zieten, bada. Baiña ez orregatik bakarragatik. Kristau jatorrak ziralako ere bai.

Seme-alabak bisita egin zieten, baiña laguntza ukatu. Berak lanez beteak zeudela. Agian, alako iganderen batean... Ori jarri zuten aitzaki.

Joxe zorrotza zan eta ziriak sartzen zekiena. Bertsolari aide pixar bat zuena gaiñera. Aren egi garrazak ez entzutearren, edo beldurrak noski, ez ote ziran azaltzen.

Jakiten zuten ondo zijoala, baiña oraindik etziola sendagilleak uzten. Zergatik etziran bein betiko Erruki Etxera joaten, baserria seme-alaben eskuetan utzita? Bere etekiña laster aterako ziotela: erostunik bazan beiñepein, saldu ta kito. Senide artean zabalduko zuten balio zuena. Zertarako lagundu, ertereerik etzeukan baserri bati eusteko?

Ori zan semeen iritzia, eta aitak bazekien ori. Baiña beraren naia ez, ordea, olakoa izaki. Ainbeste urtez gurasoetatik semeetara zetorkien ondarea arrotzen mende erori baiño len salbatu nai zuen. Ez ote zan ortarako billobatxo bat azalduko?

Anttonik uste bezela, Joxe gaixo zegoela ikasi zuen erraiñak. Baiña illebeta pare baterako bera sortu zan baserrikoei laguntzera joana zan. Ango bere egin bearrak bukatu orduko, azaldu ere bai onera. Asko arindu zuen onek Anttoniren nekea.

Alabak ere egiten zizkion bere bisitak. Esker gaiztokoa ez bazan beiñepein, beartua zegoen. Bai bere ezerezetik lagundu ere.

–¿*Qué tal está usted, papá?* –galdetuko zion, oian zegoen lekura joan ta musu bat emanik. Eta benetakoa gaiñera, merezi zuen ta. Senarrari lana billatu ziolako, zorionekoak ziran orain.

–Ementxe gauden, sendagilleak jeikitzeke noiz aginduko digun zai.

–*Tiene usted buen aspecto, papá.*

–Ez den batere gezurrik esaten. Neronek igertzen zionat gero ta lasaiago nagoela. Apetitu ohea zeukanat gaiñera.

–*Me alegro mucho, porque todavía usted es joven.*

–Bai; irurogei ta bost urte. Ori al den gazte izatea?

–*Hoy en día sí, papá.*

–Eta bitartean ez al digun esku bat bederen luzatuko? Ama gaixoa txutik eziñean zebillen.

–*No lo necesita. Hace poco ha subido Martina.*

–Eskerrik asko, alaba, eman didanen berri on orrengatik. Baneukanen orren itxaropena. Ire senarrak ere asko laguntzen zigun.

–*Gracias, papá. Cacereño, pero mi marido es fino.*

–Bai orixe. Ez niñan olakoa aterako zanik uste.

Baiña «motela dek auen maitasuna» –zion berekiko aitak.

Alare, len esan bezela, emaztearen eziñak asko arindu ziran, berak uste zuen erraiña azaldu zitzaionean.

–Ama –ala deitzen zion–, ni arratsaldeko ordubietatik zortzirak arte emen izango nauzu, eta ordu oietan ar zazu atsedan. Bestela, gaixotu egingo zerate. Gaitz onek ez baitu zaindu bear aundirik.

Gero, txuxenean, aitarengana joan zan, benetan agurtuz:

–Egun on, aita. Etzera gaizki bizi.

–Baita zuri ere, alaba. Erdiz erdi asmatu dezu: primeran bizi naiz.

–Barkatu, aita, lenago ez etorria. Nere guraso xaarren etxera joana nintzan aiei laguntzera, ama gaixo daukat eta.

–Ongi etorria, alaba. Ez daukat zer barkaturik. Zere burua da zuretzat lenengo.

–Amari esan diot arratsaldero ni emen izango naizela. Eta orduan atsedeen artzeko. Gaitz luzea izaten da au.

–Eskerrik asko, alaba. Eta Prudentxiok ontzat artzen al du?

–Arek ez dauka zer esanik. Errain gaztea etxean dago beñepein. Gaizkitxo bizi da ura.

Seme-alaben zaputzak min eman zien gurasoei. Alare, etziran laguntza gabe geratu. Eskerrak sui eta erraiñari.

JOSETXO

Josetxo gure aiton-amonen billoba zan. Beren besoetakoa zuten gaiñera. Auen bigarren semea, Prudentxio, beraren aita; eta gaixoari laguntzen zion emakumea, ama. Bost seme-alabetatik gazteena, onek benetan maite zituen bere aitajaun eta amandrea.

Arrituta zegoen Joxe, gure gaixoa, kalera jeixten zan guzietan, zorionsu eta «aitona!» deika etortzen zitzaiola mutil gazte eder ura, eta orain, gaixo zegoen ontan, etzala bisitatzera azaltzen. Beste bere anai-arrebak kopet illunak ziran, eta maltzur xamarrak. Ura ez. Alaia, argia ta -jakiña, batez ere billoba ta bere besoetakoa zuelako- benetan maitea. Anttoni amonak berdin. Ura etortzean, etzuten beiñere eskupekorik gabe utziko.

«Zer gertatzen ote zitzaion orain ari?», zion aitonak. Gaixo ote zegoen? Nola etzan etortzen bisitaxoren bat egitera bederenik? Edo dirua ematen ziotelako egiten ote zituen alako maitasun-itxurak? Beraren ama egunero etxean zuten. Zergatik ez semea, Josetxo, onekin batera? Edo lana billatu ote zuen? Amari galdetzea, berriz, etzan ausartzen. Kezketan zegoen, bada, beraren aitajauna.

Josetxo etzegoen, ordea, aztuta. Goizero begiratzten omen zuen aien baserrira. Kea tximinian gora eta mendi aldera zijoala ikustean lasaitzen zan.

—Oraindik bizi dituk nere aiton-amonak.

Iru anai ta bi alaba ziran aitonaren bigarren semearengandik zetozenak. Josetxok ez bestiak beren bizimoduaren martxa artua zeukaten. Ezkonduak eta beren lantegien jabe. Au, berriz, lanik gabe eta bere bizimoduz nazkatua. Emezortzi urteko mutil gazte, alai, jostaria ta jatorra oraindik. Baiña arraixku txarrean. Edozer aldetara irauli zitekena, nondik zetorkion laguntza ori ikusi arte.

Amari ere beldur ematen zion okertuko ote zan, lagun biurriren batzuekin nastuta. Ortarako adin txarrean baizegoen.

Mutilla bera, berriz, oso kezkatu bizi zan. Bai-baizekien bestek egiñetik jaten ari zala, eta etxera ezkonduakoto bikote berriak begiratu txarrak egiten zizkiola.

Amari dirua eskatzen zion. Ez noski asko. Onek etzion beñere ukatzen.

Alako bazkalondo batean amari galdetu zion ea arratsaldero nora joaten zan.

—Ire aiton-amonei laguntzera. Aitona gaixo zego. Amona, berriz, lan guziekin bakarrik, bera ere gaixo geratzeko arraixku gorrian. Zergatik ez aiz bisitaxoren bat egitera joaten? Badakit asko maite autela. Beren naigabe guzien artean poztuko ituke benetan.

—Bai. Oso onak dira biak neretzat. Ikusten nauten guzietan, beti zerbait ematen didate. Arritzen nintzan, aspaldian etziran errian agertzen ta. Baiña ez nekien aitona gaixo zegoenik, zuk ere gaur arte ez didazu esan ta.

—Ez dek etxe ontan erreza, motell, ire aita aserretzeko beldurrak ibili nauk eta. Nik baserrira ezkondu nai nin, bere etorkizunari jarraitzeko. Baiña ire aitak

etzin entzun nai ere ori, berdin gurasoak iltzean baserria beretzat geratuko zala ta. Jakiña, saldu ta dirua artzeko. Baiña aitonak garbi esan zioken etxerako geratzen zanarentzat izango zala oso-osorik baserria. Geroztik zapuztua bizi dek bere gurasoekin. Neri ere begiratu txarra egiten zidak, laguntzera joaten naizelako. Orregatik egon nauk ixilik. Izan ere, etxe ontan gurasorik aipatzen al diagu? Oroitzen geranean ere –onuzkero i ere oartuko intzan–, ire aitak ez dik beste erantzunik: «Emendik aurrera aien babesia Erruki Etxea da».

–Bai. Egia diozu. Nik ez det, bada, berdin pentsatzen, ama. Emen ez daukat lanik. Billatuko banu ere, betirako segurantzirik gabea. An aukera neukake, eta gabe geratzeko arraixkurik ez. An ere, lan egiten duenak ez dauka ezin bizirik. Nere kopeteko izerdiz jango nuke gaiñera. Patrikarako dirurik ez litzaidake paltako. Lotsa gorrian joaten naiz zuri ta aitari diru eskatzera.

–Ik, Josetxo, ortan ez daukak errurik. Lanik ez badaukak, zer egingo diagu?

–Ni, ez bisitatzera bakarrik; aiekin bizitzera ere pozik joango nintzake.

–Motell, sekula erabaki on bat atsegiñik aitortu badiok amari, oraintxe bai benetakoa. Eutsiok biozkada eder orri. Bete itzak ire asmoak. Berdin bazekit beso zabalik artuko autela.

–Lotsagarri bizi naiz emen. Beste guziak lanean, eta ni aiek egiña jaten. Askotan, lapurretan asteko zirikaldiak etortzen zaizkit. Nere burua mantentzeko aña egingo nuke. Aien nekeak arindu ere bai.

–Eta baserrian nekazari jarduteko gogorik bai al daukak?

–Ez nintzake bestela joango. Len ere esan dizut lantegi segurua dala angoa. Tximini oiek ke jario ikusi orduko, ala diot: «Lotuak bizi dirala, baiña or zegok pakea».

–Paurriketan lanean ari diranak baiño askeagoak dituk aiek. An etzegok nagusirik gaiñetik begira.

–Aitak naiko al du, ordea? Ez baidu beiñere aien alde itzegiten.

–Arrazoi dek, motell. Ondo jaiio ta ezitako seme batentzat gaizki zegok, baiña ik utziok ari pakean. Kontrakorik baldin bada ere, uraxe bakarra izango dek ezetzean itxiko litzakena. Bein baiño geiagotan, ea gurasoei ez al diegun geiago lagundu bear galde-tzen diodanean, aren erantzunak –garbi aitortuko dit– nazka eta kezka biak batera ematen zizkidak. Alde batera, aren maitasunik eza, errukirik gabea, zurkeri ta diruzalekeri geiegia. Bestetik, seme-alabok beartuak gaudek, ebanjelioak erakusten digunez, gurasoak ezin dutenean laguntzera. Guri ori egingo baligute, norako geundekek gu laster? «Utziezu pakean –esango zidak–. Aiek dijoazela Erruki Etxera, baserria guretzat utzirik, naiko lana egin dute ta». «Eta baserriari zer egin bear diozu?». «Saldu eta diru puska bat artuko genduke, emen martxa jarri ta gero ezin joango gera nekazaritzara». «Zer uste dezu: gure kulpaz Erruki Etxera joan ta baserria guretzat utziko dutela? Amets oiek uztea al dituzu betiko». Bein baiño geiagotan eraso ziot aitari orrela, baiña beti biok bakarrik geundenean. Beste erantzun nazkagarri bat ere ematen zidak: «Gazteenak artu zuen geiena. Ari tokatzen zaio gurasoak jasotzea».

–Nere osaba orduan. Non bizi da ori?

–Zenbat osaba dituzuten ere ez dizuegu oraindik erakutsi. Injeniero karrera ikasia gurasoen bizkar, buru azkarrekoa omen zala-ta, Ameriketa alde ortara joana dek. Ez dit uste anai-arreba eta gurasoekin artu-eman askorik duenik.

–Amaika barau egin bearko zuten aren zorrak ordaintzeko, eta gero erabat utzi ta alde.

–Bai. Ori beste sei seme-alaba aziz gaiñera, eta

dena baserriari kenduta. Orduan i ara joango intzake bizitzera?

–Kupirarik gabe ta pozik.

–Aitaren aurrean ire anai-arrebak eta nik lagun-duko diagu.

–Baserri auetan ez dago ezin bizirik. Beti txukun ikusten ditut nik oiek, eta sakelean dirua.

–Ori dek. Diru paltan ez beiñepein, eta etxe ori ik salbatuko dek.

–Baiña aitag naiko al du?

–Len esan dit: ezezkoan ura bakarrik geratuko dek. Beste gaiñerakoak alde aterako gaituk. Ori ziur bazekit.

–Orduan, gaur bazkaltzerakoan itzegingo diogu aitari.

–Ez, Josetxo. Lenengo, aiton-amonen berri jakin bear diagu, aiek baietzan ote dauden. Ortan ez dit dudarik egiten. Ondo konponduko zeratela ere bazekit nik. Gaur arratsaldean zirikatuko dit aitona. Gero, bisitatxo bat egiteko aitzakitan, joan eta garbi-garbi ire asmoak agertu akizkio. Ikusiko dek nolako poza emango dieken. Neri ere bai. Aiton-amonen baserri ortan martxa bikaiña zegok jarria. Jarraitzaillea palta.

ILLOBAREN BIOZKADA

Arratsalde artan amak zirikatu zuen aitona, eta aldez aurretik eman zion billobaren berri.

Urrengo egunean, bakar-bakarrik, an azaldu zan Josetxo. Bere amona gaixoa, exur ta larru biurtua, asto kargan arkitu zuen, kazereñoa orduak sartzen ari omen zala-ta, beientzako bazka eramaten. Ikusi zue-neko, biotza oiñetaraiño erori zitzaion Josetxori: bakarrik, zaartua, ainbesteko neketan alako famelia azi ta gero erabat utziak. Bere aitak etzuen biotzik. Urrutira ikusi zuen amonak eta oiu egin zion:

–Josetxo, nere billoba maite ori, ongi etorria!

–Ongi arkitua zu ere, amona.

–Ezin inteken ordu obean azaldu. Ator, ator mesedez onera, ire laguntzaren bearrean arkitzen nauk eta. Asto egoskor au ez baita geldirik egoten.

–Antz eman dizut, bai, eziñean zabiltzala.

–Aitona bisitatzera etorriko intzan noski.

–Baita amona ere.

–Eskerrik asko. Ondo pentsatua zegok.

–Ura gaixo dagoela esan didate ta.

–Bai aspaldi ontan. Sendatu dek oraintxe.

–Gaixo zegoela jakin banu, lenagotik azalduko

nintzan. Banituen nere zalantzak. Aspaldi ontan etziñuztedan ikusten eta nere kezkek banerabilzkien. Atzo esan zidan amak: «Ire aitona gaixo zegok; eta bisitatzera joango baintza, poztuko ituke». Ortaraxe etorri naiz.

–Bai, Josetxo. I bezelako gazte batek poza ta itxaropena ekartzen dizkik baserri auetara. Bestela, laster galdutzat utzi bearko diagu. Gurekin batera baziak au ere, sendi bikaiñak azitako etxea. Gurea ere ez uan nolanaikoa, etzigutek asko eskertu baiña. Gaur jendeak lapurretan ibili naiago dik, baserrian nekazaritzan lana egin baiño. Azkeneko urte auetan aldaketa ederra egin dik munduak.

Bazkak egiten lagundu zion; eta, etxera joan ziranean, eskeiñi zion eskertsu amonak:

–Zerbait artuko dek noski?

–Aitonarekin itzezin nai nuke lenengo. Zuk abisa iozu Josetxo billoba berarekin itzegiteko asmoan etorri dala.

Alako maitasunezko begiratu gozo bat egin zion amonak, bart bere senarrari alako zerbait entzun bazi-zion. «Onek berri onen bat bazekarkiguk» pentsatu zuen berekiko. Bai-baizekien lanik gabe eta kaleko bizimodu ustel artan aspertua eta nazkatua zegoela. Amak biali zuela zion gaiñera. Txuxenean gelara joan ta ala esan zion senarrari:

–Gure billoba Josetxo zai daukazu, zurekin itzezin nai duela ta. Artzeko moduan izango zera noski?

–Bai, Anttoni, bai. Sendatua nagoela badakizute, egun batzuetarako baituta banaukazu ere. Beti prest nago gure billoba maite orren bisita artzeko. Baita azkenetan banengo ere. Datorrela aurrera.

Atea zabaldu eta sartu zan, eta amona bere lanetara joan zan. Etzion oni esan aitonarekin zertaz itzezin nai zuen, baiña bazeukan alako biozkada bat.

«Nik uste dedana bada, ai zer atsegiña gure etxera-ko!», zion berekiko amonak.

–Arratsalde on, aitona! Zer moduz?

Bere billobaren abotsa entzun zuen orduko, poz-tu zan Joxe, bere aitona.

–Baita iri ere, Josetxo. Mutil bikaiña ago. Ez dek nik bezelako gaitzik pasa. Amaika ziztako eman zizkidatek. Odolkia bezela zulatua utzi niotek. Urbil zak aulki ori eta eseri adi emen.

–Jaunari eskerrak, nere osasunez ezin ninteke ke-jatu. Zu argal xamarra zaude, baiña ez daukazu itxu-ra txarrik.

–Ez, gaitzak utzi niok eta. Lan pixar bat egin nai badet, kanpora ateratzeko eskubidea eman zidak sendagilleak. Baiña emazteak baitua naukak. «Lasai –esaten zidak–. Ez presakegi ibili. Bigarren erorial-dia askoz okerragoa izango litzaizuke». «Bai; ori ala da, baiña sendagilleak badaki zer egiten duen» esan nioken. «Ez dizut ori ukatuko. Ari jakinduriak era-kutsiko dio. Neri, ordea, maitasunak» erantzuten zi-dak. Olaxe naukatek. Baiña sendatua nagok eta laster asiko nauk noski lanean aspaldiko partez. Etzeukat gogoaren paltarik.

–Eta ez al dezu beste iñoren bisitarik eduki?

–Ire amarena egunero. Etziok Anttoniri nolanaiko lasaitasuna ematen. Eta alabarena. Izan ere, beti emen zebillek. Eta beraren senar kazereñoak egiten zizkiok illunabarrean beien bazkak Anttoniri. Nik uste ez bezelako gizona atera dek ori. Al duen bezela euskeraz itzegiten ziguk. Arrobiko lagun euskaldu-nen artean ikasten ari dek. Iru anka gorri txiki ere badizkitek. Ondo bizi dituk. Gure seme-alabak baka-rrik utzi gaitzitek. Baiña al degun arte ezin dutenei laguntzeko prest gaudek, batez ere gure senide arte-koei. Guretzat oiek dituk lenengo.

–Oien txikitari ere bost pazientzi paseak izango zerate, bada?

–Bai. Ez dit ezetzik esango. Sendi batean, ondo konpontzen badira, ordu goxoak badizkik; bai neketu ta garratz askoak ere. Guk, beiñepein, Jaunaren aurrerako gure eginkizuna bete diagu. Degun guzia lagun urkoen alde eman baidegu. Arek deitu arte zai, lasai zeukagu biotza. Eziña etorri arte on egiten jardungo diagu, gu baiño beartsuagoak bazebiltzak bat baiño geiago ta.

–Ai, aitona! Denak orrela pentsatuko bagendu, zeruan biziko giñake. Baiña zure iritzia ez dute askok ontzat artuko. Berekoikeri asko dago mundu ontan.

–Gure seme-alaben artean ederki nabaitzen diagu ori. Gu, zaarrok, orrela oitu gaituk, eta onuzkero ez diagu aldaketarik egingo. I ere oraindik lanik gabe ibiliko aiz? Tristea dek, bada, orixe ere.

–Bai; ta billatzeko itxaropenik ez. Ni bezelako atorrante asko dabil erri alde ortan. Anai-arreba guziak badaukate. Neretzat lotsagarria, berriz, besteren bizkar bizi bearra, eta nere adin ontan gaiñera.

–Denontzat tristea dek ori. Baiña ire adiñeko barentzat beldurgarria gaiñera, arraixku aundikoa, patrikarako ere diru pixar bat ez edukitzea.

–Nere larruan ederki ikasten ari naiz ori. Zuk diozun bezela, lagun artera joaterik ez, dirurik ez daukadalako. Lotsa-lotsa egiña joaten naiz amari eskatzera. Ez dit beiñere ukatzen. Itz txar bat esan ere ez. Baiña nere emezortzi urterentzat lotsagarria da ori, aitona.

–Bejondeikela, Josetxo, gizon eldu baten iritziak dauzkak eta. Oraindik ire biotz ori zuzena zegok. Sentimentu onak dauzkak. Baiña benetako arraixkuan bizi aizela ezin ukatu.

Josetxok igertzen zion poliki-poliki aitonak beren elkar-izketa nora zeraman, eta bera aurreratu baiño len bere eskeintza egingo ziola.

–Alegiñak egiten ditut, baiña ez nuke lapurretan asi nai.

–Ez aiokela, motell, zirikaldi gaizto orri lekurik eman. Ezin dekala lanik billatu? Baserri ontan baze-gok, bada, iretzako eta etxe ontan bizi geran denontzako aiña lan. Jakiña, nekegarri xamarra eta lotua noski. Batez ere ukuillua daukagunontzat. Baiña mantenu ona, patrikarako diru paltarik ez, osasungarria... Beeko kalean kea ta kutsadura txarretik ezin ertenik dabiltzan artean, emen beti aize garbia zeukagu. Eta, bitartean, ainbeste maite auten aiton-amonak jasoko ituke, gure besoetakoa augu ta.

–Eskerrik asko, aitona. Orixe jakin nai nuen. Ezin ausaturik nenbillen. Ortaraxe etorria naiz: zuek bisitatuz, eskeintza ori egitera, nere amak bultzata, baldin zuekin konpontzen banaiz.

–Zer diok? Emen geratzeko asmoan?

–Bai. Kale gorria baiño naiago det nik baserrian. Badakit, zuk len esan bezela, lotua geratzen dala bat. Nekegarria ere bai. Baiña lantoki segurua da emengo. Lanerako, berriz, paurrika oietan baiño askatua-goa, obea. Noiz ta nola lana egin iñork etzaitu bear-tuko. Uelga gaiztorik ez da onera irixten. Gaurko aurrerapenekin, berriz, asko erreztu da baserriko nekea. Osasuna izan ezkerero, ezin bizirik ez dago emen. Kale gorrian, osasuna galdu ezkerero, ango bizimodua ere larri xamarra izango da. Zuek nai badezute beiñe-pein, zuen seme bat banintz bezela, ni emen geratuko nintzake.

–Motell, ia isekatzat artzen dit «nai badezute beiñe-pein» esatea ere. Gazte baten bear gorria zeukagu. Gu seme-alabak Erruki Etxera biali nai gaitzitek. Aoa bete ortzekin utzi bear dizkiagu, joaten bagera gure borondatez, baiña baserri au esku onetan utzi ta gero. Ez gaituk, bada, ametsetan ariko?

–Ez, aitona. Urteak dira esnatu nintzala. Bearra maisu ona da.

–Joan dan aspaldian nere belarriak ez ditek olako berririk entzun. Alare, baneukaken ire itxaropena. Ik asko maite dituk aiton-amonak.

–Arrazoi asko dauzkat erabaki au artzeko: zuek aztuak zaudete, zaartu ta bakarrik, zuen eziña, mendiarri diodan maitasuna, nere lanik eza... Oiek denak sorta batean lotu ezkerok, zer besterik egin bear nuen? Nere aitak eta osabak ez badute artu nai, zergatik ez semeak?

–Gu joanta ere baserriari jarraitzeko asmoan etorriko intzan noski?

–Bai, aitona. Ni ez naiz zuek iruzurtzera azaldu. Len ere esan dizut mendia maite detala, eta ortarako baserrian bizitzea bezelakorik ez dago. Gauza naizen arte etxe au biziko da. Gerorako ere, al badet, moduak egingo ditut baserri ontatik luzaroan kea igo dedin mendira. Beeko lana baliteke arin ta errezagoa izatea, baiña nik au maite det.

–Bejondeikela milla bider! Aitak bai al zekik?

–Ez. Amak esanta etorri naiz. Ura ta anai-arrebak ere alde ditut. Nik, berriz, asmo au aspaldian buruan nerabilkien. Baiña ez nintzan ausartzen nere iritzia agertzera, aitak gaizki artuko zuen beldurrak. Baiña amak igerri egin zidan.

AITONAREN BEDEINKAPENA

Aitonak, sendatua eta berri orren pozera zoriontsu, ala oi u egin zuen:

–Dena bukatua zegok! I artuko augu gure oiñordeko. Nere seme-alaba bakar batek ere baserri ontatik ez dik xentimorik jasoko. Iretzat izango dituk etxea, bere barruti ta guzi. Azienda eta bertako lantresnak ere bai. Oiei tokatzen zitzairen baserri au artu ta gu jasotzea. Ez badute nai, or konpon! Nerea dek, bai, ta nik nai detanari utziko ziot. Jainkoak biaili ditzala baserri auetara i bezelako billoba asko. Bestela, gureak egin dik.

–Nere aitaren joera ez det ulertzen –zion Josetxok.

–Nik bai, ordea. Gu oraindik sasoikoak geundeken. Bolara batean beiñepein, gure mende bizi bear; eta arroegia dek gurasoen mendean bizitzeko, eta saltzeko asmoak bazituen, berriz. Bera aurretik joango zan beldurra.

–Eragozpenak jartzen asiko da noski.

–Ez orren kezkarik eduki, etxe au iretzat geratuko dek eta. Ez ote daukat nik nerearekin nai detana egiteko eskubiderik? Berri zoragarria dek au guretzat. Etzekit non nagoen ere, ez ote dan ametsa izan-

go beldurrak. Asabetatik asi ta gizaldiz gizaldi zetorkigun ondarea arrotzen mende utzi bearra pekatu astuna uan neretzat, eta erteerarik ezin billatu nioken. Orra denak garbitu ta konpondu. Laster etortzeko asmoak izango dituk noski?

–Aitaren gora-beerak bukatzean, nere traste pixarrekin emen nauzute; eta dudarik gabe ama ere egunik geienetan emen izango dala, erraiñak darama etxeko martxarik geiena ta.

–Isaakek Jakob bezela bedeinkatuko iñuket pozik. Baiña ez dek orren bearrik. Jainkoak egingo au.

Aitonaren atsegiñak etzeukan neurririk. Josetxok asmatu zuan urrats ura emana.

–Denak beren ustez baserriak utzi ta erreztasunera dijoazen ontan, ire berdingabeko biozkada ez dek neretzat ulerterreza. Ez dit gaiñera egundo bear bezela eskertuko. Erteerarik billatzen ez nionari ik zabaldu diok bidea. Sinista nazak: kalera dijoazen guraso zaarrentzat beren bizitzako naigaberik audiene-tako bat badek ori, baiña eziñaren aurrean aldegin bearra. Amonari kontatu al diok?

–Ez. Zure berri jakin gabe ez nuen aurreratu nai.

–Ondo pentsatu ta egiña. Ortan ere, ez aizela edozein garbi erakusten didak. Esaiok mesedez. Sekula iñori maitasunezko musurik eman badio, iretzat izango dek ori. Baita merienda gozoren bat ondoren.

Dena jakin nai zuen oietakoa zan Anttoni ere, eta zeleta egin zion ate atzetik. Bearrezkoena entzun zuenean, aldegin zuen andik zoriontsu, billobari merienda on bat emateko asmoan. Baiña ezjakiña egin zuen. Amonaren malezia. Ezin, bada, gerorako utzi.

Aitonari aitortu ta au zeruan utzirik gelatik erten zan ordurako, denaren berri zekien amona sukaldean arkitu zuen Josetxok.

–Zer moduz iruditu zaizu aitona?

–Sendatua dagoela dirudi.

–Bai, bai. Itxura ona dauka. Zerbait gizendu ere

egin da. Baiña jipoi aundia artu du. Alare sendatua dago. Kanpora atera ta oztu ez dedin, egun batzuetako atsedena etzaio gaizki etorriko. Ibili litekela esan dio sendagilleak. Baiña ez dedilla presakegi asi. Ainbeste egun igaro ta gero, aste baten gora-beera ez baita ezer.

–Baitua omen daukazula kontatu dit.

–Ez dio kalterik egingo. Orduan luze ta zabal itzegin dezute?

–Bai, amona. Nere asmoak garbi-garbi agertu dizkiot beiñepein.

–Eta nolako asmoak diran oiek jakin al nezake?

Bazekien, baiña billobaren ezpaiñetatik entzun nai.

–Etxe ontan geratzeko asmoa detala, berak nai badu beiñepein. Ori esan diot. «Eta betiko?» galdetu dit. Nere asmoak ala dirala. Zuen besoetakoa naizen ezker, zuen semeetako batek bezela, nik jasoko ditut aiton-amonak, eta artuko det baserri au nere gain, baldin uzten badidazute. Nik al detan arte, etxe onek bizirik iraungo du. Aurreragoko martxa ere eman nai nioke nere ondorengoekin. Osabaren bati tokatzen omen zitziola. Baiña oiek ez badute nai, zergatik nik ez artu?

–Eta aitonak zer erantzun dizu?

–Aspaldi ontan bere belarriak ez omen dutela berri oberik entzun.

Bere lanerako tresnak lurrean utzi ta besarkada bat eman zion bere besoetako illobari, esanez:

–Orain zurekin sartu da itxaropena etxe ontara.

Pozaren pozez, merienda eder bat jarri zion amonak: bi urdaiazpiko xerra bi arrautzekin, eta sagardo aukera edateko. Merienda eder aren aurrean arrituta geratu zan Josetxo.

–Onek errian pezeta-mordo bat balio du.

–Guk ere, saltzen jarri ezker, zerbait kobratuko

genduke. Baiña emen txerriak eta oilloak etxekotik mantentzen ditugu. Nere lana da au. Ikusten al dituzu sapaetik zintzilik bi urdai azpiko eder? Au bukatzerako, beste txerri bat ari da azitzen. Oilloak entzungo dituzu kakareka ari dirala. Baserritik kalera dijoazen geienak ez dijoaz goseak edo dirurik irabazten ez dutelako. Kaleko lillurak daramazki. Gero, etorri nai ta ere, eziña. Nik badakit baserriari iseka egiñez joandakoren batzuk damaturik bizi dirala.

—Ero galantak oiek, ara jexterako lantegi onen bat billatua ez badaukate beiñepein. Garraztasun orren berri nere larruan ikasi det.

—Len ere esan dizut: beren ustez erreztasunera dijoaz. Askatasuna maite omen dute, baiña baserrian baiño lotuago geratuko dira kalean, lau ormen erdian baituak, ezin kabiturik, bizitza batetik bestera tabika mee batek berezten duela; sukalde batean itzegiten dana bestetik ederki entzuten dala. Kalera ateratzen bagera, berriz, aurrera, atzera ta zearretara, denetara begira erne joan bearra daukagu. Alderdi guzietan bai-baidabilta laukoan berebil ta motor oiek, usaia, zikiña ta kutsadura besterik zabaltzen ez digutela. Arratsean, lotarako ere, burrundara ta iskanbilla ugari, askotan lorik ezin arturik. Igualeko pake atsegin ta askatasuna dago baserrian. Bei-usaia omen dagoela ukuilluetan. Baliteke. Ez diot iñori ukatuko. Bai kalean ere gasolina ta ke erremin orrena, eztarriak erremintzen dituen.

—Zure iritzikoa naiz ni ere. Kalean lotuago nabil. Lanik ez, besteren bizkar bizi eta patrikarako dirurik ez, gaiñera.

—Ederki pentsatzen dezu, Josetxo. Zure adiñean gutxi dira olakoak. Zure aitarekin konpontzen zereanean, astoz ekarriko ditugu zure trasteak.

—Txango batean aixa noski.

—Altzari edo mueblerik ez. Ortatik etxean badaukagu aukera.

–Baserria ta mendia dira neretzat maiteenak.

–Biak artuko dituzu, bada, emen. Jakiña, neke-tsua da noski baserriko bizimodua. Baiña paketsua, eta ez esaten duten bezin lotua ere.

–Ikusten det nekazarien lana. Nik ezin ote neza-ke beste orrenbeste egin? Egunsentian gora begiratzean ormigoizko kajako leiotik, eta baserrietako kea mendiruntz dijoala ikustean, ain atsegiña iruditzen zait baserriko bizitza... Kaleko bizimoduan baiño naiago det nik. Gaurko Mesias berri auek ezetz badiote ere, emen nai dezun orduan asiko zera lanean. Geratu ere bai. Nai dezun martxan jardungo dezu. Ez daukazu iñor gaiñetik begira. Non dago kaleko askatasun ori?

Elkar-izketa gozoan merienda bukatu zuenean:

–Eskerrik asko, amona. Laster arte. Ez nuen aspaldian olako merendarik egin.

–Zuk beiñepein baserri ontara poza ta zoriona ekarriko dituzu.

–Gaur edo biar etorriko naiz, aitarekin konpontzean.

Eta zoriontsu joan zan etxera. Bete zuen aspaldian buruan zerabilkiena, eta etzegoen urrats ori emana damutua.

AITON-AMONEN AMETSAK

Amona, atsegin-malkoak zerizkiola, atzetik begira egon zitzaion.

–Badituk oraindik iltzen ari diran baserrietaz pentsatzen dutenak.

Aitonak ezin zuen berri on ura bere baitan gorde, naita. Anttoni Josetxok zikindutako ontziak garbitzen ari zala sartu zan sukaldera.

–Arratsalde on, Anttoni.

–Baita zuri ere, Joxe. Gela-txuloan aspertu al zera?

–Sei illebeta luzeetan nor ez? Berri on au ausnartzzen zu ere...

–Egia diozu. Mutil argia degu billoba gazte ori.

–Urte gutxi ditu, baiña egiña dago. Arekin itze gin detan ezkeru, ezin ninteke oatzean geratu.

–Bai. Berri pozgarria da ori. Baiña, Joxe, osasunarekin kontuz.

–Sendatua nago. Ain dago gaiñera eguraldi gozoa.

–Badakizu, berri ori osoa izateko, zer litzaigukun bearrezkoa?

–Zuk jakingo dezu. Agian biok batera etorriko giñake.

–Joanitarekin ezkondu.

–Emakumeen kontuak al dira oiek?

–Eta gaizki pentsatua al dago?

–Ez orixe, Anttoni. Guri laguntzen digun neska-txa orrek asko balio du. Mutillaren iritzikoa gaiñera. Baserri gora-beeretan ikasia eta benetako mendizalea.

–Gaur gutxi bezela. Kale gorri orrek lillura ikaragarria dauka nonbait gazte jendearentzat. Len bezela auzoak ondo konpontzen bagera, gazte auek bat egingo gaituzte. Baiña alare, Anttoni, bi txori egan baiño, bat eskuan obe degu. Zuk diozun ori oraindik ikusteko dago. Au gurekin daukagu. Onen asmoak badakigu nolakoak diran. Ori zan bearrezkoena. Onen ondorenak aguro azalduko zaizkigu.

–Bai; gure gazteak egunero bi aldiz elkar ikusiko dute.

–Arrazoi dezu. Ura neskatxa dotorea da, ta eraskorra gaiñera. Josetxo zer esanik ez, eta arazo askotan iritzi berekoak. Ez ote zaio neskari etxe ontara sartzeko gogorik egingo?

–Oraindik gazteak dira, ta eguneroko tratuan, beti elkarrekin, ibilian-ibilian maiteminduko dirala uste det nik.

–Ez dakit, bada, neska askotan Pelipe izeneko mutil moztaka batekin ikusi oi det eta.

–Ori txarra. Baiña utzi zaiogun denborari. Txori bat ustez eskuan daukagu beiñepein, ta zorion osoa izateko baliteke beste ori ere berez etortzea.

–Ustez seguru diozu?

–Berak nai badu beiñepein, eragozpenak nork jarri lezaizkioke?

—Oraindik gauzak bere lekuan jartzen asko ibili bearra dago. Mutilla benetan asten bada, enbarazu guziak alperrik izango dira.

—Zure seme Prudentxio egoskorra da gero.

—Gurasoen aurka asiko ote da, bada?

—Badakit aren asmoak benetan biurriak dirala. Beste bere seme-alabenak ez dira noski ala izango. Aiek ere ortan zer ikusi aundia daukate. Bera ondo dagoen ontan, ajola dio gure semeari bere guraso ta baserriarengatik. Beti izan da olakoa.

—Emendik iru illebetera beteko omen ditu Jose-txok emezortzi urte. Andik aurrera ez al dago bere gurasoen gonapetik aterea?

—Gaurko legeetan bai, eta ez daude nere iritzian gaizki jarriak. Gu baiño urte batzuk lenago esnatzen dira gaurko gazteak, onerako edo txarrerako ez dakit baiña. Gizarte berri onek aldaketa ikaragarria dakarki nere iritzian. Bere aitak amor eman bearko du, ama ta anai-arrebak ere alde dauzka ta. Lanik ezin billaturik dabil gaiñera; eta, berak dionez, lotsatua.

—Eta baserrian etxea ta lana ez al ditu arkituko? Ez al dauka eskubide osoa?

—Eragozpenak baiño geiago dauzka erreztasunak, eta bere asmoak babesteko egitazko arrazoiak ere bai. Au onera etorriagatik ez baidaukate ezin bizirik. Arindu egiten zaie etxeko zama.

—Oraindik urte luzeetan baserri ontako tximinitik gora kea igoko dan itxaropenik ez det galdu. Ori mutillaren naian dago. Jakiña, osasun ta beste ustegabe-koak zer ikusi aundia daukate. Lanerako bizi-poza ekarri digu. Ori irixtean, andik aurrera Jainkoak nai duenean eraman nazala. Bere bataioan esan nizuna ez al da gertatu, Anttoni?

—Bai, Joxe. Oraindik oroitzen naiz orixe esan zenidala.

–Etzagun berri au garrastu, gerokoa ez dago gure mende ta.

Aiton-amonak seguru zeuden. Etziran baserria saldu ta Erruki Etxera joango. Baiña emakume on baten bearrean ere arkitzen ziran.

EGOSKORKERIA

Josetxok bere ama, anai ta koiñatari eman zien aitonaren baietz sutsuaren berri; aiton-amonak biak esna ametsetan utzita etorri zala, eta lenbailen aiekin bizitzera joatea nai lutekela.

–Aitak ontzat artzen duen galdetzeko esan dit, arazo ori pake-pakean erabakitzeko. Oraindik ez dotala arekin itzegin, baiña ama ta beste etxeko denak nerekin daudela erantzun diot. «Orduan dena bukatua zegok» esan dit. «Amaren baietzak indar aundia zeukak; eta beste etxekoak arekin badaude, oraindik aundiagoa. Lanik gabe arkitzea ez txikiagoa. Emertzortzi urte gaiñean dituk». Lenbailen ni ara joatekotan, ortan geratu gera.

Amak ala erantzun zion:

–Gaur bazkaritan itzegingo diagu aitarekin.

–Nik eskatu bear al diot? –galdetu zuen semeak.

–Ori utzi nere esku. Ik ixil-ixilik egotea aski dek. Guk egingo diagu dena. Zerbait galdetzen bazaik, ari erantzun. Besterik ez.

Bazkal ordua etorri zanean, eta denak maiaren ingurura bildu, ama, zekien bezela, goxo-goxo asi zan izketan.

–Aizu, Prudentxio: berri on bat eman nai nizuke etxeko denon izenean.

–Bejondeizula! Ori bear degu, ori. Txarrez asper-tuak gaude, gogortuak, lepotik gora egiñak. Erri on-tan ez da txarra besterik entzuten: egazkin bat erori ta onenbeste il dirala; gudazale batzuen erasoan ez dakit zenbat erori dirala; guda zibillen bat sortuko dan beldurra; gure taller ortan uelga egingo ote du-ten; gazteak lanik ezin billatu dutela; lapurretan da-biltzala, ezin biziak eraginda... Iñorekin asten bazera izketan, zure berriketa ortan bukatuko da.

Arazo ortan asi ezkeru, etzuen etenik gure Pru-dentxiok. Bukatu zuenan, amak, aitaren itzari elduz, ala erantzun zion:

–Orixe da, bada, nik ere esan nai dizudana: gure Josetxok, txarrera jotzeko arraixkuan zebillenak, lan-tegi seguru bat arkitu duela.

–Bejondeikela, seme! Gaurko egunean ez dek erreza, degunok ere galtzeko beldurrak gabiltzak eta. Non billatu dek, bada?

–Baiña zure baimena bear du, joango bada.

–Semeak lana billatu ta an asi nai badu, aitak zer ikusi dauka?

–Bere aiton-amonen baserrira joan nai du. An bi-zi ta lan egin.

–Zer egin bear du onek an?

–Beren seme-alabak egin ez dutena: aiek jaso ta an lan egin, au beren besoetakoa dutelako.

–Eta iltzen diranean?

–Bera geratuko da oiñordeko, eta eutsiko dio bi-zirik baserriari.

–Eta aiek nai al dute?

–Aitonak, beiñepein, aspaldian entzun duen be-rririk atsegiñena ori dala esan omen dio, eta onen itxaropenetan bizi zala. Amonak, berriz, besarkada

maitekor bat eman ondoren, oraindik egin duen meriendarik onena jarri diola.

–Eta ori dena nere baimenik gabe?

–Ori eskatzen dizugu, bada, orain.

–Bai; nere gordean nai dezutena egin da gero.

–Emen famelian itzegin baiño len, aiton-amonen iritzia jakin nai genduen. Guk baietza emanagatik an ukatzen baziguten, lotsagarri geratuko giñan. Ango berri jakin ta semearena ere bai, orain degu ortaz mintzatzeko ordurik egokiena.

–Aolku ori nork eman dio?

–Nik, semeak bere asmoen berri eman didanean. Ezetzean ez al zera itxiko!

–Ni naiz fameliko buru, eta aurrea artu didazute.

–Arestian esan ez dezu, semeak lana billatu bada, an asteko zertarako bear duen zure baimena?

–Au besterik da. Nere lekua artu dezute.

–Prudentxio, oso gaizki mintzo zera. Iñork ez di zu zure jabetza ori ukatuko. Zurekin itzegin baiño len, zuzen jokatzekeroz, angos berri jakin gabe ezin giñezken asi. Len ere esan dizut, eta orregatik orain zuri baimena eskatzen dizugu.

–Ez det emango eta ez da joango.

–Ortarako zer arrazoi daukazu?

–Ni naiz baserri ortako oiñordekoa; eta nik, nai detan semeari utziko diot. Ori da guzia. Entzuten al dezute?

–Orduan bereizketak egiten dituzu semeetan ere. Besteak lana badute eta ez daukate baserrira joateko gogorik. Ori dago lanik gabe, eta orrek nai du. Aiton-amonak besoetakoa dute. Ortara bagoaz, Ameriketara joan zan zaarren ura da orain maiorazkoa; gaztetan aldegin zuen ura.

–Ura dena utzi ta joan zan.

–Eta zu ez? Arek etzuen ezertxo ere utzi.

–Nik ez det oraindik nere eskubiderik galdu.

–Ezta arek ere. Baiña aiton-amonak bai orratik. Eta aitonak kentzen badizu ain aipatutako zure oiñordekotza ori? Zuk nai dezunari emateko, etxea zurea al da? Ondo zaindu al dituzu gurasoak? Baserria oso-osorik aitonarena da, eta berak nai duenari emango dio –erantzun zion etxera ezkonduetako semerik zaarrenak–. Ez etorri onera arrokeri oiekin.

–Ez dek nerea, baiña izango dek.

–Aitonak ori esan badu, baserria berea duen ezkerero, nai duenari emango dio. Aren esku dago zeñi utzi. Eroak ere badaki orrenbeste.

–Zuek ere amarekin bat egin al dezute?

–Gu ez goaz iñoren aurka edo alde. Erteera orixe bakarra ikusten det gure baserriaren etorkizunerako: Josetxok artu duena. Zuk, zure arrazoietan, ni naizela oiñordeko esan naiko zenduen. Nik, berriz, emen martxa artua daukat, eta etzait ara joateko gogorik egiten. Zure ta gure osaba-izeben lotsakizuna ere bada ori. Josetxok ordainduko du neri ere nazka ematen didana: alako famelia azi duten aiton-amonak bakarrik, zaartuak, gaixo, utziak ikustea, eta alako baserria galtzeko zorian. Arrazoi aukeratuak denak Josetxoren alde daude: batez ere, etxea oso-osorik aitonarena dala eta bera jasotzen duenari emateko eskubide osoa daukala. Ni itxu-itxuan onen alde nago, eta ez iñoren aurka. Zure ustez ni banaiz lenengo, pozik uzten diot nere oiñordekotza –esan zuen zaarrenak.

–Guretzat ere ez da gaizki etorriko. Emendik aurrera noiznai joan giñezke aiton-amonak bisitatzera. Orain arte ez nintzan ausartzen. Aiek an bakarrik utziak ikustea lotsagarria baizan ori. Ez ditut ezagutzen ere. Gu ezkondu giñanean, etziran azaldu –zion erraiñak.

–Nik alegiñak egingo ditut, bada, galerazteko.

–Munduan dan astakeririk aundiena egingo dezu. Bai seta gaiztoak artua zaudela! Berdin zure alegiñak alperrikakoak izango dira ta lotsagarri geratuko

zera gaiñera –erantzun zion emazteak–. Emendik bi illebete ta erdira beteko ditu emezortzi urte. Andik aurrera bere buruaren jabe da. Emen lanik ez dauka; an arkituko du. Gurasook bizitzeko ez daukagu onen bearrik. Aiton-amonak bai. Etxean zu ez besteak alde gaude. Nork galerazi bear dio berak nai duen lan-tegira joaten? Edo lapurretaren bat egin ta espetxean ikusi naiago al dezu?

–Nik galeraziko diot, bada!

Bazkaria bukatu zanean, aldegin zuen asarre Prudentxiok. Aitaren egoskorkeriak naigabetu zituen denak. Baiña Josetxo etzegoen atzera egitekotan. Arek bizitzeko eskubidea bazeukan. Orduan amak erabaki zorrotza artu zuen, etxeko guziekin bat egin ta gero:

–Aizak, Josetxo: artu itzik maleta txiki ortan bearezko dituken jantziak eta oa lenbailen aiton-amonen baserrira.

–Aitak ekarri eraziko nau, ordea.

–Ez, motell. Milla aldiz pentsatuko dik, gora igo baiña len. Aitari gogor egiten ez dek asiko. Errespeto ikaragarria zioke ari. Anai-arreba guziak atsegiñez artzen ditek ire erabakia; eta, bein an lanean asi ezkerro, eta bein emezortzi urte bete ta ango martxa artu, alperrik izango dituk beraren egoskorkeriak.

Etxekoak agurtu, maleta txiki ura bizkarrean, baserrian azaldu zan gure gaztea.

–Ikusten al dezu nor datorren aldapak gora?
–esan zion Anttonik Joxeri, ikusi zueneko.

–Dirudienez, ez du atzera egiteko asmorik.

–Nola? Bai al ator? –galdetu zioten biak zoriontsu.

–Bai. Amak biali nau.

–Asarretuta edo?

–Nerekin ez beñere, berak kontseju au eman dit eta.

–Zuen etxean etzerate ondo konpondu orduan?

–Aitak ez duela ni etortzerik nai. Berak izenpetu bear duela bere oiñordekoa nai duenari eman, eta ez aitonak.

–Alajainkia! Orrek jotzen ziguk Astigarraga aldetik! Ez nauk batere arritzen. Beti izan dek olako eroska, arro aire puska bat berekin daramana. Ezkondu zanean, zer etzigun eskatu? Baiña besteak aiña eraman zin arek ere. Irugarren semea dek emen lanik geiena egiña. Etxea gurea dek. Biok bakarrik utzita, gurasoei laguntzera beartua ez balego bezela, baserriko bizitzari muzin egin zioken. Saldu nai likek baserria, dirua artzeko. Orain arrazoi oiekin al dator? Oiñordekotza nik emango diot, ez arek. Baiña ez ditexoxik jasoko nere seme-alabak. Ikusiko diagu noraiño irixten dan seme ori. Anttoni, moldatu iozu gela eta gurekin gera dedilla.

Maleta amonak eraman zuen, eta Josetxo aitona-rekin geratu zan, kontentu gaiñera. Ura zan berari tokatzen zitzaion lekua.

Amonak gela antolatu zion, eta urte aietan gazterik sartu etzan baserrira, billobak zekarren alaitasun ta etxearen etorkizuna.

–Azio gaiztoren bat egingo digu.

–Gurasoei ere bai? Ez det uste. Auzia agian?

–Zuk len esan dezun bezela, ero aize puska bat badu gure semeak.

–Emaztea ta seme-alabak aurka dauzkalako ote da?

–Egoskorra da ura; ta, eman ezkerero, itza jaten ez dakiena.

–Ez alperrik! Gure aurka ezin lezake. Billoba ere, berak ez badu nai, ez du emendik eramango. Bi illebeteren buruan beteko baiditu emezortzi urte. Bai bere buruaren jabe egin ere. Anttoni, ez orren beldurrik eduki. Auzi egiten badigu ere, berak galduko du. Ortik letorkiguken okerrena, asarre geratuko ote litzaiguken. Ez dago beste arraixkurik.

–Len ere ez al dago ala?

Elkar-izketa au baserrian zan, eta dena entzun zuen Josetxok.

Aita, berriz, Prudentxio, berandu etorri zan, bere anai-arrebekin itzegin ta gero. Baiña sumindua. Denak ao batez ala zioten:

–Bejondeiola Josetxori! Norbaitek maite bear ziotuen gure gurasoak diran eta oien aiton-amonak!

–Non da Josetxo? –galdetu zuen.

–Zer egin bear diozu? –galdetu zion amak.

–Ara joaten galerazi.

–Berandu zabiltza.

–Zergatik ori?

–Arratsalde erdi aldera joana dalako.

–Bere borondatez?

–Orain arte egin duen guzi-guzia, arek bere borondatez egin du, iñork beartu gabe. Josetxok biotz gozoa dauka, eta aiton-amonak orrela bakarrik utziak ikusita oraindik geiago xamurtu zaio. Poztu gaitezen, Prudentxio. Arraixku txarrean zegoen, eta baserriak salbatu du. Arek dena bere borondatez egin du. Etziotuen bestela atzera-aurrera oiek erabiliko.

–Eta zuk joaten utzi diozu?

–Nik nola galeraziko diot, aiton-amonak ikustera joan nai duen billoba bati? Joango al dan eskatu dit. Nai badu, baietz esan diot.

–Nor zera zu nere berri gabe ori egiteko?

–Zure emaztea eta beraren ama. Baditut nik ere nere eskubideak. Ez naiz iñoren neskamea. Asarre zabiltza eta bide ortatik sartu nai gaituzu etxekoak ere. Ama batek ezin baleza bere semea aiton-amonak bisitatzerantz biala, nolako eskubideak dauzkat nik fameli ontan?

Amari eraso ziola ikusi zutenean, semea ta erraiña onen alde atera ziran.

–Eta betiko joan al da?

–Ori berak ikusiko du. Baiña aren asmoak ala dira noski.

–Orain nerekin egon baiño len joatea ez dezute ondo egin.

–Egoskorra zera orratik, Prudentxio. An geratu nai badu, ura ekarri eraziko duenik ez da sortu. Lana nai zuen; an badauka. Guk etxeko martxa artua daukagu. Ez degu aren bearrik. Laster emezortzi urte ditu. Nori egiten dio orrek kalte? Ez diezu guraso gizarajoei nolanaiko gorrotoa.

–Ondo dago. Nere eskubideak zapaldu dituzute, bai, ta orain nik jakingo det zer erabaki artu.

Ixil-ixilik geratu ziran, aitaren egoskorkeriaz saminduak.

AUZITARA

Urrengo egunean, epaillearengana joan ta auzitara deitu zuen aitak bere seme Josetxo, oraindik emezortzi urte bete baiño len etxetik iges egin zuela salatuz.

–Nora joan dan badakizu? –galdetu zion epailleak.

–Aiton-amonen etxera.

–Eta etxean ondo konpontzen al ziñaten arekin?

–Gure sendian denak tratu ona artzen dute.

–Aiton-amonen etxe ori urruti al dago?

–Erri ontako Arkiri baserria.

–Aren bearrik bai al zenduten etxean?

–Nik ez daukat semerik saltzeko.

–Ori ez da nere galderari erantzutea. Zuek babes-teko bearrezkoa al zenduten ura?

–Ez. Ori ez. Besteak ezkonduak dira, eta zaarrena etxera.

–Eta joan dan baserrian?

–Beraren aiton-amonak bakarrik bizi dira.

–Zure gurasoak noski?

–Bai, epaille jauna.

–Utziak dauden aiton-amonak zaintzera dijoan seme bati nola egiten diozu auzi?

–Oraindik ez ditu emezortzi urte, eta nere baime-nik gabe joan da.

–Ondo dago.

Aitak bere izen-abizenak eman zituen, semeare-nak ere bai, eta joan zan. Baiña auzia galdua zeukala etsita. Epailleak ere antz eman zion gorroto pixar bat bazegoela guraso aren biotzean.

Andik illebete inguru, Josetxo deitu zuen. Oiek ez baidira presaka ibiltzēn. Aitonaren aolku batzuk entzun ondoren, bakarrik joan zan. Joxek bereala emazteari kontatu zion guzia.

–Beraren ama ta anai-arreben iritziaren aurka, auzitara deitu du Josetxo epailleak. Ea nolako berriak ekartzen dizkigun. Baliteke biar neroni ere auzitegira joatea.

–Prudentxiok ez digu nolanaiko gorrotoa –zion Anttonik.

–Etxe au nai luke orrek, saldu ta diru puska bat artzeko. Auzi au neri egiten dit; ez semeari. Orregatik, Josetxo baiña beartuagoa nago ni juezaren aurrean seme kaxkaillu orri bear duen erantzuna emateko.

–Baiña Josetxo etorriarekin zer galtzen du orrek?

–Nere ustez, semea egingo litzakela etxe onen jabe, eta buruan darabilzkien amets zur oiek aizeak cramango lituzkela.

Mutillak, sarrerako txeetasunak bete ondoren, garbi kontatu zituen egiak, epaillearen galderei txuxen erantzunez.

–Zergatik iges egin dek etxetik?

–Nik, jauna, ez det igesik egin. Lanik ez daukat. Aiton-amonak, berriz, bakarrik eta utziak daude. An seguru daukat lana. Emezortzi urte laster beteko di-

tut. Aiton-amonak jaso ta baserriari etorkizuna nik emango diot. Ori al da iges egitea?

Epaillea arrituta geratu zan gazteak emandako erantzunekin.

–Orregatik auzi egiten al dik aitak?

–Nik ez dakidan tarteko ezkuturen bat ez badago, bai, jauna.

–Ondo zegok. Berriro laster deituko zaituztet. Baiña i aitonarekin etorri. Ura gabe etzegok auzi au ondo erabakitzerik.

Andik egun batzuetara irurak deitu zituen. Prudentxio, bere aita an ikusi zuenean, sumindu zan.

–Auzi ontara nork deitu zaitu?

–Epailleak berberak. Orko gora-beerak Josetxok kontatu zizkionean, nere berri gabe ezin zitekela zuzen erabaki auzi au. Zer uste dek: auek orren ezjakiñak dirala-edo? Urrats txarra eman dek ori, Prudentxio.

–Nere semearekin ez ote daukat nik zer ikusirik?

–Baita beste geiagok ere bazeukatek or zer ikusia. Baiña ajola gutxi iri. Ik baserria nai uke saltzeko. Auzi au aitari egiten diok; ez semeari.

–Ez da ori egia. Nik semea deitu nuen.

–Orrekin batera baita ni ere. Nor izan baintzan, ez genin orrela ibili bearrik. Semearen erantzunak entzun zituenean, onen bitartez ni deitu nioken. Etorri nintzanean, ala esan zidaken: «Zu gabe ez dago auzi au txuxen erabakitzerik; eta, semea deitzean, atoz zu ere arekin batera». Arazo au bein betiko bukatzeko asmoan etorria nauk. Nere interesak babes-teko ez ote daukat eskubiderik?

Irurak batera deitu zituen. Baiña Prudentxio asarre sartu zan, eta lenengo galdera oni egin zion:

–Auzi au egiteko zer dezu semearen aurka?

–Oraindik emezortzi urte bete baiño len etxetik iges egin digula.

–Eta ez daukazu zaintzeko beste seme-alabarik?

–Bai, jauna.

Ondoren Josetxori:

–Zuk zenbat urte dauzkazu?

–Lau egun palta ditut emezortzi betetzeko.

–Eta urteak bete baiño len zergatik iges egin zenuen?

–Nik, jauna, ez det iges egin. Denak bazekiten nere berri. Aitak ere bai. Ezin nuen lanik billatu. Baserrian baneukala ta anai-arreba ta beste senide guziak zirikatzen niñuten joateko. Aita bakarra zan ezezkoa. Azkenean, amak biali niñuen aiton-amonen etxera, nituen urteekin eta lanik gabe kalean arraixku txarrean nagoela ta. Nik, bitartean, nere aitak eta osaba-izebak erabat utziak zeuzkaten aiton-amonak jasoko ditut, eta baserriari bizi berria emango diot.

–Zenbat urte dituzu?

–Len ere esan dizut: datorren igandean beteko ditut emezortzi.

–Etxekoak bazekiten orduan joatekoa ziñala.

–Ez famelikoak bakarrak. Baita senide arteko guziak ere.

–Orduan, lanik gabe arkitzen ziñan?

–Bai, jauna. Orain baserrian billatu det.

Ondoren aitonari. Baiña tartean sartu zan Prudentxio:

–Nik semeari egin diot auzi; ez aitari. Orrek zertan etorririk bai al zeukan?

–Neronek deitu ta azaldua da, eta zu zaude ixilik, oni nere galderak egin arte. Orduan, nai dezun ainbeste itzegin.

Ondoren Joxeri:

–Zuk zer ikusi daukazu gazte onekin?

–Ezer gutxi. Billoba detala, eta nere besoetakoa gaiñera.

–Orduan zergatik, semeari ordez, billobari eman nai diozu oiñordekotza?

–Josetxok garbi esan du nere seme-alaba guziak bakarrik utzi nautela. Gaiñera, maiorazkoa ez da au. Zaarrena Ameriketara joana da. Beste seme-alaba guziak ere kalera iges egin ziguten, gurasoak bakarrik utzita gure baserrian. Oien asmoak badakit nola-koak diran: gu eziñera irixtean Erruki Etxera eramanda goxo-goxo, baserria saldu ta artzen dutena denen artean zabaltzekoa. Etxe ori, berriz, goitik asi ta beeraiño, oso-osorik nere da. Nere esku dago ditudan interesekin nai detana egitea. Nori emango dizkiot: utzi gaituztenei edo artu nai gaituztenei? Gazte onek jasotzen gaitu. Interes guziak, baserriarekin batera, onentzat izango dira, bada. Seme-alabak ez dute xentimorik artuko, ez dute merezi ta. Denak beren doteak jasoak dituzte.

–Fiskalak Josetxo ta bere aldekoiei arrazoi ematen die. Lenengo, urteak bete dituelako; ondoren, lanik etzeukalako; eta, batez ere, zor zioten seme-alabak utzitako aiton-amonak jasota, baserriko martxa artzen duelako.

–Fislakak oiei arrazoi ematen badie, zer egin bear det nik? –zion asarre aitak.

–Auzia galdu dezun ezkerro, emen ordain bearrak pagatu.

–Utzi ditzagun, Prudentxio, txorakeri auek. Ez aiz orregatik len agon baiño geiago asarretuko. Orko ordain bearrak ez dituk izugarriak izango. Nik ere nere interesak babesteko eskubidea bazeukat, eta atzeraka ibili geran bi fameli auei ire seme onek batuko gaitzik.

–Baiña, aita, nik ez dizut zuri auzirik egin. Nere berri gabe semeak aldegitak itxutu ninduen.

–Orduan, Prudentxio, ekatzak esku ori, eta tabernara goazen. Nere kontura egin dezagun amaiketako eder bat.

Semea, itxuraz beiñepein, aurreragi sartua damutua zegoen noski, eta aitak jarri zion igesbidea ontzat artu zuen eta ala erantzun zion:

–Ez dezadala egundo arrazoi txarragorik entzun. Ori izango da, bai, onena noski.

Aspaldiko partez, aitona, semea ta billoba, iru gizaldi bildu ziran mai batean, amaiketako eder bat egitera. Orra gaizki asia ondo bukatu.

Aiton-billobak zoriontsu joan ziran baserrira. Auzia irabazi zuten, galtzaillearekin asarretu gabe. Mirari bat zirudien.

Andik aurrera, denen artu-emanak ugaritu ziran, eta Josetxoren anai-arrebak ere askotan ikusiko zenituen baserrian.

UR TANTOAK ARIAN-ARIAN ARRIA TXULATU

Anttoni, amona, zai zegoen, urduri xamar, bere gizona-ta noiz etorriko, nolako berriak zekarzkiten jakiteko. Noizbait biak aldapak gora zetoze alai zituenean, atsegiñez alako asperen luze bat egin zuen. Igerri baizion alai zetoze.

–Auzia galdua izateko, kontentuegi zetozek.

Baiña naigabe pixar bat bazeukan berekin: alare, galtzaillea etxekoa izango zala.

Iritxi ziranean, emaztearen begietan irakurri zuen gizonak andrearen urduritasuna eta zer gertatu ote zan jakin naia.

–Bai, Anttoni, bai. Zure begietako galderan laster antz eman diot etzaudela lasai. Ez, bada, arritu, gure arazoa guk uste baiño obeto bukatu zaigu ta. Josetxo eskubide osoekin emen geratuko da. Etxe ontan guk bestek ez dauka zer ikusirik, epai ori eman du juezak eta. Prudentxiok berak auzitara deitu ta galdu baidu, orko ordain bearrak ere bere bizkar joango zaizkio.

–Bejondeizuela! Ez nuen besterik jakin nai. Baiña gure semea, len asarre bazegoen, orain gozoa geratuko zan.

–Guk uste baiña obeto bukatu dala esan ez ditzut? Ori da auzi onen beste alderdi zoragarria. Ez da olakorik gertatu. Auzia bukatu ondoren, amaiketako batera konbidatu ditut aita-semeak. Baita benetan ontzat artu ere Prudentxiok. Aren berri gabe egin zalako asarretu omen zan. Ala esan digu. Baiña ori bere sendiko joera zan; ez gurea. Aien aurkako ertecera gaizto ori garbitzeko aitzakia. Auzitara jotzeko arrazoiaren izpirik ez baizuen. Iru gizaldik egin degu, bada, amaiketakoa. Agurtzerakoan, semeari eskua emanaz, ala esan dio, nere ustez benetan gaiñera: «Zorionekoa izan adilla. Josetxo, ire fameli berrian, ala esan baliteke. Gure jatorri ontan kate bat eten bazan ere, ik berriro lotu gaituk. Emendik aurrera igoko gaituk gu ere, ama agurtuz, urterik gozoenak igarotako kabira. Eta ik badakik, seme, non uzten dituken ire gurasoak. Gu gora bezela, i ere azaldu adi beera». Oiek dira beraren itzak. Orain goraka datorren gizaldi berriak batu gaitu, bada. Baserria galdu ta mendiak beera ginjoazen zaarrak –zion zoriontsu aitonak.

–Ea beste seme-alabak ere auek bezela asten zaizkigun –zion Anttonik.

Ori zan aiton-amonen negarra: etzutela beren seme-alabekin artu-emanik.

–Ori ez dakigu. Baiña gu, auzia irabaziz gaiñera, ondo konpondu gera. Semearen asmoak beiñepein ez dira txarrak; eta, gutxiena uste degunean, igo liteke zuri ta baserri xaarrari bisitatxo bat egitera.

Pakea ta alaitasuna sartu ziran il zori zegoen baserri xaarrera.

Bere aitonaren ondoan, bereala ikasi zuen Josetxok nekazaritzako martxa, eta bertako bizimodura jarri ere bai. Aitonaren nekeak arindu zituen. Baiña amona oraindik zamatua geratzen zan. Ari ere bere urteetako nekea arintzeko gogoa bazeukan; baiña ezin asmatu nola. Beretzat etxera lagun bat ekarrita.

Etzan, ordea, uste bezin erreza izango. Baiña al zuen aiñean laguntzen alegiñak egingo zituen.

Etzan amona esne ta tratu pixarrak saltzera joaten. Auzoko neskaxa batek egiten zituen lan oiek. Aren bitartez, bi auzoak artu-eman beroak zeuzkaten. Gero, tarteka joango zan Anttoni. Au da, Joanitaren amarengana. An konponduko ziran eztabaida aundirik gabe. Andik aurrera, bi emakumeak, Joanita neskaren izena ta Josetxorena, maiz erabiliko zituzten aotan.

Ordura arte bezela, goizero, bada, aitona aterako zan, zeramaten tratu pixarra ta marmita esnearekin, neskaxa orren bidera. Au egunero, bere zaldi-karroxarekin jexten baizan kalera. Onek artuko zizkion.

Gorakoan, berriz, ia amabiak alde ortan etorriko zan karrikatik etxera. Aitona zai bazegoen, eskura emango zizkion. Au an ez bazegoen, berriz, itxogin bearrean, zugaitz adaska batetik eta zaku batean zintzilik utziko zituen, txakurrak lardaskatu etzezaten, leku jakiñean beti, eta aurrera joango zan.

Iru urte aietan martxa ori zeramaten. Amonarentzat lan geiegia omen zala egunero kalera jetxi bearra ta gero etxeko lanak. Aitona gaixo geratu zanean, amonak egiten zuen lan ori ere, eta sekulako jipoia artu. Eskerrak Josetxori, orain lasaituko zan.

Baserri askotan orrela konpontzen dira gaur ere. Auzoak naigabez ikusten zuten etxe artako martxa, aurki baserri eder arek betiko atea itxi bearko zituen beldurrak.

Goiz batean, bada, amonaren orde, sei bat illebete aietan ura ateratzen baizan, Josetxo erten zan amonak erakutsi zion lekura, eta bide ondoan zai geratu, urrutitik ere ikusteko moduan. Ezagutzen ez bazuen ere, bazekien, aitonak esanta, neskaxa bat etorriko zala.

Baiña onek, aspaldi artan bezela, amona egongo zala uste zuen. Neskaxa, Joanita deitzen ziotena,

arritu zan. Benetako ustegabekoa berarentzat, bide bazterrean eta marmiten ondoan ikusten zuenarekin. Gazte ura nor izan ziteken, ordea?

«Amona ere gaixotu egin ote da?» zion Joanitak berekiko. «Orixe bear luteke orain: aitona suspertu danean, amona erori. Baiña ez dute aldaketa onekin asko galduko. Zaarrak bizi dira etxe ortan, eta ez dute olako gazterik».

Parera etorri ta zaldi-karroxatik jetxi zanean, lenengo begiratuan goitik beera elkar neurtu zuten. Gero, zuzen arpegira. Nolako biozkadak eduki zituzten etzegoen oraindik antz ematerik. Agian denborarekin azalduko zan.

Mutillak, eskua luzaturik, ala agurtu zuen:

–Egun on, Joanita.

Orduan ta arrituago geratu zan neska. Aspaldian ezagunak balira bezela, izen da guzi agurtu ere. Neskak, mutillak eskeintzen zion eskua artuz:

–Baita zuri ere. Nor zera, nere izena ere jakiteko?

–Orrek arritzen al zaitu? Aitonak esan dit.

–Oien billoba al zera, bada, zu?

–Bai. Atzo etorri nintzan.

Neskak txeetasun geiago jakin nai zituen.

–Zure opor aldietan aiton-amonei laguntzeko asmoan? Benetan txalogarria zure biozkada ori. Neke-tan ikusten ditut. Aitona xuxpertu berria, eta naigabe ematen didate. Olako famelia azi ta ez ditu iñork jaso.

–Bai. Beren billoba naiz, ta Josetxo deitzen didate, aitona ere Joxe dan ezkerro. Baiña ez nator egun batzuetarako bakarrik. Jainkoak nik bezela nai badu, oraindik amaika berriketa egin bearko degu emen. Auekin biziko naiz. Nik jasoko ditut aiton-amonak eta jarraituko diot baserriari.

–Bejondeizula, Josetxo! –ta alako begiratu gozo

bat egin zion neskak—. Ez dago gaizki pentsatua ori. Bakarrik bizi dira eta neketan, xaartu xamarrak. Baserria galdu nai ez, berriz. Len ere esan dizut naigabe ematen didatela. Olako etxea, oiek joatean, larrak eta sasiak estaliko du, ta kito, eziñean arkitzean Erruki Etxera joan bearako luteke ta. Beti bi auzoak ondo konpondu izan gera. Baiña bejondeizula berriro ere! Zuk salbatuko dituzu.

—Aitonaren nekeak asko arindu dituk, baiña amonarenik ez.

—Ori ere, Josetxo, zure esku dago —erantzun zion.

Neskaren enbidoa ote zan ori? Mutillak, beiñepein, etzuen ala ulertu.

Marmitak kargatu zituzten, eta:

—Agur, Josetxo. Buel tara arte.

—Agur, Joanita. Al badet, txuxen etorriko naiz.

Neskak naia bazeukan, eta denbora gutxian asko ikasi zuen: mutil gazte eder bat zala; biotz onekoa; errukituz, aiton-amonak berak jasoko zituela; baita baserriari etorkizuna eman ere. Milloi baten artean, gaurko egunean beiñepein, olako mutillik etzuela billatuko. Berak zionez, aitonaren nekeak arindu zituela. Amona gaixoa beti bezela lanpean geratzen. Arentzat, nai ta nai ez, beste laguna bear. Bai; pozik joango litzake bertako etxeko andre. Baiña ortarako zeukan eragozpena, nola garaitu?

Lenengo ikusi ta eduki zuten elkar-izketak biotza ukitu zion neskari: probintzi guzian beste olako mutil bat ezin litekela billatu.

Pentsamentu oiek igaro ziran Joanitaren burutik; eta, esneketariaren ipuian bezela, ametsetan jetxi zan.

Josetxori ere zarrazta bero bat egin zion. Amonari laguntzeko alako bat baleuka, etxean dena konpondua legoke. Au aske-askea zegoen. Etzeukan Joanitak bezelako eragozpenik. Ortik aurrerakoa poliki-poliki Kupidok egingo zuen.

Txuxenean baserrira etorri zan, bazkal aurrean berriz trasteen billa joatekotan; arek etxerako zekarz-
kien pusken billa alegia.

Alai ikusi zuen mutilla, etxera sartzerakoan, amonak. «Ez ditek asiera txarra egin» zion berekiko. Bazekien, ordea, beste batekin zebillela neska, amasei bat urte zitueneko. Orain emezortzi zeuzkan. Berra baiño amar bat urtez zaarragoa zuen laguna; eta elkar maitasun aundi gabe eta geroztik arekin autsi eziñik, orpoz orpo jarraitzen ziola.

Baiña Josetxoren ondoan parregarria zan: motz lodikote anka txabal bat, buruan aizea besterik etzeukana; etzan alperra; baserritarra eta nekazaritzatik bizi zana; baiña jenio gaiztokoa. Taberna zulo guzietan, bein zurrutak berotzen zuenean, maiz izaten zuen burruka ta iskanbilla. Ematen zuen baiño geiago artua zan. Eta, jakiña, neskak ondo zekien griña biurri oien berri. Joanita, bada, oso otz eta igeska zebillen arekin. Baiña mutilla etxera etortzen zitzaion, ta jarraitu egin bear.

Josetxo mutil berriak, ikusi zueneko txoratu zuen. Baiña bestea nola utzi?

Etxean aiton-amonen elkar-izketa ere orixe zan, bada, geienetan:

–Neskatxa ori gure mutillarekin maiteminduko balitz...

Gaur egunean baserri askotakoa ere bai noski, batez ere emakumeena. Zuten guzia baserriari eman; eta gero, ura galtzera dijoala ikusteak, benetan samintzen ditu; ainbeste urteetako neke ta lanak egindako aurrerapenak eta erositako tresnak, aiekin xentimorik artu gabe, dena galdua. Kalean bizi dának lanaren ordaiñak artuko ditu aurreratuta edo aiek bere atsegiñetarako txaututa. Baiña baserritarren etorkizuna ez da berdin: baserria utziarekin, kito.

Anttoni, beiñepein, beti zirika ari zitzaion:

–Joanita zer moduzko neska iruditzen zaizu, Josetxo?

–Oraindik gutxi ezagutzen det. Baiña beste askoren antzekoa: alai, iztuna, baiña benetan garbia ta txukuna. Onek ez du ezpaiñik pintatzen. Ezta eskuetako azkazalik zikindu ere.

Amonak parrari eman zion. Atsegiña izan zitzaion Josetxoren ateraldia.

–Ez du, ez, ori bakarra. Neska ederra da gorputzez. Biotza besterik ez duana gaiñera. Eder azaltzeko ez dauka, zuk diozun bezela, ezpain ta azkazalak zikindu bearrik. Jainkoak daki iru urte auetan orrek zenbat lagundu digun.

Josetxok irentsi edo ez, amonak sare ta amuak ugari jartzen zizkion. Beraizik ari zan amona. Baiña oraindik aren oituren berri etzekien ondo, eta etzuen jarraitu nai izan, geiegi zirikatu gabe. Baiña aiton-amonak ura nai zuten etxerako, bi auzoak elkartuago bizitzeko.

Josetxo aitonarengana joan zan, bada, egunaren ordurik geienak arekin pasa bearko zituen ta. Orain bere kopeteko izerdiz irabazten zuen zer jantzi ta zer jana. Beste gusto bat artzen omen ziola janari, lotsarik gabe beiñepein.

Amabietarako berriz an zegoan, Joanita etorri zai. Biak errespetoz begiratzen zioten elkarri. Oraindik ez baizuten elkar ondo ezagutzen. Jetxi zan neska, ta:

–Atzo zuk eman zenidan paper aren bitartez amonak eskatzen zidana emen dakart.

Eta eskura eman zion, esanaz:

–Nik denaren kontua badakart, baiña zure amona ta nere ama konponduko dira datorren igandean.

–Ondo dago. Etxeko andreen egitekoa omen da ori: eguneroko artu-emanen kontuak zuzen eramatea.

–Josetxo, zuk zigarrorik erretzen al dezu? –galdetu zion.

–Ez; eta ez nuke bizio txar ori artu nai –erantzun zion serio.

–Ez dezu asko galduko. Nere aitona asko xamar erretzen du, eta nere izebak kajetilla batzuk eman dizkit. Erretzaillea izan baziña, bat edo beste erregalutako nizkizun.

Mutillaren berri jakiteagatik ez ote zuen gero egin ori?

–Eskerrik asko zure borondate onagatik. Baiña ni beeko lantegi oietan ez naiz naastu. Lagunarte aundirik ere ez det eduki. Patrikan diru gutxi darabilkienaren kontuak dira oiek. Ez naiz erretzaille egin.

–Arritzekoa. Zuk onuzkero ogei bat urte badituzu, ta zure adiñekoak geienak su ta garretan somatzen ditut. Gaiñera, ez mutillak bakarrik. Baita neskak ere. Etorkizun txarra da ori emakumeentzat.

–Emezortzi urte bete berriak dauzkat. Zigarro erretzailleak ez didate batere inbiririk ematen. Zikiña ta alperrikako kastua da ori. Eta zuk aitona bizi al dezu oraindik?

–Bai, Josetxo. Amona aspaldi illa det, baiña oraindik bizi da aitona.

Malezi aundiko galderak egin zizkion neskak. Nolako oiturak zituen ta zenbat urte ikasten ariko zan; eta Josetxo, iñoxente-iñoxente, bere berri ematen. Ori jakin naiko zuen Joanitak.

Onek, etxera joan zanean, bazeukan amari zer kontatu, oraindik ura baizeukan bere aolku emalea: billoba gazte eder bat etorri zala bere borondatez auzora, aitona-amonak jasotzera eta oiñordeko bezela; emezortzi urtekoa; zigarrorik ere erretzen etzuen, eta Prudentxioren semerik gazteena.

–Seme ori ez diñat ezagutzen. Aita bai. Arro xamarra, aize puska bat baziñan gaztetan. Baiña mutil ederra. Etzionan edozein neskari begiratuko. Azkenean, erdi ipurdiko batekin ezkondu uanan. Baiña emakume zintzo ta ona.

–Seme au, gorputzez beiñepein, bikain askoa da.

–Baiña berri auek denak, nondik ikasi dituzu?

–Mutillak berak esanta.

–Baiña ez ik galdetu gabe.

–Aitonarentzat tabako asko eman dit izebak; eta erretzaillea izan balitz, batzuk emango nizkiola esan diot.

–Malezi pixarren bat ez ote zegon gero or, Joanita?

–Denetik zerbait.

–Emezortzi urteko mutil gazte batentzat ez den biozkada txarra. Baserri orrek bizirik irautezkeroz, bear-bearrezkoa. Bejondeiola! Gaurko egunean Euskalerrian ez ditun olako asko arkituko. Eta bera non ikusi den?

–Aitonaren orde z bera etorri zait bidera ta.

–Lenengo egunetik sartu zain begietatik orduan.

Par egin zuen neskak, baiña triste xamar erantzun zion:

–Nik badet, ordea, beste bat aukeratua.

–Arek bai i. Ik ez, ordea, ura. Jolas bat bezela umetan asi intzanen, eta nora joan bear den orrekin? Gutxieneko amar urtez baden zaaragoa, ta ezkontza txorakeri bat dala uste al dezute?

–Ez dakit, bada, nik zer esan. Aren ondoan mutil ederra da au, eta oraindik gaztea. Neretzat asko esan nai du orrek. Bi etxeak elkarri laguntzeko egokiera ohea, bi fameliak bat egingo genduke ta.

–Orain aldamenean darabilkiñan orrek ez dizkin bost xentimo balio. Dan baiño ere ondotoxoz zaaragoa dala zirudin. Bein karrikan ikusi ziñuztedan. Edozeiñek pentsatuko ziñan aita-alabak ziñatela. Ez adi tuntuna izan.

Josetxoren amonari ere etxearen aurrerapenerako bearrezkoa iruditzen zitzaion Joanita beren baserrira

eramatea. Neskaren amari berdin, bere alabaren etorkizunerako, mutil arekin baserri artara ezkontzea.

Bi fameliak batera zetozen, bada, ortan. Beste gaiñerakoa maitasunak egingo zuen itxaropena. Egunean bi aldiz, eta biak bakarrik gaiñera, baserriaren ametsetan asi zitzaizkien biotz-zimikoak. Biak, elkarrengana biltzeko ordua etorri zai. An, berriz, ezin berezirik. Azkenean, neskak ala esango zion:

–Ederki gaude gu emen, Josetxo, goxo-goxo; baiña gure eginbearrak aztuta.

–Arrazoi dezu, Joanita. Ez nintzan oartzen. Zer ordu ote degu? Onuzkero bazkaltzen asiak izango dira nere aiton-amonak.

Ettxera irixtean, iñork etzion erritarik emango. Bazekiten bi gazteen artean zer gertatuko zan. Ori nai zuten gaiñera.

Joanitak, etxerakoan, berekiko ala pentsatzen zuen: bestearekin zebillen iru urte aietan etzitzaiola orren errez denbora pasatzen.

Itotea arian-arian arri gogorrean sartzen bada, maitasuna goxo-goxo nola etzan sartuko biotz gazte aietan?

EZTABAIDAK

–Orrela ibili bear al dezute beti? Aurreratu adin, ura oraindik iñoxente xamar zegon ta –zirikatuko zuen amak bere alaba.

–Ez olakorik. Begiak ondo zabalduak dauzka arek, ama. Alare, aurrera sartzea ez da ausartzen. Ori badakit.

–I sar adin. Elkar maite ta zer eragozpen zegon or tartean?

–Bai, ama. Eragozpenak, eta txarrak gaiñera.

–Ez diñat ezer ere ulertzen.

–Nik bai, ordea, ama. Lenengoa, oraindik gaztea dala eta soldaduska bukatu arte ez duela naiko.

–Bai. Ortan arrazoi piska bat badaukan. Baiña Josetxo ez den soldaduskara joango. Aitonak libratuko din. Besterik zer?

–Pelipe. Josetxok askotan ikusi nau ni mutil orrekin, batez ere jai-arratsaldeetan, ta paseatzen. Eta serio-serio, ez ikusia eginta, begiratu ere gabe aurrera joaten da. Ori da guretzat benetako oztopoa; eragozpena alegia. Nik badakit orrekin Josetxok asko sufritzen duela, eta nik ez gutxiago. Baiña orrekin ez badet austen, ta ez da erreza izango, Peliperekin bizi bearko det zoritxarrez.

–Bai, i umetan asi intzanan orrekin ta.

–Amabost urte bete berriak; eta bein illebeta bazuk igaro ziranean, jela baiño tratu otzagoa darabilkit nik orrekin. Jolas batean bezela asi nintzan nere anaiaren eztaietan; eta maitasuna, igo bearrean, arrunt jetxi egin zait. Berak ere badaki ori. Ez da neretzat egiten dana. Baiña nola moztu?

–Amaika maratil eta matrikula badizkiten neska-txa gazteak, mutil ura etzaiola atsegin erakusteko. Errespetoz, jakiña; isekarik egin gabe. Jenioz, gorputzez eta adiñez etzerate elkarren modukoak. Egia den ori. Gutxieneko i baiño amar urte zaarragoa. Ire ondoan motxa, etzion ukatzerik. Josetxo, ordea, gero-nekoan ikusi niñan ta igualeko mutil gazte ederra zegoen.

–Bai, ama. Begien aurrean dago ori. Benetan maitemindua nago gaiñera ni orrekin. Bera ere bai noski nerekin. Baiña onek onuzkero ala bearko du. Beste orrekin nabil ni aspaldian, ta len ere esan dizut: Pelipe jakiñaren gaiñean bizi da, eta kontuz arekin.

–Ez aiz, Joanita, nere jeniokoa. Onuzkero, amar aldiz bearta ere, autsi niñan orrekin, olako egokiera edukita.

Etzuten austen, baiña arrunt ormatu zan aien artu-eman. Len otzak bazebiltzan, etziran orain asko berotuko. Edozer aitzaki jartzen zion Joanitak, arekin ez ibiltzeagatik.

Pelipek laster igerri zion Joanita urruntzen ari zitzaiola. Aren tratua otza zan orain. Edozer aitzaki aski zuen ez ateratzeko. Aguro berezi nai izaten zuen. Arratsalde batean, espatsu, ala eraso zion:

–Beti orrela ibili bear al diñagu?

–Orrekin zer esan nai didazu?

–Onenbeste atzera-aurrera ibili gabe, ezkondu egin bear gendukela.

- Nik ez daukat oraindik presarik, emeretzi urte besterik ez ditut eta.
- Baiña nik bai, zaartzen ari naun eta.
- Presaka bazera, billa zazu zure adiñeko bat.
- Orixe jakin nai niñan. Ik ez naun, alderatzeko-rik ere, len ainbeste maite. Gu bion artean sartu den norbait. Ik baden beste adiskideren bat.
- Zuk ondo dakizu urte bete ta geiago ontan ni zure iges nabillela. Ori ez da oraingoa, eta igertzeko zu etzera orren tontoa.
- Eta zer arrazoi dauzkan ortarako?
- Etzerala nere gogozkoa. Askoz zaarragoa zera, eta ondotoxoz motzagoa gaiñera. Guk bikote aldrebe-sa egingo degu beti.
- Eta nerekin asi intzanean, ez al ekiñen ori?
- Ni umea nintzan. Arazo auen berri zer nekien nik orduan? Gorputzez ere berdintsuak giñan. Geroztik asko luzatu naiz. Urte oietako iritziak aldakorrak dira. Nereak beiñepein ala egin dute. Zureak ere ala egingo zuten, zure urteak nik izan banitu eta zuk nereak. Nai ta nai ez neskak mutillaren naia egin bear al degu?
- Ori ez den aitzaki bat besterik. Orduan baden ik besteren bat?
- Ni ez naiz iñorekin asi. Uzteko gogo geiago daukat nik. Alare, garbi esango dizut beste gazte bat sartu dala nere biotzean.
- Antzematen niñan, bai, lengo berotasun aiek oz-tu zirala betiko. Al denan denborarik gutxiena daukan neretzat, eta lenengo egokieran ospa egiten di-dan.
- Zer egitea nai zenduke? Nik ez det egundo be-rotasun geiegirik eduki. Maitasuna zer dan ulertu de-tanean, gutxiago. Zuek jai-arratsaldeak beiñepein as-keak daukazute. Nik, berriz, etxean daukat lana.
- Alare, baserrira ezkondu nai den, bada.

–Gogo bizia daukat nik ortarako. Mendizalea naiz gaiñera. Kabi ederra aukeratua daukat. Txoria zer esanik ez. Askea naiz nai detana aukeratzeko. Zure gogozkoa ez banintz, berdin-berdin egingo zeneduke zuk ere: ni bazterrera utzi ta besteren bat billatu.

–Ia iru urtean ibilita, kontu oiekin al atorren orain?

–Nik urte oietan zer nekien ezkontzea zer zan?

–Ez den ori, ez. Auzoko landare berri orrek iruzurtu aun.

–Egia diozu. Len ere esan dizut. Ez nuen nor zan aitortu nai. Baiña ez nabil arekin. Ez pentsatu, ordea, iruzurtu nauenik. Mutil arek balio du berea. Nere adiñeko gazte eder bat, baserri bikain baten jabea, neretzat eraspen guziak baditu; eta nola utziko det olako egokiera galtzen?

–Aixa dion ori. Egun auetan asko sufritu diñat ire atzerakada orrekin. Bai-bainekien gu bion artean beste bat sartu zala. Biotz-biotzean aukanat, eta ezin aztua, ametsetan ere irekin aritzen naun ta. Ez den erreza izango i ortik ateratzen. Oraindik arazo ontaz itzegingo diñagu.

–Alper-alperrik, Pelipe. Nik azkeneko itza emana daukat.

Au entzun zuenean, sekulako masaillekoa luzatu zion. Baiña erne zegoen neska eta etzuen arrapatu. Sumindua geratu zan gure mutilla.

–Ortarako nai al nazu zuretzat: joka erabiltzeko? Ori al da maitasuna?

Eta neskak dakiten alako ipurdi eragin bat eginta, mutilla lotsagarri kale gorrian utzi ta aldegin zuen andik Joanitak.

Bertan zijoazen senar-emazte batzuek ikusi zuten ori, eta senarrak ala esan zion bere emazteari:

–Ai, gaur eguneko neskak bai kaskariñak dirala! Leku onean utzi du bakar-bakarrik mutil gizarajoa!

–Ez; orren masaillekoak artzen ariko da.

–Emen bakoitzak bere astoari egiten dio arre, Joxepa.

–Bai; ta ala bear ere.

Neska bixi-bixi kale-ertzean ezkutatu zanean, mutilla, buru makurka, etsia, kalean galdu zan non-bait.

URKIOLAKO SAN ANTONIORA

Jose txo azkartu zan. Kaleko kolore txuri aiek joan zitzaizkion. Mendiko aize ta eguzkiak beztu zuten gure gaztea. Txarako xoxo, birigarro ta txorien kantu artean lasai bizi zan. Kaleko abesti ergel ta kemenik gabeak baiño naiago zituen; eta erriko berebil ta gasolin-kiratsak baiño, mendiko garo-usaia. Berebil, motor ta gazteen biraoak baiño maiteago zitzaizkion bei-marru ta oilloen kakareak.

Jose txoren ustez, ardo ta koiñakaz aseak, zigarro-punta ketan ezpaitetan, tabernaz taberna zebiltzanak etzekiten nolakoa zan baserria ta bertako pakea eta neurritz jan da edanaz bizitzea. Eguneroko nekearen ondoren bai atsegin zitzaiola arratseroko atsedena.

Berak ezagutu zuen kaleko bizitza berekoia. Orain, berriz, baserrikoa. Aiek konten bizi badira kallean, baita au ere baserrian; eta onek bietako berri badaki ondo. Biak aukeran jarrita, onek mendiari elduko dio.

Nekazari jator bat zirudién, bada, Jose txok, beti an lan egin balu bezela. Baserri artako lanik gogor ta neketsuenak bere gain artuko zituen zoriontsu. Aiton-amonak, berriz, atsegiñez mutillaren jardunari begiratzan bazioten ere, geiago nai zuten: beste la-

gun bat etxeratu. Oraindik gaztea zan. Berak, berriz, zaartuegiak. Naigabez, etzuten mutilla ñorekin ikusten. Jakiña, etzeuden alderatzekorik etsita. Berak ondotxoaz zaaragoak ezkondu ziran. Ogei urte ortxe izango zituen Josetxok. Baiña baten bear gorria zeukaten amonari laguntzeko. Aiton-amonak, elkarrengana biltzean, ala zioten:

–Gazte au gorputz ta anima baserriko lanetara jarria dago. Aski du bein ikustea, urrengoan lan ura bera gutako batek bezela egiteko.

–Gure aginduetara etzana dago gaiñera.

Egundoko goratarreak egiten zizkioten. Jainkoaren bedeinkapena zala ura, eziñean zebiltzan zaarrentzat.

–Bai; ala da. Baiña ez dakit zu bezelako ajola gabea ez ote dan izango.

–Zertan naiz ni zuk diozun bezelako ajola gabea? Ager zaidazu.

–Gu onekin bezela zebiltzan zurekin ere zure gurasoak. Alde aundia dago, alare, onengandik zurera. Au, oraindik gaztea. Zu, berriz, zaarra benetan. Aien tristura ta negarra etzenden berealakoan ikasi. Eskerrak txarrantxari.

–Arrazoi dezu, Anttoni. Orain ulertzen det aien leia. Beti zirika: «Aizak, Joxe: ire urteak aurrera ziazik, eta emen iru bakarrak bizi gaituk. Emakume berrri baten larri gorria zeukagu oraintxe. Amak ezin dik geiago; eta, gu joatean, bakarrik zer egin bear dek ik emen? Sekula bada-ta, zerbait pentsatzeko badek ordua». Olaxe aritzen zitzaizkidan. Aientzat ere tristea izango zan. Ez baizuten baserriaren etorkizunik ikusten. Neri ere, bizi-naiak aiñako kezka ematen dit orrek. Etxe au saldu bearrak illunduko lituzke nere azken urteak.

–Jakiña, ez gentzake onengatik beste ainbeste esan. Oraindik gaztea baida. Badakit Joanita oso gogozko zaiola. Baiña beti jaiero beste batekin ikusten

du ta ezin da ausartu. Zu, alare, or nonbait zabil-tza. Nekerik geienak arindu baidizkizu mutillak. Baiña ni?

–Ortan ere arrazoi ematen dizut. Nereak ainbeste naigabe ematen didate zureak. Nere besoetan landare berri bat ikusi arte ez naiz lasaituko. Ez baidet base-riaren etorkizunik ikusten. Zu, berriz, eziñean zabil-tza.

Auek ziran beti aiton-amonen negar eta kezkek: zalantza ori ezin kendu.

Josetxorekin ere izaten zituzten arazo ontaz be-
ren berriketak.

–Aizak, Josetxo –zion aitonak–. Ni lasaitu nauk. Ez nengoken indartsu. Urteak ere joan zaizkidak, Azken aldi ontan igarotako gaitz gaizto luze arek moteldua utzi nioken benetan. Ala ere, nere eginbe-
rrak orain asko arindu dituk, zamarik aundiena ik da-
ramakelako. Baiña nola zebillek amona?

–Ni lan auetan oitua nago, eta gero ta aixago da-
ramat emengo zama. Baiña amonak erruki ematen
dit neri ere. Arrastaka dabil bere egin bearrak ezin
buruturik. Baiña oraindik ez det ordekorik ezagu-
tzen.

–Ni ere oartu nauk, bai, ortaz. Askotan laguntzen
ziot. Beti eskaillera oietan gora ta beera ibili bearrak
asko nekatzen dik. Illunabarrerako oiñak zagitu eta
azi egiten zaizkiok, eta ler egiña geratzen dek.

–Zerbait geiagotan nik ere lagundu nai nioke.

–Len ez daukak lan-paltarik. Baiña emango dio-
kan laguntzarik onena badakit ondo zer dan, eta ez
gaizki artu.

Par irudi bat erten zitzaion billobari, eta ala eran-
tzun zion:

–Badakit, bai, nora naramazun, eta zure zirikada
ezin nezake gaizki artu. Oraindik gaztea naiz. Baiña
emen beste bat bear dala antz ematen ez da zailla.
Aiton-amonen artera gaztetxea etorri bainaiz.

–Bai. Ori ulertzen diagu. Ni ogei ta amalau urte-
rekin ezkondu niñun. Ia ik orain dauzkaken alako bi.
Gurasoak etsi ta gero noski. Eta ustegabeko oztopo
bat izan zalako. Ala bear nonbait.

Kontatu zion nola billatu zuen, eta Josetxo parrez
lertu bearrean asi zan.

–Gu ere, bada, olako mirariren baten itxaropen-
tan bizi gaituk, jakiña.

–Zer besterik nai nuke nik? Badaukat bat begiz
joa.

–Bai: auzoko Joanita. Baiña arek ere bai i. Ondo
bazekit bere amak esanta. Ez dek gure baserrirako
emakume egokiagorik arkituko.

–Zoritzarrez, beste batekin dabil, ordea.

–Bai. Iru urte auetan elkarrekin zebiltzak. Baiña
etzekit ez ote diran asarretu, Anttonik esan zidanez,
eta oiek ortan begi zorrotza zeukatek.

–Lenengo zuri entzuten dizut. Poztuko nintzake
benetan. Baiña berak ez dit olako ezertxorik esan.

–Ez. Ori berak aurrea artzea irudituko zaiok.

–Amonak zurekin artu zuen, bada.

–Bai. Ori dena moldatua zegoken bi auzoen ar-
tean, eta ura ere elizak artzeko naiko adiña bazeuka-
ken.

Aitonak bere kezkek jaulki zizkion. Amona
arrastaka ikusten zuen guzietan, urrikaltzen zitzaion
Josetxo. Anttoni ere kezketan, bada; ta, egokiera
zuen guzietan, kargatu ta tira ari zitzaion. Etzuen
gazteak pazientzi txikia. Etzan bein ere bere onetatik
ateratzen. Entzun, ta eziñaren aurrean par egin bear.

–Asi dekan lan ederra erdizka egin dek oraindik.
Ea bukatzen dekan mesedez beste erdi ori. Bestela,
amonarik gabe geratuko aiz laster. Nik ezin dit geia-
go.

–Aitona ere kargatu ta tira olaxe ari zait: aren la-

nak arindu ditudala, baiña zu zabiltzala eziñean. Ori, arek esan gabe ere, ederki ikusten dute nere begiak. Baiña bi eragozpen dauzkat ortarako garaitu bearrak. Bat, Joanitaren gora-beera. Ea zer bide artzen duen. Asarretu dirala norbaitek esan baidit.

–Eta benetan. Egia bere amak esan zidaken neri.

–Ez da ori neretzat berri txarra. Bestea, soldaduzka gaiñera datorkit.

–Bai. Nai badu, i ez aiz joango, aitonak libratuko au ta, beste nor lagundurik ez daukalako.

–Orduan, amona, saiatuko naiz. Nolako asmoak ote dauzka Joanitak?

–Ik noiz itzegingo dioken zai.

Olaxe ari zitzaizkion aiton-amonak. Berak, berri, benetan maite zituen. Oraingoan berri onak eman zizkieten, eta neskaren asmoen berri ikasi nai zuen. Baiña ezezkoren bat emango zion beldurrak, ezin ausartu.

Etxe barruko bizimodu aspergarria zerbait lasaitzeko, gure zaarrak egiten zituzten urtero txango bat edo bi: Arantzazu, Lurdes, San Antonio Urkiolakoa. Batez ere oni zioten eraspén aundia. Biak elkar eza gutzea ere oni zor ziotela uste baizuten. Ortara oituta zeuden. Aurten San Antoniora. Au azkenekoa elkarrekin izango zuten beldurra noski. Baiña joan bear zutela. Josetxo ere berekin eramango zuten, nai bazuen beiñepein. Laguna bere ondoan balerama, ai zer nolako atsegiña aiton-amonentzat! Urrengo urterako dena konponduko zan itxaropena.

Len esan degun bezela, eraspén aundia zioten San Antoniori. Askotan entzuten zuten ezkon laguna billatzeko mirari aundiak egiten zituela arek. Urtero bezela, erromes joango ziran, bada. Baiña baziteken meza bat atereaz grazi ori eskatzea ere, bear zuten ta. Joxetxori aitonak ala esan zion:

–Berebillan ibiltzeko gogorik bai al daukak?

–Zergatik ez? Ez naiz oraindik sartu ere. Norbai-

tek nik baiño atzera-aurrera geiago egingo zituen onuzkero.

–Astelenean Urkiolara giazik, San Antoniora, aiton-amonak. Mendi batean dagoen eliza dek au. I ere joango al intzake gurekin?

–Non dago ori? Emendik urruti xamar noski. Askotan entzuna daukat.

–Bizkaian. Baiña egun guzirako joango gaituk. Tasis bat artuko diagu.

–Eta etxeko lanak nork egin bear ditu?

–Ukuilluko gora-beera guziak kazereñoak egingo dizkik. Naiko bazka botako ziek beiei. Goseak etzaizkiguk ondatuko. Beste gaiñerakoa Joanitak. Igaz bezela aurten ere. Guk marmitak atean utziko dizkiagu. Arek artuko dizkik emendik, eta eguerdian ekarri ere.

–Ez dago gaizki pentsatua. Pozik joango naiz. Mundu au zerbait ikusteko ez daukat gogoaren paltarik.

–Astelenean joango gaituk, eta ire bizkar uzten diagu neskari abisatzea.

–Bai, aitona. Biar goizean bertan gaiñera.

Jose txok ala pentsatzen zuen: neska etxeko alabatzat artua zeukatela. Urrengo egunean, aitonaren agindua pozik egin zuen.

–Badakizu, Joanita, astelenean San Antonio Urkiolakora goazela?

Neska oso alai zan, eta algara gozoa egin zuen.

–Orren parragarria al da nik esan dizudana?

–Aiton-amonak zurekin laster etsi dute.

–San Antoniora joan bear degula ta etsi? Nola ulertu liteke ori, Joanita?

–Ezin dizutela andregairik billatu, alegia.

–Nola batu litezke bi alde oiek? Urkiolako San Antoniora dijoazelako, ez naizela ezkonduko etsi dutela?

–Ez al dakizu andregairik ezin billatu dutenak Urkiolako San Antoniori eskatzen diotela? Zure aiton-amonak orixe egingo dute, mezaren bat edo bi enkargatuta ortarako. Bat entzungo dezute; ta an bertan bazkari eder bat egin eta gero txuxenean etxera.

–Alajainkia! Laster etsi dute. Aitonak esan zidanez, ogei ta amalau urterekin ezkondu omen zan bera, ta nik oraindik ogei laster ditut betetzekoak. Amaika meza atera bearako dituzte orduan.

Kontatu zion andregaia nola billatu zuen aitonak. Berriro parrari eman zion neskak.

–Orduan nik ere aria ta jostorratza nerekin erabili bearako ditut, zuk galtzak austen dituzunean josteko. Amonak ere, bada, inguru xamar izango zituen ogei ta amalau, ordurako beteak ez bazituen ere. Orren berri banekien aitonak esanta. Bere laguna omen zuen gaztetan. Baita nongo bide bazterreko txarran txak autsi zion ere.

–Olakorik gabe konponduko gerala uste det. Eta San Antoniok zer ikusi dauka ezkongaien gora-beeretan?

–Zuk ez dezu entzun San Antoniok nolako mese-dea egin zion senargaia ezin billatu zuen neska zaar bati?

–Ez badidazu esaten, barau nago ni ortaz. Olako berriketarik ez det entzun, ibili naizen lekuan.

–Neskatxa bat zaartzen ari zan, gu denok bezela. Baiña ezkondu nai zuen. Senargairik ezin billatu, ordea, eta gero ta zaillago. Iñor etzitzaiola urbiltzen, eta San Antonioren mirarien berri jakin. Bazeukan etxean beraren irudi txiki bat. Egunean bi aldiz eskatzen zion grazi ori, eta aren omenez limosnak egiten omen zituen. Alare, San Antoniok gor aidea omen zeukan. Etzion entzuten.

–Txoroa aleena neskatxa ura. San Antoniori zer ajola bear dio?

–Azkenean neskak etsi zuen; eta, etsia eta asarre,

leiotik beera bota zuen kale gorrira, an txikitu zedin. San Antoniok etzuen, ordea, kale gogorrera erori nai, eta leioaren parean zijoan mutil bat jo zuen buruan. Kaskako polita eman ere bai noski. «Otx! Au ere badegu?» oiur egin omen zuen—. «San Antonio leiotik beera?»». Bota zuenari kargu artzera igo ta: «Zertarako bota dezu au?» esan zion—. «Ikusten al dezu nolako koskorra atera didan?». Neskak, lotsatua, «Barkatu!», eta dena kontatu zion. «Ni ere andregaia ezin billaturik nenbillen bada» esan zion mutillak. Eta biak ezkondu ziran, eta irudi txiki ari aldaretxo bat jaso omen zioten etxean.

—Bai. Emakumeen kontuak. Zortzi urteko aurrak engaiñatzeko ez da txarra. Seguruago da, bai, aria ta jostorrazarena. Ta santu au ezkondua al zan?

—Ez; gaztetatik praillea.

—Ea nere aiton-amonak zuretzat senargai baten eske dijoazen.

—Aizu, Josetxo: ori ere litekena da.

—Nik ere orixe eskatuko diot. Igaz zuk egin omen zenduen orko etxeko andretza. Aurten ere egingo dezula noski, ta zuri abisatzeko esan dit aitonak.

—Pozik alare. Etxe ortan emakume gazte baten bearra daukazute.

—Ala izan bear du, dagoneko San Antoniori eske asi diranean.

—San Antoniora bai pozik joango nintzakela ni ere zurekin.

—Bai. Gozoa jarriko litzake zuk jaietan darabilkizun bastoi ori.

—Bai, nai badu. Arekin autsi nuen betiko.

—Egitan al diozu ori?

—Bai, Josetxo, bai. Ez det iñor engaiñatu nai, ez zu ta ez ura. Egundoko masaillekoa tira zidan. Baiña ni ere erne nenbillen eta ez niñun arrapatu. Orduan nik iges egin nion eta or konpon.

–Zu ere zirika asi al zera eta zerbait erabaki bearra daukat. Urrengo txangoan eramango zaitugu.

–Benetan ari al zera?

–Zure itzekin erantzungo dizut: ez det iñor ere iruzurtu nai. Nik bezela Jainkoak eta zuk nai badezute beñepein, zalantzarik gabe.

–Itza eman ta betetzen ez duena ez da gero gizona, Josetxo.

–Ni ala naizen ezkerro, ez det eskeñia jango. Ainbeste laguntzen diguzu ta ori ta geiago merezi dezu. Nik San Antoniori eskatuko baidiot ori.

–Agur, bada, Josetxo, eta ondo ibili. Emengo lan pixar auek utzi nere esku. Etortzean, ango berriak kontatuko dizkidazu noski.

–Ez naiz bein ere izan, baiña badaukat gogoia. Ikusgarria izan bear du.

Urrengo urterako gelditu ziran gure bi uxapalak.

NEKAREN JAKIN NAIA

Urkiolako San Antoniori ikertxo bat egin ta beren eskariak bukatu ondoren, joan bezelaxe pake-pakean etorri ziran baserrira.

Beti bezela, biaramonean atera zan Josetxo bere marmitekin, oitu baiño goizago. Etzezatela esan asteartean astelen zeukanik. Baiña ordurako zai zeukan Joanita. Neskaren jakin naiak etzeukan neurrik. Arritu zan mutilla. Sekula baiño goizago zebillen bera, ta ordurako zai bestea. Baserrira etorri ezkeru, eta bidera ateratzen asi, lenengo aldia noski neskak aurrea artzen ziola.

–Egun on, Joanita, eta eskerrik asko aiton-amonen ta nere partetik, agindutako lanak txintxo egin zenituelako. Eta barkatu berandu etorria. Erlojua atzeratu zait. Goizago zala uste nuen.

–Baita zuri ere, eta ez da zeri –erantzun zion alai-alai–. Ni aurreratatu naiz, ango berriak jakiteko pozez.

–Beldur nintzan alare, asteartea astelen biurtu ote nuen.

–Ez. Zu ere goiz etorri zera.

–Gure txangoa, bada, ederra izan zan. Zoragarria. Osoa izateko zu palta.

–Aurtengoa barkatzen dizut. Urrengoa ez.

–Goizean goiz erten giñan emendik. Urruti geratzen baida ura, eta lasai joan nai guk. Tasis zauli bat ekarri ziguten. Txoperra bera ere oso ezaguna ta atsegin geneukan. Egun guzirako artua gure borondatera. Guk nora edo nondik kezkarik gabe, txintxo egingo zigun. Itxas-bazterrik bazter, Ondarroatik sartu giñan Bizkaira. An bazter batean geratu ta txoperrak eta nik egin genduen amaiketakoa, etxetik eramana alegia. Aiton-amonak, berriz, an Jauna artu bear zutela-ta, barau gorrian joan ziran, antziñako usariora, promes ori egin omen zutela ta. Baiña nik ez det ontzat artzen ori. Gu bezelako gazte batentzat ez da ezer. Baiña aientzat gogorregia. Erri txiki batzuetan barrena, Durangoraiño iritxi giñan. Andik erakutsi zidaten Urkiola non zegoen. Arkaitz soilla ta itxusia zirudien andik. Baiña au mendiaren ipurdia zan. «Olakoa al da ainbeste aldiz aipatutako mendia?» esan nien. «Gurean ere olakoak obeto daude. Auntzak ere ez luteke bizimodurik aterako or». «Ez dek ori esango, beste aldera joaten geranean», erantzun zidaten. Amona gaixoak etzeukan izketarako gogo aundirik. Ondoezik atera zan etxetik. Gero, bide guzian baraurik joateko txorakeri ura. Berebillak, berriz, larritu besterik etzuen egin, eta bera zan San Antoniora joateko zoratuena. Meza entzun ta Jauna artu zuenean, eman zioten aspirina bat kapesne beroarekin; eta gain artan zebillen aize garbi arek suspertu eta alaitu zuen benetan. Etxerakoan umoreko zetorren. Gaur ere ala dago. Goizean ukuillura jetxi naizenean, ala galdetu dit: «Bai al daukak astelenik, Josexo?». «Atzo etzan, bada?» erantzun diot. «Eta zuk?». «Bai. Oraindik ere larri pixar bat bazeukat, baiña ezer gutxi. Azkenekoa izango zala, baiña ni berriro pozik joango niñukek». «Baita ni ere, nai dezutenean». «Baiña urrengo txangoa lauk egin bear diagu: bi zaar eta bi gaztek». «Ederrak bazebiltzan an. Batzuek goitik beeraiño neurtzen niñuten». «Ik

ez daukak ara zertan joanik» zion amonak. Umoreko zegoen gaur. «Nolako pentsamentuak ote darabilzki onek buruan?» nion nereko.

–Seguru asko, nik orain dauzkadanak. Jakiña, araiño joan gabe aukera badaukazula bertan, eta ondo ezagutzen dituzunak.

–Baliteke ori ere, Joanita. Emakumeak bai omen dituzte amaika matrikula. Ori esan zuenak etzion gezur aundirik.

–Ai! Eta gizonezkoak? Zuek baiño argiagoak gera gu.

–Ala bedi. Aldapak gora asterakoan, esan zidan aitonak berriro: «Oraintxe asi gera Urkiolako mendira igotzen». Nere begien aurrean ikusiagatik, ezin sinistu nuen nik ura: arkaitz legor arek beste aldekoa izan zezakenik. Bide bikaiña, ondo zaindua. Lanean ari ziran bi aldeetara. Zugaitza ta zugaitza, mota guzietakoak. «Arkaitzaren beste aldekoa al da au?» galdetu nuen. «Bai. Ipurdia itxusia ta latza zeukak, baiña magal gozoa; arpegia alaia. Mendi guzia olakoxea dek: zugaitza, baiña ondo zaindua». Noiznai ikusten genituan berebillak eta txirrindulariak jexten. Baiña ez giñun iñork pasa gora arte, elizarakoan. Bide guzian begiak erne eraman banituen ere, mendi gaiñera giñanean bai ederki zabaldu zitzaizkidala. Paraiso bat da ura. Igo giñan orduko, berebilla bazter batean utzi ta txuxenean elizara joan giñan. Ez da aundia. Oraindik bukatu gabea dago. Ez det uste asmorik daukatenik ere. Baiña bai polita. Orduantxe zijoan meza astera, eta laurok entzun genduen. Aiton-amonak Jauna artu ere bai.

–Eta zuk ez. Ereje koxkorra izaki.

–Ez. Baiña ez dezu asmatu. Aien ejenploak zer pentsatua eman zidaten. Nerez otz xamarra banaiz ere, esan dizudan bezela, lengo oitura zaarrera egin zuten erromeri ori. Arratseko amaikak ezkerro etzan

urik ere sartu aien eztarrietan. Baiña, nere iritzi apa-lean, etzuten ondo egin.

–Penitentzi koxkor bat egiteko lengo oitura xaar-
rera. Ala zan usarioa, eta barau. Zu, sasoiko eta
gaztea, etzenduen olako asmorik. Ori dena zuri lagu-
na billatzeagatik egingo zuten.

Joanita zirikatzaile ari zitzaion, sinismenik bai
ote zeukan jakiteko noski.

–Edo zure biotz ori xamurtzeagatik agian. Nik
barau ori zergatik egin bear nuen? Jauna artu bear ta
ere, jan da edanagatik egin litekena da. Or dezu
amona. Bein gosari beroa artu zueneko, txorabio gu-
zia bereala pasa zitzaion eta egun guzira berpiztu
zan. Erteeran, bi mezarentzako saria eman zion atean
ortarako zegoenari. Nolako intentziotan, ori ez dakit,
ixilik belarrira eman zion ta.

Par egin zuen Joanitak, eta bixi-bixi ala erantzun
zion:

–Nik badakit ordea, Josetxo.

–Aztia al zaitugu, bada?

–Amonak meza aiek zergatik atera zituen jakite-
ko, ez dago aztieta jo bearrik. Igertzen ez da zaila.

–Emakumeen kontuak. Zuregatik agian aterako
zituzten ta.

–Ori ere izan liteke. Baiña amonak, meza aiek
eskeintzerakoan, etzeraman beste asmorik: zuri an-
dregai on bat billatzekoa.

–Aizazu: ederrak bazebiltzan, eta euskaldun gar-
biak gaiñera. Batek baiño geiagok ondo asko neurtu
niñuten. Ez nituen ezagunak. Aiekin itzegiteko asti-
rik eta modurik ere ez nuen eduki. Baserrirako gurie-
giak ziran.

–Eta San Antoniok ez al zizun ezer esan, edo zu-
retzat modukoa nor zan erakutsi, edo...?

–Etzitzaidan San Antonioren irudirik burura ero-
ri. Alare, neskatxa aietako bat ikusi ta begiratzean,

onoko pentsamentu au etortzen zitzaidan burura: «Kontuz, Josetxo. Larrosik eder ta gozoenak badizkik gero bere arantzak. Oneraiño etorri gabe, urbil xamar badauzkak iretzat modukoak. Lengo ura naikoa dek». «Alako intziri bat nabaitzen nuen, bai, barruan. Baiña zuk ez badezu mirariren bat egiten, ura gabe geratu bearko det. Beste batekin dabil eta, zoritarrez, arek eramango baidit» erantzun nion.

–Eta nor da, bada, beste ori?

–Bego ezkutuan. San Antoniok mirari egiten duenean, laster jakingo dezu.

–Eta nolako doaiak eskatzen dizkiozu zure amestetako andregai edo aingeru orri? Jakin nai nuke.

–Gaztea bear du, ni naizen bezelakoa. Ni baiño pixka bat motzagoa bada, obe. Euskaldun garbia, eta baserri-zalea.

–Elizkoia edo aberatsa ez?

–Elizkoia bai, baiña aberatsa ez, beti diruaren mende bizitzeko.

–Ez dezu ederra eskatzen?

–«Emakume ederra, etxean gerra» ez al dezu entzun bein ere? Doai oiek guziak dituenaz ez al da ederra ta ona?

–Eta zuk begiak zorrotzu dizkiozun ori nolakoa da?

–Doai oiek guziak baditu, baiña ez dago aske.

Joanitak igerri zion beragatik ari zala. Alare, orrela erantzun zion:

–Orduan zuk Ama Birjiña bezelakoren bat nai zenduke.

–Auxe atarramentua! San Antoniotik asi ta zeruraino igo ez gera, bada? Alare, berri on bat eman bear dizut: urrengo txangoan nik eramango zaituztedala. Aitonak txoper ikasteko agindu dit, berebil eder bat erosi bear duela ta. Ikusten danez, Aurrezki Kutxan-edo badauka dirua.

–Bejondeiola! Bera zaarra bada ere, berrizalea al da? Orduan nik ere ikasi bearko det.

–Etzaizu gaizki etorriko.

Non zeudenik ere aztuta, itza ta putza gozo-gozo ari ziran, ezin berezirik. Noizbait oartu zan Josetxo:

–Aizu, Joanita: begiraiozu erlojuari.

–Agur, agur, Joxetxo. Zaldiak pagatu bearko du gure atsegiñaldi au.

Eta laukoan artu zuen aldapak beera erri aldera.

¡SANTO DIOS!

–¡*Santo Dios!* Au ez da ortara geratuko! –Peli-pek oiuegin zion Joanitari, aren masaillekoari iges egin ta kale gorrian bakarrik utzi zuenean.

Ez dakit arrazoirik bazuen ori esateko. Baiña neskaren biotza irabazteko modu kaxkarra zan.

Andik aurrera beiñepein, neska arrunt atzeratu zitzaion ezkerero, noiznai ateratzen zitzaion bidera, zemaika eta desapioka; eta an luzaroan eduki arazten zuen, neskaren borondatearen aurka. Atzetik beste norbait zetorrenean, utziko zion joaten; eta berak, ezer gertatzen ez balitz bezela, aldegingo zuen andik. Erriko lanak bukatu ta baserrirakoan ere bai askotan. Itxura zuanez, Pelipek inpernu bera zerabilkien biotzean, neska beti berean, ezetzean, zegoelako. Azken agurra au izaten zuen beti:

–¡*Santo Dios!* Au ez dek ortara geratuko!

Neska, urduri ezik, beldurrak aidean zebillen.

Azkenean, auzoko batzuekin elkar artu ta auek galera zioten neskari etxetik ertetzea. Orduan, berriz, batez ere larunbat eta jaietan, Donostiko Bretxara joango zitzaion. Berak ere, baserritarra zan ezkerero, aitzaki-maitzaki zerbait eramaten zuen saltzera, iñork pentsatu etzezan neskarengatik joaten zanik.

Bordatxo inguruko nekazariak larunbatero goizeko seietarako autobus bat ekartzen zuten barazki eta tratuak Donostira eramateko. Antonio nere anaia joaten zan. Nik autobuseraiño laguntzen nion. Pelipe ere joaten zan, eta an egin giñan adiskide.

–Kaixø, Joanita –agurtuko zuen, begietatik sua zeriola.

–Ongi etorri, Pelipe –erantzungo zion legor eta serio, daldaraka.

Deabru aren aurrean bere burua ikusteak bere onetatik ateratzen zuen neska gaixoa, eta alegin guziak egiñagatik ezin galerazi.

–Neregandik iges abillen, baiña alperrik –oiu egingo zion.

–Nere atzetik dabillena ere alperrik ibiliko da, bada. Ni ez nabil iñoren igesi. Dauzkadan egin bearrak betetzeko, nere bidetik nabil. Oiek dira neretzat bearrezkoenak.

–Joan zan igandean ara azaltzeko, eta etorri ez.

–Ez al dizut gutxienez amar milla aldiz esan zuk eta nik elkarrekin ez daukagula zer ikusirik? Nere zai ez egotekotan ez nintzan, bada, agurtu? Edo zuk mantentzen dezun txakurren bat naizela uste al dezu, zuk nai dituzun kutixietarako? Ni pertsona bat naiz, eta askea, nai dedanarekin eta nai dedan lekura joateko. Pakean utzi nazazu mesedez, nere ordurako etxera joan bear det eta. Edo zurekin austeko notarioarengana joan bear al degu, lekuko ta guzi, agiri bat egitera? Pakean uzteagatik ortaraiñoxe ere makurtuko nintzake.

–Emendik lenbailen anka egin nai den Josetxorekin egoteko.

–Nai ta nai ez egon bearra daukat, eta zeñek galerazi bear dit?

–Iru urtean elkarrekin ibilita, iseka au gero?

–Josetxo azaldu baiño len nere ezezkoa eman nizan. Egia da ori; eta zuk ere, egia aitortu nai badezu,

ala esan bearko dezu. Benetako naigabea ematen didazu. Min gaiztoa izaten omen da ezin etsi ori. Baiña berandu damutzea baiño naiago det, zemai ta arraixku guzien gaiñetik, ilko nauzula jakinta ere, orain bertan berriro moztu. Lenengo esan nizunean atzeratu baziña, eta besteren batekin asi –berdin emakume paltarik ez dago–, onuzkero ezin etsirik geiena pasa zitzaizun. Baiña ez. Onean edo txarrean, nere Jainkoa baziña bezela, zure borondatera makurtu bear det.

–Ezin naun, ordea, itzaz aztu. Ez al niñunan, nik i ainbeste, ik ni maite? Ezin aztu ori sendatzeko etzegon ezer ere botiketean, eta ni iregatik asko ari naun supritzen. Biotzarekin etzegon jolasik.

–Ez bazan munduan beste mutillik izan ere, ni ez nintzan zurekin elkartuko. Il bear banauzu, il nauzu. Baiña nere itxaropenetan ez bizi. Izan ere, nor urbilduko da bere aita iltzeko edozeiñi milla pezetakoren bat eskeiñiko liokenarengana? Aita ez badezu maite, nola emaztea, bein urte batzuk pasa ta gero?

–Nik etzizkionat iñori, nere aita iltzeko, milla pezeta eskeiñi.

–Ez dizut eskeiñi zenizkionik esan. Baiña ez dira iru illebeta, «Gure etxera etortzeko nere aitak beldurtzen baaun, milla pezetako batekin nork illa laster billatuko diñat» esan zenidan. Ni geroztik beldurrak nabil. Ez aitak, ez; zuk izutzen nauzu. Len ere esan dizut: il naiago det, bada, zurekin ezkondu baiño. Orain nere berri ondo badakizu. Ni betiko bidean ibiliko naiz eta arrapatzen ez naiz zaila izango.

–Alajainkia! Goxoa agon! Eta orain beste batek artu al din leku ori?

–Ez du oraindik, garbi esateko, leku ori bete. Iñork ez du nere biotz ori irabazi. Baiña badet beste bat begiz joa, eta seguru badakit arek ere benetan maite nauela. Baiña ixilik dago. Ni aske ikusi arte, ez da mintzatuko ere.

- Orduan ez den nere zorionik nai.
- Naiko ez det, bada? Baiña zuk maite al dezu nererik?
- Bestela ez niñuke ire atzetik ibiliko.
- Maite banauzu, bada, utzi nazazu pakean. Ortan dago nere zoriona. Beste gaiñerako guzia ez da zure zerekoikeri bat besterik.
- Gau ta egun ez naun itzaz aztuta.
- Baliteke ori. Baiña beti zere burua aurretik.
- Ez baden aitortu nai ere, bazekiñat Josetxorekin ditukanala kontu guziak. Egunen batean erakutsiko zionat norekin dabillen.
- Altza guzian iñozenteagorik ez dezu arrapatuko. Arek ez daki ezertxo ere gure berri, gu elkarrekin ibili giñala besterik.
- Bazekin, bada, nere andregaiia erotzen.
- Andregaiia aixa diozu. Gizon batekin umetxo baten jolasa besterik ez.
- Nerekin pozik ibiltzen intzanen, bada, nere xoxak zurrupatuz.
- Uste det, zuk nerekin aiña, nik zurekin kastatu detala. Ondo atera itzazu kontuak; eta zu galeran ateratzen bazera, batere kupirarik gabe oraintxe bertan emango dizut ordaiña.
- ¡Santo Dios!* Au ez den ortara geratuko! Neri egiten didaken iseka au norbaitek pagatu bearko din larrutik, eta lenengo Josetxo izango den.
- Len ere esan dizut arek ez dakiela ezertxo ere gure arteko arazo onen berri. Zurekin ibili nintzala bai noski. Bazterren batean ikusiko giñun, ni espaloi batetik bakarrik eta zu bestetik neri segika. Baiña arekin asten bazera, galderak bezelako erantzunak artuko dituzu. Ez uste gero baserrira joan zan bezelakoa dagoenik. Baserriko lan gogorrean indartu da.

—*¡Santo Dios!* Au ez den, bada, ortara geratuko!
—esan ta abiatu zan.

—Zoaz, zoaz! Ez dakizu nolako pakea uzten dida-
zun. Jakiñaren gaiñean zaude, bada, Felipe. Ez geia-
go neregana etorri. Emendik aurrera, egiten dezuna
txarrez egin beariko dezu. Nik baietza eman baiño
len, ilko naiz.

Beldurtzen asi zan, bada, Joanita. Okertzen zi-
joan bere arazoa. Lengo maitasuna, len sekula maite
izan bazuen beiñepein, orain gorroto biurtu zitzaion.
Ero gaizto bat egiña zegoen ura.

AARI GOGORTXOA

Urrengo egunean bertan, neskaren zai egoten zan lekura joan zitzaion Josetxori kargu artzera. Asarre xamar gaiñera, bere eskubideak mutillak autsi balizkio bezela, zearo bere kirioak aidatuta. Ordurako mutillak ere bazekien, ordea, bikote ura etzebillera ondo. Neskak dena kontatu baizion.

Ala bear ta orduantxe zetorren Joanita karroxarekin. Bai aguro ikusi ere onek Pelipe aldapa gora etortzen. Baiña oraindik bide-gurutzera ateratzekoa eta ez zetorrenaren bistan. Bertan zaldia ezkutuan utzi ta jokoa ikustera aiek izketan ari ziran lekura urbildu zan tirabidean, eta ezkutuan geratu, aiek itzegiten zuten guzia entzuteko moduan. Bazekien noski etzuela ondo egiten. Baiña itzegiten zutenaren berri jakitea baziteken bere munduko etorkizunerako ere garrantzi aundikoa izatea.

–Zer egiten dek ik emen? –galdetu zion Pelipek itzetik ortzera, agurtu ere gabe. Muturje itxusia zekarren.

–Baita iri ere, Pelipe. Ongi etorria –erantzun zion Josetxok, benetan adarra joaz.

–Egun onak iretzat izango dituk, baiña ez nerezat.

–Ori etzekit, bada, nik. Eta agiñeko miñak al abil? Beetik oneraiño etorri ta ez al diagu agurrik ere merezi?

–Iñor agurtzeko gogo gutxi zekarret nik onera.

–Motell, ik jakingo dek zer dekan. Ni, lasai ta pakean, tratalari gozo baten zai negok. Ire biotzeko kezka ta espa gaiztoak egosten badauzkak, gorde itzak iretzat. Zergatik ori azaldu bear diok iñori? Erorrek jakingo dek ondoena erorren berri. Baiña zallantza gaiztoan utzi nauk.

–Noren zai ago?

–Beste buru ta ankarik gabeko galdera orixe dek. Ez al dek marmita ta tratu pixar auk aldamenean dauzkadala ikusten?

–Iretzat ala izango dek, baiña ez neretzat.

–Ori esatera etorri al aiz andik oneraiño? Ezagun dek, bai, pentsamentu bat darabilkikela buruan eta arek betetzen dikela lepoaren gaiñeko konkor ori, eta ez dagoela besterentzako lekurik. Ez nitek erantzun bear ere. Ezeren kezka-pasiorik gabe lagun gozo baten zai dagoen bati itzegiteko moduak al dituk oiek? Ez al nauk ikusten Joanita izeneko neskaxa bat, egunero bezela, noiz etorriko, aren zai nagoela, gure esne ta tratu pixar auk aren karroxara sartzeko?

–I gabe ere igoko dizkik, bai, arek.

–Bai. Orrenbeste eta geiagotarako ere badek. Baiña auk ez dituk aidean etorriko. Norbaitek ekarri ta eramam bear ko dizkik.

–Ori ez dek buruauste aundia: ekarri, utzi ta aldegin.

–Alajainkia! Gure tratu ta esne pixarrak eramaten dituen neskaxa bati itzegiteko eskubiderik ez ote daukagu? Patrikan erabili bear al dek? Aunditxoa ez ote zaik izango gero? Edo erorrek ekarri ta eramango ote dituk gure esne pixarrak, neskarekin itzegiteagatik? Ik agindu bear al didak norekin itzezin edo norekin ezkonduko naizen? Indarkeri geiegia ere badek

ori. Baiña barkatu, Pelipe. Ni ere gizona nauk, eta gaztea ta sasoikoa oraindik. Neskatxa eder batekin itzegitea atsegin egiten zaidak, batez ere onekin, gozkoa dit eta.

–Zerbait izango dek, ura nerekin zapuztu dek eta.

–Bejondeikela! Ori dek beste ateraldi bat. Petrala badirudik. Itxutua agola eta ezin aizela arrazoitara erori. Neska zapuztu zaikela ta nik ote ditut erruak? Biotzeko arazo aukerak ondo konpontzeko espatsuegi abil, motell. Asko maite izan baiñu, ez uan orren utsagatik atzeratuko.

–Aren begiak i ikusten iñutela eta iri begira zeudela esan zidaken.

–Eta zer nai uke: ari begiak kentzea? Nik ez nekiken ori. Guk ez diagu emen ortaz itzegiten. Maite kontuan ere gutxitan aritzen gaituk. Baiña neskatxa ori atsegin zaidak. Len ere esan dit. Alare, ik begiak zabaldu dizkidak. Auek bai orain ura ikusiko dutela. Oraintxe lenengo entzuten dit ori. Eskerrik asko, motell. Ez dakik nolako poza ematen didaken orrekin. Gure baserrirako ez uke gaizki etorriko. Nere aiton-amonak ortara zirikatzen niotek. Bere gurasoak ere bai. Alaba gure etxeko andretzat artua zeukatek, biak bakarrik bizi itun ta. Ez dit gezurrik esango, jakin dezaken norekin abillen. Ondo edo gaizki artu, nere begiak ere orri begiratzen ziotek. Arekin itzegiteko, noiz etorriko zai pozez egoten nauk. Biotzean zeukat neskatxa ori. Ez banau iruzurtzen, baita berak ere ni. Askotan, non gauden ere aztuta, itza ta putza ementxe aritzen gaituk luzaroan, ezin berezirik. Ezin badek aztu, dioken bezela, maite detalako estuasun berean arkitzen nauk ni. Ustegabeen sartu zaidana. Ametsetatik esnatzean, goizero zearo lotua geratzen nauk. Zoritxarrez, neretzat itxaropenik gabea gaiñera, baldin-ta bere borondatez irekiko kate ori ez badu austen. Eta beti elkarrekin emen ibilli bear. Askotan batera ikusi zaituztet, serio xamar baiña. Ori ez dek nere egitekoa. Ezta irea ere. Neskak zeukak azkene-

ko itza, aske-aske emana gaiñera. Il arte bere aldamenean bizi bear duena aukeratzeko, ondo kontuak ateratzea al dizkik.

–Erriko bikarioak bezela itzegiten dek, motell.

–Eta zergatik ez? Biotza lasai daukadanaren itxura dek ori. Ni ez nagoela, alegia, iñorekin itxutuegia. Errespetatu bakoitzaren askatasuna. Txakurrak ere egiten ditek orrenbeste. Ori beste batekin joango baltiz, naigabe artuko nitek. Baiña ni ez niñuke, i bezela, indarkerian asiko. Aukeratzen duenarekin izan dedilla zoriontsua. Ni, berriz, beste baten billa.

Adarra jotzen ari zitzaion Josetxo. Besteak, berriz, gaztearen itzegiteko modua ezin burutuz, ala erantzun zion:

–Ezagun dek maitatzea zer dan ez dakikela. Gazteegia aiz ortarako.

–Ik bai al dakik? Ik dioken ori maitasuna al dek, edo erekoikeri galanta? Arek utzi aulako, gorrotoan artu dek, eta amorruez; eta, dagoeneko, ura galdu nairik abil. Eta seguru bazekit ura ez litzakela sekula irekin zoriontsua izango.

–Nor zebillek ura galdu nairik?

–Zertan ator orduan neri kargu artzera, berak nerekin nai badu? Alperrik izango dituk ire zemaiak. Nik ez dit atzerarik egingo, gure etxerako emakume jatorragorik ezin litekek arkitu ta. Gaixoa beldurrak aidean darabilkik. Ez ote du berak nai duena aukeratzeko eskubiderik-edo?

–Utziok neskaxa orri pakean, neretzat aukeratua zeukat eta.

–Eta berak i utzi ta ni aukeratzen banau? Txalaren bat dala uste al dek, ire gogozkoa dala ta erosteko? Ez dek, ordea, ire borondatea aski, besteak ere badik berea. Ezetz esaten badu, ire asmoak uts geratuko dituk. Maitasuna aldakorra dek, baiña itxua. Berekoikeria, berriz, gorrotoaren urbil xamar dagoe-

na. I baiño ni ohea iruditzen bazaio, zergatik ez niok ni maite bear?

–Esan litekek oraindik amaren magaletik ez aize-la atera, ta non ikasi dituk esaera zorrotz oiek?

–Motell, eskola izugarririk etzeukat. Baiña irakurtzen detana nere buruan geratzen dek. Asteroko *Argia*-k eta urteroko Arantzazuko egutegiak dakartena dek nere jakinduria. I lenago mundura etorri baintzan ere, amaren magaletik ia ni lenago atera niñuan. Berrak erakutsita bizi nauk. Utzi bakoitzaren askatasunari, eta zalantzarik gabe denok asmatuko diagu.

–Arrazoi dek. Orrek ala bear likek. Baiña, bada ez bada, ez adilla nere bidean jarri, eta obeto aterako aiz.

–Arazo au zuzen epaitzeko, espatsuegi abil. Len ere esan dit. Ez dek ere burua besterik ikusten. Laguna lertuko badek ere, ire ona lenengo nai uke. Irekin ezkondua balego bezela itzegiten dek. Nik utziko banu ere, uste al dek irekin ezkonduko litzakela? Bein aotik goitika bota duena jaten ez al dek asiko berriro. Kristalezko kutxan bizi bearko likek, irekin ez utsegitezkeroz, beste iñorekin itzegiteko beldurrak. Baiña zertarako ator neri zemaika, ni izutuko naukelakoan? Ez abil leku txarrean. Bi beso zauli ta sendo nerekin zeramazkit, eta baserriko eguneroko betiko lanean zaildua negok. Ez adi, bada, begi luzeegi izan, Pelipe. Laster artuko uke nere erantzuna. Gauden, bada, bakoitza bere lekuan.

–Nik jenio kaxkarra detala, baiña ik ez dek askoz ohea.

–Nik ez dit okasiorik nai, eta abisatzen duena ez omen dek lapurra.

–Ik utziok neskari, eta biok pakean biziko gaituk.

–Len ere esan dit: ori Joanitaren esku zegok. Eta au izan dedilla lenengo ta azkenekoa. Bestela, Josetxo nor dan laster ikasiko dek. Nik zuen berri etzekit, ik emen kontatu didakena besterik, eta ez dit

ezertxo ere jakin nai. Ik ez didak zer egin eta non barrena joan bear detan erakutsiko. Aolku emale geiegi zebillek nere inguruan. I jarri aiz nere bidean. Neskarekin zerbait badek, konpondu adi arekin. Eta i utzi ta neregana baletor, nik lagunduko ziot.

–Ni ez nauk aari-jokora etorri.

–Ire zemai ta desapioak baietz ziruditek. Bestela, zertara ator i oneraiño? Neri kargu artzera? Eskasagoa nintzala igerri baion, proba txiki bat egin gabe ez intzan i emendik joango. Aari gogortxoegia azaldu zaik aurrera.

–Suzko armak asmatu zituzten ezkeru, indarrak gutxi balio dik.

–Arekin ere ik ainbeste egingo nitek. Orain ari nauk soldaduzkarako ikastaldiak egiten, eta buru egiten duten guziak arrituta zeudek: begia jartzen detan lekuan sartzen dala. Eta oraindik ez nauk asi besterik egin. Arrika, berriz, etzeukak etsairik inguru ontan. Baiña batez ere arrazoia oso-osorik nik detala. Zuen arazo ortan, bada, ez dit naastu nai, eta utzidak neri pakean.

–Utziok orduan ik ere neskari.

–Zer deabru sartu zaik buruan? Amar aldiz esan dit onuzkeru ez diodala bein ere ortaz itzegin. Ezta nai duen bidetik joan galerazi ere. I baiño ni atsegiñagoa bazaio, zer nai uke: arpegia itxusitzea, bi belarriak moztuta edo? Egunero bi aldiz arek eta nik emen itzegin bearra zeukagu, eta biok gazteak; eta ortik aurrera ixilik eta uste gabeen sartzen dana izan bear dik maitasunak.

–Iru urteko jardunean biotzean zeukat nik ori, eta etzakala txoratu arazi.

–Ni ez nauk ire asmoen aurka. Baiña mutil gazte baten maitasuna neska gazte baten biotzean sartzen erreza izan bear dik. Ateratzen, ordea, zaillagoa noski. Orri etzegok ataka jartzerik.

–Ezagutu aun ezkeru okertu dek ori.

–Ik ateratzen dizkiguk eltzetik babak. Nik ere biotzean zeukat, baiña pazientzia. Berak ez badu nerekin nai, zer egingo ziogu? Dijoala nai duenarekin. Biontzat obe. Ni ez nauk pistola artu ta beartzera joango. Indarrean egiten dan ezkontzak ezin lezakek ondoren onik ekarri famelira. Berea dek azkeneko itza. Bein baiño geiagotan esan dit, eta ez nitek beti arazo onen gora-beera berriketan jardun nai. Bitartean, ixillean maitatu.

–Nerekin ez badu nai, ez dek, bada, besterekin ezkonduko.

–Ori, motell, zemai ikaragarria dek gero, Pelipe. Oraintxe bertan ertzaiñari salatzeke modukoa. Arestian ez didak esan ez aizela aari-jokora etorri? Ume-keri bat uke orren ondoan. Bazirudik, motell, ura ire puska bat dala, ire jolaserako alegia, ta nai ta nai ez iretzat bear duena.

–Ni galduko nauk, baiña beste bat aurretik eramanta.

–Ori oraindik zemai gaiztoagoa dek. Nor dek beste ori? Agian ni edo neska. Nik ere badit gero arma; eta, len esan ditenez, oso tiralari ona nauk. Neskak ere badizkik gurasoak. Anaiak, beren bizia emateraiño babestuko lutekenak. Txakurraren ortzetan untxia bezela ezin utziko diagu.

–Etzidak batere ajolik. Il bear banauzute, il. Baiña norbait aurretik eraman ta gero. Ni ez nauk orrela biziko.

–Orren ere bizimoduz etsia baabil, zergatik ez dek Ameriketa aldera aldegiten?

–Ez likek norbaitek parra gaizki egingo.

–Erruki aut benetan, Pelipe. Egitan ari baaiz beinpein, inpernu berean bizi aiz. Neri etzaidak iñor orren barruraiño sartuko. Eta nork dizkik erruak? Neskak bakarrak ez. Ik ere bai, geienak gaiñera. Arek utzi baau, bere arrazoiak izango dizkik; eta ik

esaten dituken auek entzuten baditu, geiago oraindik, eskubide osoarekin. Etzekit itz emanak zeraten ere. Zerekin sendatzen dan badakik. Baiña, zoritxarrez, ik indarkerira jotzen dek.

–Sendatu? Nola?

–Neskak ezetza eman zin egunetik utzi bauan, eta alegiñak egin aztutzeraz, ero bat bezela atzetik ibili gabe, aurrenetik suprituko uan, baiña bai onuzkero lasaitu ere. Bestela, len esan ditena: Ameriketara joan.

–Ik ez dakik maitasunaren berri.

–Egia diok. Baiña ez ik ere. Utzi aulako erotzeraiño sumindu? Itxura ez badek egiten beiñepein, burutik egiña ago. Ez diok arrazoiari lekurik ematen. Maitasun ortaz, Pelipe, nik ez dit sinisten.

–Nai dekan bezela pentsatu. Nik izango dizkit nere erruak. Baiña ik eta neskak zalantzarik gabe geienak.

–Or bi zemai zetozek batera noski: bat neretzat eta bestea arentzat. Nik ez badet uzten, il egingo dekala alegia, ta errudun ni izango nintzakela. Ez, Pelipe. Arrazoi orrek ez dik batere balio. Ire eziñaren errua besteri ezarri nai diok. Nik etzeukat oraindik arazo orrekin zer ikusirik. Ura ere, jakiña, berak nai duenaren atzetik ibiliko dek. Bere zorionaren billa saiatzea ez ote du arrazoi?

–Erakutsiko ziot nik orri nola ibilli. Mutilla kale gorrian bakarrik utzi ta iges egiteko etzegok eskubiderik.

–Len ere esan dit maitasuna itxua dala. Ik beste bat ohea billatuko bau, oni jarraituko al ioke?

–Ori etzekiagu.

–Neskak utzitako mutil zaarretik baiño, mutillak nai duen bezela jolastu ondoren utzitako neska zaarretik geiago zegok, bai, mundu ontan.

–Ik arrazoiak aixa baiezten dituk beiñepein.

–Irea garbi ikusia zegok, ere burua besterik ez dek maite ta.

–Nik etziot, bada, barkatuko, ezertarako borondaterik ez detala eroria utzia niok eta.

–Alazankoa! Iltzeko griñak ez dizkik, bada, kendu? Gaiñera, zer barkatu bear diok ari, aingeru batek baiño erru geiago etzeukak eta?

–Nai dekana esan zak. Nik ez dit atzerarik egingo.

–Or zegok, bada, koska: ez dekala amorrik eman nai. Zenbat eta geiago aren atzetik ibili, orduan eta okerrago irearekin atera nai uke, eta ez dek iritxiko. Eta kobarde utsa aiz, orri ezer egiten badiok.

–Etzaidakela neri olako arrazoirik eman.

–Baita bein ta milla aldiz ere, orri olakorik egiten badiok, bere burua ezin zaindu duen neska gizarajo bati. Utziok pakean, askea dek eta. Ura aurretik eramanean ta bizirik geratuko baintza, berriz, norbaitek emango likek merezi dekana.

–Agian ik?

–Ori ere balitekek, baiña ni baiño aurreragokoak badituk. Itza ta putza ari aiz, baiña ez dit ezer ere sinisten. Neska izutzeagatik guzia.

–Tartean jartzen baaiz, baita i ere.

Josetxok beso ondotik eldu zion eta zilipurdika bota zuen.

–Gizona baintza, bertan itoko iñuket. Ez adilla geiago nere aurrean jarri.

–*¡Santo Dios!* Au ez dek ortara geratuko! –oiu egiñez, lasterka aldegin zuan andik.

Benetan artaz urrikaldua, atzetik begira egon zitzaien Josetxo.

OTSOA JOAN TA ARDIA ETORRI

Ura beera ezkututzen ikusi zuenean, lasterka batean karrikotxera joan ta bereala azaldu zan Joanita. Ezer ez baleki bezela, galdetu zion:

–Nor zenduen ori?

–Ez al dezu ezagutu? Pelipe, zure biotzeko nobio goxo ura, neri kargu artzera etorria.

–Lengoan zerbait aipatu zidan, bai. Neri, berriz, zuri esatea aztu.

–Barkatua dago. Etzenduen pekatu izugarririk egin. Eta, berezi eziñik, oraindik orrekin al zabilta?

–Jainkoagatik zaude ixilik, Josetxo, ospela daukadan zaiña zapaldu didazu ta. Ez dit ateratzen uzten. Joaten banaiz, berriz, jai-arratsalde guzian elkarrekin itzik egin gabe. Ni nora, ura ere ara, beti nere atzetik. Espaloiz aldatzen banaiz, ori ere bai. Zerbait artzera-edo nonbait sartzen banaiz, ori ere bai. Norbaitekin izketan geratzean, arek aldegin arte ori aldamenean, pazientzi osoan itxuraz baiñepein. Ez dakit bere biotz kaxkar ura nola edukiko duen. Nere txakur bat neri laguntzeko jarraika dabilkidana dirudi. Orixe da, nai ta ere, nere ondotik ezin kendua. Azkeneko agurra egin nion, baiña orrentzat baietza eman banio bezela. Eta konpondu al zerate?

–Orrekin konpondu? Il ta ere ez diola ajolik esan dit, zu aurretik eraman ezkeru. Eta zuri laguntzen asten banaiz, zure martxa eramango detala nik ere. Katsua aleena! Azkenean sutu naiz eta beso ondolik artuz zilipurdika bota det, eta geiago nere bidera ez azaltzeko. Ez digula pakean utziko. Zutitu ta «¡Santo Dios! Au ez dek ortara geratuko!» oiuka joan da. «Konpondu» diozu? Sekula baiño okerrago geratu gera. Bazabiltzake erne. Ni ere bai. Arekin ez ezkontzezkerok, ezta besterekin ere esan dit. Atarramentu onean sartzen gaitu orrek. Zu, berriz, Joanita, sekula baiño beranduago zabilta. Ez ote diguzu gero zeleta txikiren bat egin eta gure elkar-izketa guzia entzun?

Neskaren arpegia zerbait gorritu egin zan, eta ala erantzun zion:

–Zuek noiz bereziko zai orrenbeste denboran, zerbait egin bear nuen.

–Barkatu –esan zion mutillak–. Ez dit batere ajolik, baizik-eta naiago det entzun dezun. Berdin zuri min emango dizun itz bat ere ez det uste esan detanik. Orain nere berri ere badakizu ondo. Ortik aurrerakoa zure esku dago.

Neska zerbait lotsatua geratu zan, baiña kontentutu.

–«Konpondu» diozu? –Josetxok berrero buruari eragiñaz–. Zerbait autsi al degu? «Zer zekit nik zuen arteko berri?» esan diot. Ume bat banintz bezela, alajainkia, zurekin emen egon ta itzegitea ere galerazi nai zidan. Desapioka jetxi da, igo baiño umillago. Iñori kargu artu bear badio, artzeko muzin egin diolari.

Baiña neskak, zer itzegin zuten etzion galdetu. Dena entzun baizuen. Orain bazekien Josetxoren berri. Biotzean zeukala, alegia. Ortik aurrerakoa laster egingo zuten, besteak bitartean ez bazien azio txak

rren bat egiten. Beste egokiera obeagoren baten zai ez ote zegoen gero otsoa?

–Orrekin erne ibili bearra daukagu biok, Joanita. Zakur amorratua baiño ere gaiztoagoa dabil. Isatsa zapaldutako subegorria dirudi. Erotu baten begiak dirdiraka darabilzki, lo paltan gorrituak, bere ezpain oker aiek daldaraka. «Neretzako ez bada, besteren-tzako ere ez!» bi aldiz esan dit. Gozoa joan da. Nere odolak ere azkenerako irakin dute, bada, nik ortan zer ikusirik ez ta neri kargu artzera etorri zaidalako. Umeren bat naizela uste al du, oi u bat edo birekin ni bildurtuko nauelakoan? Alare, ondo itzegiñarekin ez da ezer ere galtzen.

–Orduan, etsipena artuta dabil?

–Bai; baiña ez erretiratzeko asmoan. Gaizkirako joera ori da txarra. Ero gaizto oietako bat bezela, agian erabaki biurriren bat artua, egokiera on baten zai. Gau ta egun ezin omen zaitula burutik kendu, ta zu arena izateko itxaropenik gabe. Olaxe dabil gizarajoa.

–Bai. Benetan gizarajoa, baiña pasako zaio.

–Bere buruari gogor egingo balio, bai. Zure atzetik orrela badabil, ez, ordea, Baliteke izutzeagatik oiuka aritzea ere. Begi aiek, beiñepein, amorruz begirutzen zuten. Lorik ezagatik erdi gorrituak darabilzki. Baiña ez naiz zure iritzikoa. Ordurik ordu gorroto ori azitzen joango zaio. Bere baitan onuzkero gutakoren batzuk tiroz josi ditu. Erne ibiltzea al daukazu. Nik ere bai. Ez dakit odolik ixuri gabe bukatuko dan zuek biak elkarrekin daukazuten auzi larri au. Ez dizut zu izutzeagatik esaten. Baiña, al badezu, ez bein ere bakarrik ibili. Jakiña, ni ere arraixku berean nago, ni naizelako berezi omen zerate ta.

–Ortarako asmoan baldin badabil, ni arrapatzen ez da zailla. Betiko bizimodua eramango det nik, goizeroko kalerako txangoa utzi gabe. Sasi tarteren

batetik garbitu nai banau, ez du egokieraren paltarik izango.

—Ondo pentsatu ezkeru, ikaragarria iruditzen zait ortaraiño gizon bat erotzea ere. Baiña beti pentsamentu bat bere buruan, eta ezin kendu. Orrela dabilenak, bere buruari arrazoi ematen dio. Edozeiñentzat ere zama gaiztoa izan bear du orrek.

—Eta zuri erasotzen badizu?

—Zuk bezelako arraixkua daukat. Baiña nerekin ez da ausartuko. Ez da orren burugabea. Arek ondo daki ortan ez detala kulparik. Ni ilko baniñu, bere burua galduko luke, eta zu aske geratuko ziñake. Arek, berriz, ez du zu besterentzat geratzerik nai. Iñori egitezkeroz, zuri erasoko dizu.

—Atarramentu onean jartzen gaitu orretzek.

—Nik garbi agertu diot ez naizela ezertan ere sartu. Bere erra eta gorroto gaiztoak zure aurka dauzka. Gogor jarri zaidanean, indarrez asteko asmoan, ortzak erakutsi dizkiot. Ez dala aari-jokora etorri esan dit. «Neretzat edo iñorentzat ez», ori du betiko leloa.

—Josetxo, nik ez diot ezer ere sinisten. Itza ta putza jardunagatik, ori ortan geratuko da. Trumoi otsa ugari, ta euririk ez.

—Obe. Ez naiz iñor galtzen ikusi-zale. Erasotzezkeroz, aulenari egingo dio. Ez baidu bestetarako baliu. Bizia maite badezu, bazabiltzake orrekin erne. Ez baidu atzera egin nai. Bere seta gaiztoari indar ta sua ematen dizkio. Badirudi berak mundu au bukatu nai duela. Baiña zurekin batera.

Izketan-izketan biak, eta serio, ustegabeen joan zitzaien denbora. Presaka tratu ta esne pixarrak karroxan artuz, bixi-bixi joan zan neska bere bidean, Pelipe aterako zitzaion beldurrak. Alare, etzuen uste Josetxok zion bezin amorratua zebillenik. Arrokeria noski dena.

Beste karroxa bat azaldu zitzaion zear-bidetik aurrera, eta elkarrekin joan ziran Donostiraiño. Baiña

urduri ta kezkaz betea. Entzun baizuen Josetxorekin edukitako elkar-izketa guzia.

Mutillaren biotzean ere etzan, bada, kezkarik palta. Erotutako baten begiratuak ziran Peliperenak.

Josetxo agurtu ta gainbeera zijoala, agertu zan berriro Pelipe. Neskak begiak erne zeramazkien eta urrutira ikusi zuen, arri kozkor baten gainean exerita nola zegoen, andik bidera ateratzeko asmoan noski neskarengana. Onek aurretik lagun bat zeraman, gizonetzkoa gainera. Etzan ausartu, baiña bai beraizik ere bistara azaldu, neska izutzeagatik. Ezkutatu zan arte, katamotza bezela egon zitzaion begira, agian egokiera ohea arkituko zuela pentsatuz, eta erabakia zeukana nola errezena burutu ikasten.

Orduan ori neskari umekeri bat iruditu zitzaion. Beste ezer egiteko kemenik etzeukan mutil gixaixo baten joera. Bera izutzeko asmakizun bat. Baiña oker zebillen. Bere neurriak artu bearrak zeuzkan. Bestela, bazterren batean gutxiena uste zuenean garbituko zuen.

Egunero, askotan bere eginbearrak utzita, ez lorik, ez jan, lotsa galdua, atsedetik ezin arturik, beti neska non arrapatuko zebillen Pelipe, onez edo txarrez bereganatu nairik; bere egoera larri artatik nola aterako.

Joanitak, lasai-itxurak egiten bazituen ere, orrela zebillen mutillarekin kontuz, gorrotoz ta amorruz zebillela antz ematen etzegoen zailla. Mutil gizarajoa-ren bizimodua ere tristea zan, bereak zituen kulparik geienak baiña. Gaitz orren sendagaia ere garratza zan, ta etzuen artu nai.

—Neretzat ez baaiz, ezta besterentzat ere!

Ori zan bere betiko leloa. Oldozpen orrek itxutua zeukan gure mutilla. Berdin etzeukan neskak baietza emango zion itxaropenik.

PELIPE

Pelipe mutil ura nor zan galdetuko didazute, eta arrazoi osoarekin. Orain arte azaldu danez, Joanitarren senargaia edo ala izan nai zuena. Ala agertzen zaigu beiñepein.

Sendi ugarikoa zan, anai-arreba asko zituena; eta mutilletan bera zan gazteena. Arreba bat bazuen txikiagoa.

Fameli estraiñoa zan au benetan. Ezagutu genduenok ala aitortzen degu. Ordurako bazituen iru edo lau anai-arreba illak, eta beste batzuk kanpora ezkonduak.

Bat, zaarrena beiñepein, parrandatik bizi zana. Atorrante utsa, etxe jakiñik gabekoa, mutil zaarra eta berezko ona. Zalantzarik gabe, denetan atsegiñena.

Amar-amabi egun non zebillen etzekitela igaro ondoren, noizbait, zikin-zikiña eta patrikan xentimorik gabe, azalduko zan etxera. Ama bizi zuen arte, onek artzen zuen. Ura il zanean, kito. Etxetik biali ta txabola zaarretan, tolairetan edo, errukituta, artzen zuten beren etxeetan. Lo egingo zuen. Jan ta jantzi ere bai. Zurruta ori zan bere pekatua, eta lan egiteko gogo gutxi. Beste gaiñerakoan, len esan dedanez, etxe artako seniderik atsegiñena, eta mundu ontan

urterik geiena igaro zituena. Zurrutak etzuen berealakoan ondatu.

Neska gazteren batengatik tiroka asiko zan gizona etzan ura. Eman ari zurrut gaia, bai, ta etzuen bazterretan iskanbil aundirik jarriko. Txirritaren irizikoa zan ura ere: «ardoa maitatzen det andrearen partez». Zergatik etzan ezkondu galdetzen ziotenean, bertso orrekin erantzuten zuen.

Gogoan det, bein mezetatik etxera gentozela, ura ere gau pasa egin ta zurrutatik etorria zan, baiña gurekin batera meza entzun zuen. Ni ere tartean nintzan. Baita nere anai bat ere, adarjotzaillea, ortarako egiña. Berezkoa zuen ori. Negua zan. Euria ta aizea, illuna zegoen benetan. Erdaldunen batekin eztabaidaren bat edukia noski ardangelaren batean. Edana zegoenean, «Gora Euskadi!» besterik etzeukan arek mingaiñean. Beste gaiñerakoan, politikaren ajola gutxi zion; eta arek bezela ibili bear zuen bati etziztaion komeni.

–Beeko erri ortan ia mutur joka asi zorian ibili nauk –esan zuen.

–Zer dala ta? –galdetu zion anaiak.

–Nik «Gora Euskadi!» esan ta erdaldun bat asarretu zaidalako.

–Jakiña! Erdaldun bati «Gora Euskadi!» nola esango zenion, bada?

–Zergatik ez? Gurea ez al dek, bada, au?

–Nola esan zenion, bada, zuk «Gora Euskadi!»?

–Olaxe.

Eta ain biguñia ta zaulia zegoen mutil zaar ura, bat-batean makurtu ta ipurdiarekin bideko ur putzua zapalduz, jauzi ta zutitu zan, gure buruen gaiñetik ur zipristiñak aidatzen zituela.

–Olaxe –oiu egin zuen berriro.

Andik aurrera, zaarrak putzurik geienetan etxera bitartean egiten zuen jinasi ori bera. Illun zegoen eta

eguraldi kaxkarra. Bide ertzeko argietara putzuaren dizdira ikustean, anaiak galdetuko zion:

–«Gora Euskadi!» nola oi u egiten zenion zuk ari?

–Olaxe.

Makurtu ta jauzi egingo zuen, ur zipristiñak aida-tuz. Galtz ipurdi goxoak eramango zituen etxera.

Parranda ta guzi, bere anai-arrebetan mundu aldirik luzeena igarotakoa au zala uste det.

Beste anai guziak jenio kaskarrekoak ziran, eta maltzurak. Pelipe, batez ere. Gazteena izan arren, au zegoen etxerako. Baiña beste anai bat, ordurako ez-kondua, irrikitan leku bererako. Mutil moxtaka xabal bat zan au. Beste senide guziak bezela, gogorra. Zeukan gorputzerako, indartsua. Bizia, baiña jenio kaskarrekoa.

Baserri ederrean bizi ziran, baiña maizterrak. Alare, nagusia aberatsa, ona ta oparoa zuten. Urtean errenta lege bat ordaindu ta askatasun osoa zeukaten bertako baso ta puskekin. Etzan, bada, arritzekoa ez-kondua ere baserri aren atzetik ibiltzea. Zaarragoa zan gaiñera, eta Joanitaren aizparekin ezkondua. Etziran, bada, bi anaiak elkarrekin ondo etortzen.

Pelipek ezaugarri batzuk bazituen. Ezkerreko sorbaldari maiz gora-beeran eragiten zion, eta alderdi ortako begiarekin keiñua ugari, musean bezela.

Bere amarekin bakarrik bizi zan baserrian, eta emakume baten bear gorria zeukaten. Baiña ama be-
ra ere zaarragoaren alde zegoen. Askoz gozoagoa, emakume on batekin ezkondua, ordurako semetxo bat ere bazuten, eta baserrian bakarrik geratzen zan amonarentzat bizi erdia zan ori.

Denak Peliperi beldurra zioten, ez indartsua zala-ko. Gaiztoz ta maltzurrez inguru guzian ezaguna bai-zan.

–Bide bazter batetik sutzeko ere ohea dek ori

–bein baiño geiagotan entzun nien ori auzokoei, arekin okasioren bat izan ta gero.

Etzan, bada, oso gizon atsegin oietakoa. Gizartekoa ere ez noski. Edan gaiztokoa. Itzetik ortzera desapioa besterik etzeukan oietakoa. Aren ondoan ama xaarrak bai, pagatu zuen larrutik.

Aste guzian mando batek bezela egingo zuen lana mutillak. Baiña igande ta jaietan utzi ari lasai. Askatasun-zalea zan, beretzako beiñepein. Berandu bederen, berak egingo zituen ukuilluko lanak. Bartzuetan, ordea, ama gaixoa pazientzitik atera ta bakarrik, aspaldian alargun, illundu ta orduak eta orduak semea noiz etorriko zai. Azienda ukuilluan marruka, eta berak jezten jakin ez.

Luzetetsirik, arrats batean auzoko morroia deitu zuen, semea etzala ageri ta ukuilluko lanak egitera ea mesedez etorriko al zan.

Au, amonatzaz urrikalduta, azaldu zan. Ia lanak bukatu zituen orduan, Pelipe ere bai, zurrutak erabat gaiztotua; eta auzoko morroia, danik borondaterik onenarekin, ukuilluko lanak egiten arkitu zuen.

–Nork deitu au? Guk ez diagu morroi bearrik –eraso zion, asarre.

–Ire ama joan dek gure etxera erdi negarrez, eta arek esan ta etorri nauk, urrikalduta. Oraintxe bukaeran niñun.

–Ik ez dek kulparik. Ez berriz etorri gero onera.

Eskerrak eman bearrean, aurrean biali zuan andik. Ama azaldu zan orduan sukaldetik oiuka:

–Nik deituta etorri dek ori, bei gaixoak lertu baiño len zerbait egiteko.

Semeak, errespeto gutxirekin, gorotz-pillara bota zuen.

–Seme biurria aleena! Amari ere ez al diok begirunerik?

Au erritan asi zan orduko, semeak eskuan zerman pazi esnea bota zion amari burutik beera.

–Urrengorako eskarmentua badakizu. Ez iñor kanpokorik deitu ukuilluko lanak egitera. Ni bakarrik aski naiz ortarako.

Gorputz guzitik esnea zeriola, ama gaixoa semea madarikatuz bere gelara joan zan jantziak aldatzera, onela ziola:

–Au ere badegu! Au ere badegu!

Joanitik ori dena ikasten zuen, bere koñado Peli-peren anaiak esanta. Len zerbait nai izan balio ere, azpi-jan orrekin oztutzen zijoan bere maitasuna. Orain ama orrela bazerabilkien, zer etzion egingo gero berari?

Bi anaiak maltzurak baziran ere, zaarrena billauena noski. Baiña mingain legunekoa eta amarekin askoz gozoagoa.

Len esan degunez, beste guziak aldegin ta gazteena zegoen baserrirako aukeratua. Baiña ezkondu-tako anaiak ere irrika zuen etxe ori. Bestela, nora joan etzekien. Beste baserriren bat billatu bearko zuen. Ez baizeukan nekazari beste opiziorik. Eta be-
ra ere etzan trapu zuzena.

NAASPILLAK

Zaarrena ezkondu zanean, bada, an zan, eztaietarra joana, bere anai Pelipe ere. Joanita berdin, ezkondu zanaren aizpa gazteena. An azaldu zan mutilla ere, eta ala bear ta elkarren ondoan tokatu bazkari-tan. Pelipek ogei ta sei bat urte zituen. Joanitak, amasei bete gabeak. Ordutik egin ziran biak adiskide.

Mutillari begietatik sartu zitzaion, eta asi zuten beren biozkeria. Gero neskak arpegira bota ziona: ume bat zala bera, gizon batekin jolasean asi zanean. Iru urtean elkarrekin ibili ziran. Poliki-poliki, ordea, urteak igaro alean, berotu bearrean, neska oztutzen ari zitzaion, Josetxo ezagutu baiño askoz lenagotik gaiñera. Orregatik mutillak, Pelipek, zirikatzen zuen ezkontzera:

–Zer egiten diñagu orrela atzera-aurreraka? Nai ta nai ez, baserrian neska gazte bat bear diñagu.

Neskaren erantzuna betikoa zan:

–Pauso ori eman baiño len, ondo pentsatuko det.

Mutillak bazekien, zenbat eta geiago pentsatu, beren ezkontza atzeraka joango zala. Ez baizuen arekin Joanitak bere etorkizuna ondo ikusten. Neskak,

berriz, ori dena koñadoari kontatzen zion. Onen betiko leloa:

–Kontuz, Joanita, zer egiten dezun. Ura ogei ta sei urtez gora dijoa. Zuk oraindik amasei dituzu. Zure ondoan zaarra ta kaskarra da ura. Ez presaka ibili. Arek orain ezkondu nai badu, billa dezala beste bat bere modukoa.

Ori dena ikusten zuen egia zala. Nolako parrandak egiten zituen eta amari nolako tratua ematen zion ikasi zuenean, neskak arekin austeko asmoak artu zituen. Josetxo ezagutu zuenean, berriz, kito. Bere adiñeko mutil eder bat, baserri bikain baten jabe, auzo-auzoan, ango aiton-amonak bereak balitu bezela maite zituen ta.

Ixtillu gaiztoak zeuzkan, bada, Pelipek. Bere onetatik ateratzeko naikoak. Noiz edo noiz neskak baietza emango zion itxaropenetan zegoela ikasi zuen Josetxoren berri. Etxea burutik beera erori bazitzaion ere, etzan zapalduago geratuko, bere burua galtzeraiño. Lagundu bearrean, denak batera guda egiten zioten. Baita bere anaiak ere.

Anaiari ezer esatea etzan ausartzen, berriz, andregaiak okerrago jarriko zitzaion beldurak. Azkenean, Josetxori eraso zion. Arek, ordea, ortan etzeukan kulparik.

Ama ere zirika. Bakarrik, zaartua, etxean martxarrik ikusten ez, berriz.

–Zaude ixilik, ama. Naiko lanak badarabilzkit nere buruarekin, andregaiak ere iges egin dit eta.

–Ez nauk batere arritzen. Iru urtean elkarrekin zabilzate atzera-aurreraka jolasean, ezkontzeko asmorik gabe, eta arek etsi. Neskarentzat txarra izaten dek ori: zaartu arte arekin orrela ibili eta gero utzi. Norako geratzen dek orduan neska gaixoa?

–Joanitak ez dauka orren beldurrik. Bikain askoa badauka billatua. Alare, errurik geienak nere anaiak

dauzka. Baserri onen atzetik dabil eta beti azpi-janean ari zaio neskari, zirika nere aurka.

Ezin zuen, bada, Pelipek, oker ori burutu. Gero ta gorroto aundiagoa ari zitzaion artzen. Iru urtean ala ibilita, bein neskak begiak zabaldu zituenean, elkarrekin itzik egin gabe, neska nora mutilla ara, bat espaloi batetik, bestea bestetik. Ezin bizitzeraíño etorria zegoen Pelipe. Alperrik zebillela jakin eta alare ezin utzi.

Mutillak bere erruak izango zituen, geienak noski; baiña bai neskak ere: ainbeste urtean itxaropentsu ibilita, bizimoduan sartzeko eskatu zionean, utzi. Inpernu berean, ekaitzaren mende, geratu zan mutilla.

Pelipe ta Bordatxo adiskide egin giñan ezkerok, iru bat urtean oso ondo konpondu giñan. Bere kezka guziak neri jaulkiko zizkidan. Baiña egun batetik bestera sekulako aldaketa egin zuen. Zakartu zan benetan. Bere kasa izketan askotan somatzen nuen.

–Zer gertatzen zaik? I, Pelipe, ez aiz leengoa –galdetu nion.

–Ik ez dakik arazo auen berri –esanez, utzi niñun.

«Nolako arazoak ote dira, bada, oiek?» nion nerekiko. Bein, ordea, bere onetatik aterea, ala esan zidan:

–Neska txatxu orrek utzi egin nau.

–Eta zer? Aukera ez daukak, bada?

–I lo ago oraindik –erantzun zidan.

Nik amasei bat urte banituen ordurako, eta eskarmenturik gabea aolku on batzuk emateko. Ala ere, arentzat dena alperrik zan. Ura itxutua zegoen bezela, mirari bat bear zan, aspaldian zer egin erabakia artua zeukan ta. Egunak ziran ura iltzen bizi zala.

Emendik aurrera kontatuko detan guzia, bere astakeria egin zuen arte, berarekin batean bizitua det nik. Ixtillurik gaiztoena, inpernua bera igaro zuen azkeneko amabostaldia. Baiña arek berea bukatu zuen

arte, nik erotzat jotzen nuen: neska txar batengatik, aukera edukita, aren amorruak zertatik zetozen. Arek ezin zuen bestetzaz itzegin. Gero, andik urteetara, begiak zabaldu zitzaizkidanean, antz eman nion etzi-tuela azkeneko illebete aiek goxo-goxoak pasa. Baiña orduan ere erotik puska bat bazuela arek. Bestela ezin zitekela ainbesteraiño itxutu.

Arek zer egin erabakia zeukan. Alare, asko ibiltzen zan batera ta bestera, garai batean lagun zitue-nekin, bere buruko oldozpenak aztu ta lagunak agurtzen. Baiña etzien esango zergatik zebillen ala. Berea egin zuenean, aiek arrituta geratu ziran: etziela artaz itz erditxo bat ere kontatu.

Ia egunero etortzen zan gure baserri aldera, nere anai ta nerekin itzegitera. Guk, arrituta, ala esaten genion:

–Motell, ez aiz gaizki bizi. Ez al daukak lanik?

–Nai duenak egin dezala. Ni ez nauk besterentzat ariko.

–Baserria saldu al dek edo?

–Denbora gutxi pasako dit or.

–Motell, olako baserririk...

–Egun gutxi barru or geratuko dek nai duenarentzat.

Gutxiena uste genduenean, daldaraka jarriko zan, eta onela esango zuen:

–*¡Santo Dios!* Au laster bukatuko dek! Onenbeste iseka ez dit burutuko! Joango nauk, baiña bestea aurretik bialita!

Amorratua balego bezela aldegingo zuen andik. Gurekin izketan zerbait lasaitzen zan. Aztu egingo zan bere egoeraz. Baiña berriro bururatzean noski, ari begiratzeak errukia ematen zuen.

Bere azken egun oietako batean topo egin nuen mutil orrekin gure baserri gaiñeko bidean, sega bizkarrean mendira zakar ebakitzera zijoala. Eskupeta

ere berekin zeraman, eiztari amorratua zan ta. Uso pasako garaia, giroa ere alakoa.

–Egun on. Goiz abil –agurtu nuen.

–Baita iri ere, Salbador. Goiz nabillega diok? Etziot antzik ematen goiza edo arratsa noiz dan. Lorik ezin dit egin, eta norabait aldegin.

–Parranda puskarren bat egingo uan ta...

–Ez, motell. Pelipe etzegok parrandarako. Beste arantzak zeuzkat biotzean, eta ezin atera dizkit.

–Orain, zakar ebakitzen, kenduko zaizkik.

–Ea barrurago sartzen zaizkidan.

Nik banekien –ainbeste aldiz aipatu al zizkidan, izan ere, bien gora-beerak– neskarekin asarretuta zebillela. Baiña alako buruaustek emango zizkionik ezta pentsatu ere. Ura artaz ezin zan aztu, ordea.

–Lan asko egiteko ez daramak lagun ona –esan nion eskupetarengatik.

–Arma daramadalako al diok?

–Bai. I ere, ni ezik, eiztaria izaki.

–Uso-pasaran gaituk. Askotan aurreko aldera etortzen zaizkit. Ez badek eskupetarik ekartzen... Naiago nitek nik dakidan uso bat etorriko balitz. Arixe bai eskupetako bi tiroak pozik sutuko nizkio-kela. Alare, zakar ebakitzeko asmoan natorrek. Iges egin dit etxetik. Nere buruko pentsamentu auei ezin, ordea.

–Etzegok lotarako edo atsedentzeko giro gozoa. Aize epel onekin, oatzean zaldaleak ugari ta lo gutxi. Baiña zakar ebakitzeko ere ez dek aproposa.

–Nere eziñak etzetozek ortik. Datozen egunen batzuk, gaiztoenetakoak izango dituk neretzat.

–Ondoezik al abil, bada?

–Bai. Baiña ez dek miña oiñazezkoa, naigabezkoa baizik. Eriotzak bestek sendatuko ez didana. Ik ezin dek oraindik ulertu. Denborarekin balitekek.

–Etzekit zer izan litezken olako gaitzak. Ez diz-

kit ezagutzen. Baiña orrela baabil, sega baiño zama aundiagoak badaramazkik irekin. Alare, gure naigabe ta oiñaze guziak eriotzak mozten dizkik. Nora oa?

–Zuek daukazenaren atzeko arkaitz artera. Ea lanak aztu arazten dizkidan buruan egosten dauzkan asmo deabruzko auk.

–Betiko aztu arazteko ere, bada, ez oa leku segurura.

–Zergatik diok ori?

–Ez al dituk entzuten or goiko tiro-ots oiek?

Arek zakarra ebakiko zuen inguru xamarrean, sutu ta sutu, soldaduak ari ziran ziruetara tiroka. Entrenatzeko egunak zituzten, egoarterik geienak an igarotzen zituztela, eguraldi txar eta on.

–Oiek urruti xamarreko tiroak dituk.

–Ez, motell. Gurearen muga-mugan zegok leku ori.

–Aizak: naiago nitek batek biotz-biotzean arrapatuko baniñu.

–Etsi ta ortaraiño eroria al ago?

–Bai. Baiña bat aurretik eramanta. Ez litekek bestela nere bizkar parra gaizki egingo –esan zuen daldaraka–. Alare, obe arrapatuko baniñu. Bestela, orrek egingo lidakena, neronek egin bearko ziot nere buruari.

Ori esan ta arin-arin aldapak gora joan zan, nere galderari itxogin gabe, etxetik lau bat kilometrora zeukaten zakardi batera.

Nik banekien –len ere esan det banekiela– nola zebillen. Baiña ezin ulertu nuen –oraindik gaztea izaki– neska batengatik nere lagunak zeraman kalbarioa. «Bat aurretik eramanta», neska izango zan ori. Ondoren, bere burua il. Ortaraiño nastu zitzaion bere burua Pelipe gizarajoari.

Urrengo eguna larunbata zan. Egun ortan, Katali-

ñeko kaxkora etortzen zan autobusa, Donostira tratu-karraio ibiltzen zana. Neroni joan nintzan zaarrago-ko anai batekin. An arkitu nuen Pelipe, aurretik joana; eta nere anaiarekin batera Donostirako bidea artu zuen. Ortarako zegoen, bada: tratua saltzeko eramatera. Ura aurrera ta ni etxerakoan, bi zaku eman zizkidan, esanaz:

–Mesedez, eraman itzik etxera. Ez deitu, denbora galtzea uke ta. Bota ate gaiñetik barrura. Norbaitek jasoko dizkik, nik ekarri ditudala bazekitek eta. Mundu ontan ez bagera geiago ikusten, agur, Salbador. Inpernurik bada, laster dek neretzat –eta daldaraka zeukan eskua luzatu zidan.

–Motell, biar bertan, meza ondoren, pilotan.

–Ez dek ori segurua izango.

–Kezketan uzten nauk, motell. Etzekit zer pentsatu. Oraindik gaztea, osasun aparta, Txoritokietako arkaitza baiño gogorragokoa, eta ordu batetik bestera inpernuko zulora eroriko baintzake bezela itzegiten didak. Erorrek jakingo dek ere buruaren berri.

–I oraindik gaztea aiz. Ez dakik bein biotzean ondo sartzen dana atera bearrak nola uzten duen gizona.

Aren itzak entzun nituenean, aurrez aurre begiratu ta antz eman nion lo-paltan itxi ere gabeko begi erreak zeuzkala, odoltsuak, gorrotoa zeriottenak. Gorputz guziak daldal egiten zion. Ezpaiñak ere berdin daldaraka. Alako urrikalpen bat sartu zitzaidan ondoraiño biotzean. Aspaldiko kontuak badira ere, oraindik aurrean ikusiko banu bezela nabaitzen det nere biotzean orduko errukia. Irurogei urte ta geiago dira au gertaturik. Egi-egia baida esaten ari nazaizutena.

Ezkerreko bizkarra jasotzeko oitura zeukan. Orduan maiz egiten zuen bere betiko keiñu edo imintzio ori.

Benetan urrikaldua geratu nintzan. Bala batek alderik alde biotza erdibitzea opa bazion bere buruari,

etzala arritzekoa ura: gizarajoa inpernu batean bizi izatea. Eta etzeukan egoera artatik ateratzeko gogorik. Il naiago zuen gizarajoak. Baiña bat aurretik eramanta.

Gero Ondarretan ikusi nituen alako arpegiak eta begiratuak. Iltzera zeramazkitenak ziran oiek.

Illebeteak izango ziran egiteko erabakia zeukala. Egunero ontzat artuko zuela gaiñera non ta nola, bere txeetasun guziekin. Nola etzan, bada, gizarajoa amorratua eta erotua biziko? Eriotzak bakarrak, mundu ontarako beiñepein, moztuko zion bere larritasun ura.

«Arek maite zuen neska besterik ez ote zegoen munduan?» nion nerekiko, ezin ulertuz gertatzen ziztaiona.

Ni, oraindik munduan igaro ditudan urterik zorionsuenetan bizi nintzan. Eñnatzeko adiña banuen, baiña iskanbil oietatik oraindik urrun.

Igandean ez nuan mezetan ikusi. Donostira joana izango zan.

DONOSTIKO BRETIXAN

Ikusi zuen batek esanta dakit azkeneko neska-mutillen agurra. Joanita, betiko oitura zuen bezela, esneak artzailleen artean zabaldu ta gero, Bretxako plazara joaten zan. Orduko baserritarrak Berdura Plaza esaten zioten. Ango sal-leku batean zegoen emakume bati ematen zizkion bere ta Josetxoren tratu pixarrak saltzeko.

Eguneroko oitura zuen noski ori. Saltzailleak eta neskak, bakoitzak zenbatean, beren eskeintza egingo zuten. Konpontzen ziranean, kobratu; ta Joanita etxera joango zan. Andik aurrera erosleak aginduko zuen, eta berak jarriko sal-neurria.

Pelipe, iru urte aietan neskaren berri ondo zekiena, onen etxera joan bearrean, plazara azalduko zan, arekin itzegiteko asmoan. Orduan beiñepein etzion neskari atsegin aundirik eman, baiña ondo artu zuen.

–Egun on, Joanita –agurtu zuen garratz.

–Baita zuri ere, Pelipe. Garai ontan emen? Etzera gaizki bizi.

–Erantzun zelebreak baditun, eta auxe den bat.

–Ori itxura gabeko erantzuna danik etzait iruditzen.

Baiña neskak ondo zekien ura zertara etorria zan.

Alare, itxura egin bear. Mutil ura aurrean ikuste utsak ozkia ematen zion eta urduri jartzen zuen, azken illebete aietan beiñepein.

–Ik badakin zertara etorri naizen.

–Garai auetan eta emen etzaitut bein ere ikusi, ta ez al daukazu beste lanik? Len ere esan dizut ni baiño obeto bizi zerala.

–Lanaren paltarik etzeukanat, baiña ez naun gauza.

–Min artu al dezu?

–Nik etzeukanat ik adarra jotzeko gogorik. Ik badakin, berriro esaten ari gabe, zertara natorren.

–Bai. Zoritxarrez, nere onerako ez beiñepein; eta nik ere ez daukat denbora alperrik galtzeko gogorik.

–Ez naun orrela ibiliko. Nere azken itza ematera natorren.

–Aspaldi ontan, ikusten nauzun guzietan, orixe esaten didazu.

–Oraingoa azkenekoa. Zer uste den: beti orrela ibiliko naizela?

–Ortan, Pelipe, ez iñori kulparik eman. Zerorrek nai dezulako zabilta, nere azkeneko itzaren berri aspaldi ontan badakizu ta.

–Nerea ere laster jakingo den, bada.

–Esan, esan. Berriro ere entzungo dizugu.

–Len ere badakin ondo.

Arpegi emateko gauza etzalako, eta arrazoi izpirik gabe, bere zemai eta desapio, lepotik gorago ere nazkatua zerabilkien neska.

–Elkarren berri ondo dakigun ezkerro, zertan zabilta orrela?

–Bizi-naiak nakarren.

–Orixe da, bada, nik biotz-biotzez opa dizudana: artzen dezun lagunarekin luzaro eta ondo bizi zaitzelazela.

–I gabe bizitzeak ez din merezi.

–Neretzat, berriz, beste batek dakarkit mundu ontako bizia eta zoriona. Zuk zer ikusi daukazu nerekin? Zure jolaserako puska bat naizela uste al dezu? Nik ere badet gero nere nortasuna. Indarrez ta gaiztoz geiagoa zeralako ni ez naiz makurtuko.

–Len ere esan diñat: ezin naun i gabe bizi.

–Eta nik zer egitea nai zenduke: zure kutizietarako nere burua eskeiñi ta saltzea? Zuk zure ona billatzeko eskubidea badaukazu, zergatik ez nik? Zurekin batera bizitzeko oso gogo gutxi daukat. Amaika aldiz esan dizut: beste bat daukat neretzat aukeratua. Ez ote det ortarako zuk ainbeste eskubide?

Etzien neskaren arrazoiei erantzuten. Bazekien ala zuela. Baiña besterena entzuteko gortua zegoen. Berea bakarra ikusten zuen. Ero gaiztotua, alegia; eta berea egin nai zuen, indarrez gaiñera.

–Larri ontan ni ez naun biziko geiago.

–Eta neri bizia kenduta lasaituko zerala uste al dezu?

Neskak beti goxo erantzuten zion, etzuen geiegi mindu nai ta.

–Erantzuien nere galderei.

Baiña azkenerako berotu zan Joanita ere.

–Or konpon! Nork galerazten dizu zure buruarekin nai dezuna egitea?

–Iñork ez. Orduan bukatuko uken nere mundu ontako inpernuua. Baiña i bizirik geratuko intzaken, iltzera eraman dekan onen bizkar lasai par egiñez. Baiña neretzat ez baaiz, ez besterentzat ere.

–Eta zuregana nor urbilduko da? Nerekikoa ere bukatu nai zenduke. Aurretik eraman nai nauzu orduan?

–Ori ere esku zegon.

–Nolako baldintzak jartzen dizkidazu?

–Milla bider esan diñat onuzkero: nerekin izatekotan.

–Ori, Pelipe, garestia da. Orrekin bukatzen al da zure azkeneko itza?

–Bai. Baiña, nai baden, biok biziko gaitun.

–Nik ere, bada, Pelipe, emana daukat nere azkeneko itza.

–Ik ditun nere azkeneko sei illebeteko buruauste guzien erruak.

–Zerekoikeri eta gogorkeriak ekarri zaituzte zauden egoera ortara.

–Utzion alperrikako berriketari. Nai den edo ez?

–Beti galdera berarekin zatoz. Amaika aldiz esan dizut ni nai detan bidetik joango naizela. Sei illebate onuzkero badira nere itxaropenetan ez bizitzeko esan nizula. Geroztik, zu nola zabiltzan ikusita, piñagoa da nere ezezkoa.

–Ondo zegon. Etzi arteko epea ematen diñat.

–Zergatik epe ori? Ni aldatuko naizelakoan? Aguretuko zera ordurako. Ez dezu etzi arte zai egon bearrik. Nai dezuna egizu orain bertan.

–Armaren puntan jartzean ez den orrela itzegingo.

–Aldegin zazu mesedez nere aurretik, deabruak baiño kontzientzi beltzagoa daukazu ta. Bestela, polizari abisatuko diot.

Sekulako masaillekoa tira zion, baiña etzuen arrapatu. Saltzen ari ziran emakumeren batzuek labanak eskuan artu zituzten neskari laguntzeko. Baiña neri gertakari onen berri eman zidana urbildu zan, arek biak ezagutzen zituen eta. Pelipek:

–Ondo zegon. Joango naun. Etzi arte. Ikusiko diñagu berdin erantzuten dekan armaren aurrean.

–Eskupetaren bi kañoiak bularretara jartzen badizkidazu ere, zuk beiñepein beti nere ezezkoa artuko dezu.

Gero ta amorratuago, ortzak karraskaka, aldegin zuen andik mutillak.

Joanita, berriz, kezka bete, negarrez geratu zan. Orain bai; sinisten zion Peliperi. Erotua, burutik joana zegoen, neska aurretik eraman ta bere buruari azkena emateko asmoan.

Josetxok arrazoi izango zuen: odolik ixuri gabe etzala auzi ori bukatuko. Eta nor eroriko? Lenengo bera beñepein, neska alegia. Etzeukan babesik; eta, zebillen bezela, errezagoa oraindik.

Bien tartean sartu zan mutillak Antonio zuen ize-na; eta, urrikalduz, ala esan zion neskari gutxi gorabera, bazekien gaizki zebiltzala ta:

–Baiña zer dezute zuek biak? Len ondo konpon-tzen ziñaten, bada.

–Eskerrik asko, Antonio. Bestela, etzidan etxera ere joaten utziko.

Itz gutxitan kontatu zion zerabilkien kalbarioa, eta etxera joateko beldurrak zegoela.

–Artu bear dituzunak artu eta goazen. Berdin zuen etxe aurretik igaro bear det, eta Josetxo dagoen lekuraiño nik lagunduko dizut.

Kontentu joan zan Joanita. Josetxo betiko lekuan arkitu zuen. Erruki ematen zion neskari, bere itxaropenetan biziko zan ta. Ortaraiño etsia zegoen neska. Arritu zan Josetxo, au beste mutil gazte batekin zetorrela ikusi zuenean.

–Egun on, Josetxo –agurtu zuen.

–Baita zuei ere. Zer gertatu zaizue? –galdetu zien.

–Ori Joanitak kontatuko dizu. Nik, bada ez bada, oneraiño lagundu diot, deabru baten atzaparretatik atera ta gero.

–Peliperen deabrukeriak orduan?

–Ori da. Erne ibili orrekin.

–Erotu da orduan.

–Eroak ez du erotu bearrik, beti izan da olakoa ta. Agur, bada, Josetxo eta Joanita. Presaka bainaiz. Baiña erne ibili.

–Plazara joan al zaizu?

–Ia egunero an det.

–Ama bakarrarekin bizi da ta.

–Egia. Baiña orren buruan ni besterik ez da bizi.

–Antoniok orko gora-beera guzia ikusiko zuen?

–Dena. Plazara joan naizenerako ikusi det. Baita lasaitu ere. Au nere lagun maite baten senargaia da. Baiña indartsu ikaragarria.

–Ez dezu esan bearrik. Ezagun du.

–Etorri ta asi zait, bada, betiko kontuekin. Azkenean nazkatu naiz ta ala esan diot: «Aldegin zazu nere aurretik deabru orrek. Arek baiño ere kontzientzi beltzagoa daukazu». Egundoko masaillekoa tira dit orduan, baiña ez nau arrapatu. Antoniok ikusi duenean, guregana urbildu da eta deabru zikin orrek aldegin du. Orduan onek, bidera atera litekela ta zu zauden lekuraiño lagundu dit. Orixe da guzia.

–Eta ez dizu zemairik egin?

–Asko jakin nai zenduke, Josetxo. Besterik egin al dit?

–Barkatu. Puntan zaude noski. Ez det besteren biotzeko ezkuturik jakin nai izaten. Baiña beldurrak itz egin arazten dit orrela. Esan nizun erne ibiltzeko. Kezkaz betea nago zuen eztabaida ori ez ote dan ondo bukatuko. Seguru baneki ortara dijoala, etxera joan ta lepoa biurtuko nioke.

Joanitari malkoak asi zitzaizkion eta Josetxok etzion beste galderarik egin. Bere trasteak artu zituen eta abian ala esan zion:

–Lasai zaite, agian zu beldurtzeagatik ariko da orrela ta.

Biotzeraiño sartu zitzaion neskari, maitasunez eta lagundu nairik eskatzen zionari, gertatzen zaiona

bear bezela ezin kontatua. Ero gaiztoari sinistu egin zion noski. Egia atera arazteko beldurrak, negarrari ematen zion, Josetxo galdezka asten zitzaionean. Bere igesbidea malkoak ziran. Bestela, dena kontatuko zion. Bai-baizekien egia jakitera mutillak bizia ere arraixkatuko zuela beragatik. Baiña armatua ta amorratua datorren baten aurrean iñor ez dabil seguru. Kontzientziak, berriz, etzion agintzen beragatik beste bat armaren puntan jartzea.

Etxean ere zerbait bazuela antz eman zioten. An ere, ordea, etzuen egia aitortu. Bera bakarrik joango zan, bada, arraixkuaren aurrera.

Bada ez bada, igande goizean aitortu eta Jauna artu zuen. Berarentzat illeroko lana, eta agian azkenekoa, elizakoak balira bezela. Biotza garbi edukitzeak etzion kalterik egingo. Zetorrena zetorrela, dena Jainkoaren esku utzi zuen.

Ertzaiñak jakiñaren gaiñean jartzeko ere ibili zan. Baiña zer aurreratuko zuen orrekin? Egun bazuetarako baziteken espetxeratzea. Joan-etorrian lagundu ere bai. Eta gero? Ezkutatu egin bearke zuen, eta beretzat okerrago. Sinistuko al zioten gaiñera? Ez baizeukan lekukorik. Josetxo edo anaietakoren bati esan ere bai. Baiña benetako arraixkua aientzat. Bere burua iltzeko dabillenari, zer ajola bear dio bat edo bestea il?

Etzion, bada, iñori ezer esango. Arkume bat bezela, bera joango zan etsaiaren aurrera, jakiñaren gaiñean.

SARRASKIA

Igandean, berriro Josetxok bere galderak egin zizkion. Baiña alperrik.

–Utzidazu pakean. Gertatu bear duena laster etorriko da.

–Baiña denbora joantako lantura ta negarrak ez digu balioko.

–Ez dago emakume-paltarik, eta bat gutxiagorekin ez du munduak asko galduko.

–Pelipek ez du, bada, orrela pentsatzen. Ezta besteak ere. Aske-askea zera ortarako, Joanita. Alare, ez al zaizu iruditzen agian besteren batzuei negar egin araziko diezula?

–Bai, Josetxo. Ori badakit. Eta biotza neronek ez ote daukat ala? Naiago det nere burua galdu, besteren batek neregatik galtzea baiño. Arek aurrean jartzen zaionari erasoko dio, bere aita jartzen bazaio ere.

Mutilla ixildu egin zan. Etzuen egunero neska negarrez ikusi nai. Biak elkar agurtuta, Joanitak al-dapak beera joan zan. Baiña Josetxok goiko kaskotik zaintzen zuen deabru ura, iñon azaltzen ote zan. Kariotxe geiago ere bazijoazen. Inguratu zuten eta etxera etorri zan mutilla.

Bueltarakoan etzuten ortaz itzegin, oroitze utsak biotza tristetzen zien ta. Baiña mutillak obeto zaitzea erabaki zuen. Pelipe ta Joanitaren artean Bretxan gertatuaren berri txeetasun guziekin eman baizion Antoniok. Karroxari jarraituko zion, zearretik baiño urrutixeagotik.

Alare, Josetxok etzuen sinisten Pelipek ori egingo zuenik. Izutzeagatik ari zala. Etzuen bestela baka- rrik utziko. Baiña neska sinistuta ta etsia zegoen.

Astelenean ere, zaitzeko asmoak artu zituen. Bai- ña ustegabeko laguntzarekin azaldu zan neska. Ori jakin zuenean, negar egin zuen Joanitak, aitonaren bizia arraixkuan ikusten baizuen.

Aitonak, arrats kaskarra igaro zuela ta sendagi- llearengana joateko asmoan lagunduko ziola illobari erriraiño beerakoan. Baita gorakoan ere. Al bazuen beiñepein, elkarrekin etorriko zirala.

Aitona xaarra zan. Zauli xamarra oraindik bere urteetarako, eta gizon aundia. Aoko miña zeukala edo. Baiña urteak ziran poliki-poliki minbiziak jaten ari zuela. Berak ere bazekien ori.

Peliperen zemaian berri billobak eman zion aito- nari; eta obe zuela, orduan beiñepein, etxean geratu.

–Ori sinisteko, mundualdi aundia pasa din aito- nak. Bideko elkar-izketa gozo oiek moztuko ote diz- kiten beldurra noski.

–Ez, aitona. Egia da. Gaur bukatzen zait emanda- ko epea.

–Utzien txatxukeri oiei eta goazeman. Une bate- tik bestera illa erortzeko arraixkuan bizi naun, eta bi- lloba gazte batengatik bizia ematea ez al den aintza- garri mundurako eta zerurako ere? Goazeman lasai.

Biak batera etorri ziran, bada, Josetxo zai zeuka- ten lekura, eta oni lasaitasun pixar bat eman zion. Oraindik aitonaren atzaparrak indar aundia zeukaten. Arekin zijoala, zaarraren errespetoz ere ez al zion erasoko.

Aitona oso gaixo zegoen. Baiña, aringarriren bat artuta-edo, berritxu xamarra zetorren.

–Auzoan bizi gaituk eta ez iñudan ezagutzen.

–Ez da arritzekoa. Nik ere etziñudan ezagutzen zu, ia bi urte emen daramazkidan arren. Beti lanpean bizi gera, ta etxeari lotuak.

–Mutil bikaiña ago. Edozeiñen ametsak betetze-ko modukoa. Nere aldameneko lore au bezelakoa bear uke etxean.

–Eskerrik asko. Itz gozoak zaizkit oiek. Zure aldamenekoak badauka, ordea, berea.

Len triste bazetorren, itz aiek entzunda tristeago jarri zan, beldurrak aidean zijoan ta.

–Etzekit. Gaur eskupetarekin bidera ateratzekoa duela esan zidak.

–Egia al da ori, Joanita? –galdetu zion urduri mutillak.

Neskak burua makurtu zuen eta ixilik geratu zan.

–Bai, umekeriak. Izutu egin nai bere andregaiia –zion aitonak.

–Kontuz orrekin, aitona. Pelipe ume petrala da gero. Sinistuko banu, zalantzarik gabe lagunduko nioke Joanitari. Alare, erne orrekin.

–Nor dezute mutil ori?

–Garagartza baserrikoa.

–Moztaka anka txabal bat?

–Uraxe bera.

–Uzteko ohea dek ura, artzeko baiño. Ire ondoan motxa den. Zaarra gaiñera. Bikote kaskarra egingo dezute. Aita-alaben itxura ohea daukazute. Txurrute-roa den gaiñera. Ura dabillen lekuan ez den okasio-rik palta. Arek alako lau balio den ik, Joanita.

Bitartean trasteak sartu zituzten. Baita neskari begiratu larri bat egin ere. Arek, ordea, begiak jetxi

egin zituen. Otoitzean ari zala zirudien, eta etzuen itzik atera. Aren ordaiñak aitonak esan zituen.

–Agur ta buelta arte, Jainkoak nai badu –muti-llak.

–Ori dek itzegitea. Dena aren esku zegok. Ez gaurko gizaldi berri onek bezela, «egun on, gabon, kaixo». Askotan okerragoa. Birao edo beste zikinke-riren bat. Ez ditek gazte auek gure leziorik ikasi.

Josetxoren itzegiteko moduak beste esan nai be-rezi bat zeraman. Aitonak etzion ulertu. Baiña on-doan larritua zijoanak bai.

Neska bakarrik izan bazan, karrikotxea ezkutatu arte lagunduko zion aldamenetik. Baiña aitona kar-roxan zeraman. Aren aurrean etzuen uste ezertan ere asiko zanik, zearo erotua ez bazetorren. Aiek aldapa beera joan ziran. Mutilla, berriz, etxera.

Erdi bidera baiño len ikusi zuen Joanitak Pelipe. Bai aitonak ere.

–Ikusten al den ura? –galdetu zion billobari.

–Eskupetarekin dator gaiñera. Esan dizut, bada, nik.

–Alua aleena! Txuxen-txuxen onera zetorren.

–Larunbatean gaur arteko epea eman zidan. Bal-din ezezkoa ematen banion, karroxan ilko niñula.

–Eta zer esan bear dion?

–Barkatu, aitona. Nik, ezezkoa. Il naiago det, galtzera datorren batekin ezkondu baiño. Eta obe-zenduke, bakarrik utziko baniñuzu.

–Nere kastako umea aunagu, Joanita. Ori den le-nengo: ire askatasuna, Jainkoak egin gaitun bezela-koak. Nik ere berdin esaten diñat: naiago detala il, i bakarrik utzi baiño. Ez den aitona ezagutzen. Emen-dik jetxiko nintzake bere bidera ateratzeko. Ori, or-dea, etzaigun komeni. Ni urbildu baiño len botako nioken. Ondoren, berriz, i. Karrikotxean babestuko gaitun. Baiña bietan bat eroriko den.

–Nik abisoa eman dizut, aitona.

–Ondo egin den. Ori, billoba, sinistu banuen ere, lagunduko niñan. Ez intzanen bakarrik geratuko.

–Ori zuzen guregana dator.

–Bai. Ikusten diñat. Amorratua gaiñera.

–Jetxi zaite, aitona. Neregatik jarri bear al dezu arraixkuan zere burua? Orren egitekoak nerekin dira.

–Ai, Joanita! Ez dakin zenbat maite auten. Nere zakarkeri guziak pazientzian eraman ditun orain arte, eta beti laguntzeko prest. Nere biziak oraintxe gutxi balio din. Minbiziak josia zeukanat gorputza. Egun batetik bestera, edozein lekutan, uste gabean erortzeko moduan nabillen. Agian, i emen galduko baintzaken, ire aldamenean illa geratuko niñuken ni ere. Nik bete diñat mundu ontan nere eginkizuna. Orain den zuen garaia. Ez niken lotsagabekeri txikia egingo, i emen bakarrik utzi ta aldegingo banu. Gaztea banintz ere, arraixkatuko niken iregatik nere bizia.

Aitona ixilik geratu zan, larritasun artan zer egin ezin pentsaturik. Jetxi, beiñepein, ezta pentsatu ere.

Bere ibillera baldarrean, amorratua, lurrera begira, bere baitara bildua, neska ta bere burua galtzeko erabakia artuta, karroxaren ondora, ia jotzeraiño, neskaren aldetik urbildu zitzaien Pelipe –arek zeuzkan zaldiaren edeak–, bere eskupeta Joanitari bularretara zuzenduz.

–Zer deabru egiten dek ik emen? –eraso zion aitonak.

Ero gaiztoak etzion begiratu ere. Illebete aietan burutik joan etzitzaizkion oldozpenak zerabilzkie buruan. Alare, antz ematen erreza zan, aitona Joanitarekin etorriak etziola atsegin aundirik eman. Ez baizuen lekukorik nai. Ordurako, gaiñera, inguruko baratzetan nekazariak lanean asiak ziran. Askok, beiñepein, bazekiten aspaldi artan neska-mutillak etzebiltzala ondo, eta ero gaizto ura eskupetarekin karroxaren ondoan ikusi zuteneko, txarrena pentsatu zu-

ten. Iltzailleak, bada, bere erabakiak betetzezkeroz, presaka zeukan ibili bearra. Kirio guziak aidatuak zerabilzkien, bada.

–Epea iritxi den –esan zion neskari, gorputz guziak daldal egiten ziola.

–Zer epe ta epaiondo? Ez al degu agurrik ere merezi? –oiu egin zion aitonak.

–Nik onekin ditut kontuak, ez zurekin! –erantzun zion Pelipek amorruez, bere begietatik sua zeriola.

–Nik, berriz, irekin! Aizak: ken zak eskupeta ori neskaren paretik!

Pelipe, ordea, berean zegoen.

–Ez al didan erantzun bear?

Joanita gaixoak, ia bere onetatik aterea, negarrari eman zion –etzan gutxiagotarako–, eskubide guzien aurka, bere adiñik onenean, basati baten armapean erori bearko zuela-ta. Alare onela esan zion:

–Zeri erantzun bear diot, Pelipe?

–Baietzean edo ezetzean agon.

–Ni, beti bezela, ezetzean.

Orduan, bat-batean, Pelipe sutzeko asmoan asi zanean, aitona zutitu zan eta billobari eskuan zera-mazkien edeak eta latigoa kendu zizkion.

–Pasa adin nere ezkertera! –esan zion, orrela bere gorputzarekin bere billobarena tapatzen zuela.

Karroxari galga kendu zion eta, zaldiari zartako bat edo bi emanaz, au jauzi batean laukoan abiatu zan. Ia-ian egon zan etzuela ero gaiztoa zaldiak ankapean arrapatu. Sekulako zartakoa eman zion latigoarekin mutillari, arpegian musuan buelta osoa emateraiño. Begi bat ere arrapatu zion noski.

Ero gaiztoak ustegabeko indarra ta eragozpenak arkitu zituen karroxan. Aitona etzegoen atzera egitekotan.

Nola edo ala iges egin zion lenengo erasoari.

Baiña zaldia lauhoan zijoan, beti mutillaren aldera, aitonak txutik billoba atzean artzen zuela. Len eroa bazegoen, orain benetan zorabiotua zegoen Pelipe. Minutu bateko lana zuelakoan, alegiñak eginta ere ezin zuen neska egokieran artu. Zelaian ari ziran nekazariak, berriz, zer gertatzen zan antz eman ziotenean, lasterka karroxara zetozen. Ederki oartu zan ero gaiztoa; eta, bertan bizirik arrapatuko zuten beldurrak zearo nastua, eta latigoaren zartakoarekin erdi itxutua, aldeztaju, itxumustuan sutu zituen bi kañoietako kartutxoak.

Iltzailleak zer egin zuen etzekien seguru, eta ikusteko betarik ez, berriz, jendea gaiñera zetorkion ta. Baratzetako nekazariak gaiñean zituen. Etzeukan, bada, denbora galtzerik.

Iru kartutxo ekarri zituen. Bi, bere ustez beiñepein, Joanitari sutu zizkion. Berrogeiren bat metro aurreratu ta kargatu zuen berriro eskupeta. Kulata lurrean jarri ta kañoiak lepazpira zituela, eskuko beatzarekin sutu zion bere buruari. Txiba batek bezela iru edo lau buelta eman zituen lurrean; eta, eskupeta eskuan, lasterka aldapak gora artu zuen.

Etzuen bere kokotza ondo arrapatu. Izan ere, ordurarteko guzia berak uste ez bezela atera zitzaion, eta bide galdua zebillen. Beatzarekin indar egiterakoan, eskubi aldera egin zion armak. Kokotz ertzetik asi ta zerrendan belarria moztuz igaro zitzaion zaparrada, eta larriaren larriz aldapa gora artu zuen, bere baserrira iges, beste tiro baten billa, bizirik arrapatuko zuten beldurrak.

Ura gerorako utziz –berdin bazekiten etzutela bizirik arrapatuko–, karrikutxe artan zer gertatu ote zan eta laguntzaren bearrean arkitzen ziran, nekazariak txuxenean ara joan ziran.

Neskaren etxetik bistan zegoen eta, tiroak entzun zituztenean, lasterka jetxi ziran. Zaldi-kotxea geldirik ikusi zutenean, eta beste gizon bat aldapak gora

–bai ezagutu ere Pelipe zala, bazekiten aspaldian etzebiltzala ondo eta–, txarrena pentsatu zuten.

Karrikotxearen barruan arkitutako ikuskariaren aurrean, suminduak geratu ziran, eta etzan gutxiagotarako. Bat, ukabilla sartzerañoko zuloa bularrean, erdiz erdi bi tiroak an artu baizituen, odolez estalia ta illa. Bestea, berriz, ura magalean zeukala, negar ta negar. Amuteko kaputxinoen konbentuan dago alatsuko irudi bat: Jesus illa Amaren magalean, eta au negarrez.

–Zer gertatu da emen? –galdetu zioten.

–Barkatu, baiña mesedez eraman nazazute etxera. An lasaitzean dena kontatuko dizutet –eskatu zien negarrez.

–Baiña noren lana da, deabru ori arrapatu dezagun?

–Peliperena.

Illaren etxekoak iltzaillearen atzetik joan nai zuten. Baiña Josetxo gainbeera zijoala iltzaillea etxera sartu baiño len aurrea artu nairik oartu ziranean, bertan geratu ziran.

–Bai; bazterren batetik sutuko zioke eta bigarrena ere garbituko dik.

–Josetxo ez dek orren itxua. Bere kontuak aterako dizkik.

Karrikotxean bizirik geratu zana txuxenean etxera eraman zuten, eta illa bertan utzi, epailleak agindu arte.

Josetxok asmatu zuen: odolike ixuri gabe etzala arazo ura bukatuko.

LASTERKARIAK

Sarraski gaizto ura egin ondoren, il zuen neska-
ren aurrean bertan garbitu nai izan zuen bere burua,
iñor konturatu baiño len, asitako lana bukatzeko.
Baiña dena oker atera zitzaion; eta, bizirik arrapatu-
ko zuten beldurrak, aldapak gora artu zuen, beste
kartutxo baten billa.

Itxura duanez, bere lana bukatzera jetxi zanean,
etzegoen oso erotua. Etzuen aspaldian bere buruan
ausnartua zeukana besterik egin. Azkeneko sei ille-
bete aietan iltzen bizi izan zan. Baiña, ezin ausartu-
rik, gero ta amorratuago zegoen, orduaren zai, bere
inpernu ura bukatzeko. Bada ez bada, ordea, iru kar-
tutxo bakarrak eramane zituen berekin. Neskarekin
norbait bazetorren, bientzat. Baiña, bestela, bi neska-
ri ta bat beretzat. Etzuen besterik il nai. Ortarako,
juxtuak eramane. Askotan, andregaiaren aizparekin
ezkondua zegoen anaia etortzen zan, eta sekulako
gorrotoa zion ari. Gero berak zionez: «Ederretik li-
bratu nauk!». Bere lana nola egin ondo ikasia zeu-
kan. Baiña neskaren aitona onekin zetorrela oartu za-
nean, sumindu zan gure iltzaillea. Aiton ura maite
zuen. Neskaren etxera joaten zanean, beti ondo ar-
tzen zuen onek. Orregatik, larri artan dena gaizki
atera zitzaion. Eskubi aldetik igurtzika joan zitzaion

tiroa. Zer egin orduan? Bere eskupeta artu ta an ziak aldapak gora, beste kartutxo baten billa.

Josetxo, ordea, oraindik etxera iritxi gabea; ta, iru tiro oiek entzun zituenean, okerrena pentsatu zuen.

«Urdea aleena! Beldur genduen egin dik!» oi u egin zuen berekiko. Eta zer gertatzen zan jakiteko, kaxkora er ten zan. Andik bee alde guzia bistan bai zeukan. Baita somatu ere eskupeta eskuan nola zi joan Pelipe aldapak gora. Karroxa, berriz, geratua zegoen, eta ordurako inguruan bazebillen jendea.

«Or etzeukat nik zer egiñik», –eta gain-beera eraso zion lasterka, aldapak gora ezin zuenari bidea ixteko asmoan.

Askoz bide luzeagoa zeukan goikoak. Besteak ondotoxoz motxagoa; baiña pattar pikea, kilometroren bat inguru, benetan latza eta euri asko egiña.

Pelipek, bere larrian, ikusi zuen Josetxo bere an ka luze aiekin aidean gain-beera. Bera, berriz, zauritua, bide guzian odol jario, irristaka, erori eta zutitu, ler egiña, ezin zuen geiago.

«Zergatik ez ote ditut nik bi edo iru kartutxo geiago ekarri?», pentsatuko zuen berekiko. «Onen eskuetan erortzen banaiz, errukarria ni».

Noiznai erori ta lau gaiñean asten zan. Ortarako eskupetak enbarazu egiten zion, berriz. Ixtillua zeukan: nai ta ezin.

Maiz begiratzten zion etsaiari, eta baserritik bera bezin alde ikusten zuen. Noizbait aldapa gaizto ura igaro zuen. Metro gutxi zeukan andik etxera. Baiña ordurako Josetxo atarian.

«Ai! Eskupeta betea baneuka, ire arrokeriak laster moztuko nizkikek, bai, betiko».

Josetxok aurrea artu zion. Bere eskuetan zeukan, bada, etsaia. Ezin ausartu, ordea. Eskupeta utsak biak beldurtzen omen ditu: daramana eta datorrena.

Ordu erdiren bat, gaiztoenetakoa, ikusi zuen. Go-

gorra zan mutilla: masailla erdi eramana, belarri ta guzi; odol ustutzen; alare, aurrera gizona. Baldartua, daldaraka, ler egiña, noizbait iritxi zan baserrira. Bazekien, ordea, atarian zai edukiko zuela etsaia, eta ukuillura sartu zan.

Etxe aurrean etzala azaltzen-ta, lasterka batean etxe atzera joan ta atetik ukuillura sartzan ikusi zuen Josetxok.

–Ai, urdea! Ez didak adarra gaizki jo. Nere neke ta lasterkak alperrik izan dituk. Ez nekiken nik emengo berri.

Baserriko ukuillu askotan aurretik eta atzetik dituzte ateak, eta atzekotik ateratzen dituzte ximaurreak, an jasotako estalpetxo batera. Arek ere ala zeukan, eta Josetxok usteko zuen besteak bezelakoa zala ura. Andik iges egin zion, bada, eskuetan zeukan etsaiak. Orduan, bada ez bada, Josetxo ezkutatu egin zan.

Pelipek, etxe barruan, amarekin topo egin zuen.

–Motell, zer dek ik? Odoletan ator –esan zion amak.

Bestea zauritutako artza baiño amorratuago zeterren; eta, bultzada bat emanaz, «Alde nere enbarazutik!», eta txuxenean gelara sartu zan. An zeukan palta zuena. Erteeran ateari egundoko zanpetakoa eman ta bi saltotan jetxi zuen sukaldeko zurubia.

–Nere semea erotu edo lan gaiztoren bat egin dik.

Andik txuxenean, etxetik berrogei ta amar metro-ra zeukaten sagasti batera joan zan. Amak igerri zion zertara zijoan eta, bere onetatik aterea, oiuka ari ziztaion leiotik:

–Baiña, Pelipe! Etzak olako astakeririk egin! Ator etxera!

Ez alperrik! Arek olakorik etzuen entzuten. Buruan beste pentsamenturik etzerabilkien: iñork arrapatu baiño lenago bere burua il. Gero gerokoak.

Amak etzeukan sagasti ura bistan. Alare, aren

karrasiak ozenki entzuten ziran, Josetxori malkoak ixuri arazteraiño. Onek, ordea, dena ikusi zuen, andik ogei ta amar bat metrora egiña zegoen belar meta baten atzetik: bere larria, bere burua iltzeko mol-daketak... Baiña ezer egiterik ez, bestea armatua zegoen ta.

Ama gaixoaren oiuaq baratzatik ederki entzuten zirala, presaka bete zuen eskupeta. Lur biguña zegoen eta indarrean sartu zuen lokatzetan kulata, sutzerakoan baztertu etzedin. Okotz azpian jarri zituen bere kañoiak; eta, esku batekin gogor eutsirik, esku-biko beatzekin sutu zuen. Egundoko zanpetakoa entzungo zuten urrundik ere.

Gure Pelipe tiro aren indarrak aidatu zuen, lurrari kentzeraiño. Ia metro bat atzerago erori zan zerraldo illa. Txapela, berriz, sagarretik zintzilik geratu zitzaion. Zanpetakoaren bultzadak eramanak, muin ta aragi zipristiñak sagarraren abarretan erantsiak.

Tiroaren otsa zabaldu zanean, leioan zegoen amak karrasi bizi bat egin zuen, eta ixildu zan, ondoeza eginda noski.

Pelipek bukatu zuen mundu ontako inperua, beldurgarriagora joateko.

Benetako otzikara sartu zion Josetxori. Etzuen uste bera ainbeste maiteminduko zanik. Urbildu zan bertara, obeto ikustera. Tiroaren indarrak atzeka botata, luze ainbat zabal zegoen Pelipe. Eskubi aldetik, buruaren erdia eramana. Bizirik balego bezela, zabalik ezkerreko begia. Josetxori urrikal malkoak zerizkion.

—Au dek gizonaren errematea!

Alare, bada ez bada, aita gure bat errezatu zuen bere alde, Jainkoak betiko atsedena eman zezaion. Nork zekien azkeneko unean, ondo il baiño lenago, ez ote zan damutu eta Jainkoak barkatu?

Ukuitu ere gabe, zegoen bezela utzita, aldegin zuen andik.

Arritua, nazkatua, zorabiotua, sumindua, mutil
gizarajoaren azken negargarri ura ikusita, etxe aldera
artu zuen, beeko txokoan zer gertatu zan jakiteko
beldurrak aidean.

PELIPEREN LAGUNA

«Ez bagera geiago elkar ikusten ere...» esanaz, eta arek luzatzen zizkion zakuak artuz agurtu zuen gazte arek –lerro auek idazten ari dan onek–, bereala ikasi zuen gertatuaren berri; eta gorputza jaso baiño len ikusi nai zuen azkeneko aldiz, illa bederenik. Lasterka joan zan, eta Josetxok utzi bezela arkitu zuen.

Oraindik etzan zabaldu bere burua il zuenaren berririk. Bere anaiak billa zebiltzan. Baiña beeko karrroxan zer gertatu zan, bai. Fameli arekin etzeukan, ordea, gazteak zer ikusirik. Alako artu-emanik ere ez, eta etzan aiek bisitatzera joan.

Oraindik eskupeta zutik zegoen. Bera, luze ainbat zabal. Arpegi erdia, eskubi aldetik, tiroak sagarrera eramana. An ari ziran txoriak, sagarrean erantsita zeuzkan muiña ta aragi-zipriztiñak biltzen. Oillarra, berriz, bere oillo-saillarekin batera, illaren ondoan izutu samarra, zer izan ziteken ura ikusi nairik, lepa luzeka *kook-kook* egiñaz, arritua begira. Oilloren baten mokoia iritxi zitzaion arpegira, ango aragi-puskaren bat jateko asmoan.

Ezkerreko begia zabal-zabalik zeukan. Bazirudien arekin begiratzen ziola, «Ire aolkuak bete bani-

tu, gaur ni ez nengoken orrela» esan nai balida beze-la.

«Bai. Gorputz ustel ori emen daukak. Eta anima? Emengo naigabeak ezin eraman baitun, zer arkitu ote dek bestean?» –nion nereko—. Udaberrian txoria baiño alaiago, Altzako plazan elkarrekin ainbeste pilota-saio egiñak, gure baserriko mendiak ederki aztarrikatuak, nork pentsatu bear zin, gurekin mendi aietan ibiltzen zan aietako batek, txoratu ta ire sasoirik onenean ere bizia ortara bukatu bear uanik?».

Otoitz egin zuen beraren alde. Negar ere bai noski. «Ain arin zakar ebakitzera joaten intzana, non ote ago orain?».

Gorputz illaren aurrean zin egin zuen: «Munduko bizitza motz kaskar au olakoa bada, bego nai duenarentzat. Ni ez nauk bide ortatik joango». Eta praille sartu zan. Bereala joan nai zuen, baiña azkeneko guda odoltsu arek urte batzuk atzeratu arazi zizkion. Euskalerriko konbentu txiki batean bizi da oraindik. Xaartu samarra badago ere, oraindik liburu kaxkar au idazteko aiña bada, eta urrats ori emana ez omen zaio egundaiño damutu.

Illaren gorputza ukuitu gabe utzita, amarengana joan zan txuxenean. Ama gaixoa bakar-bakarrik arkitu zuen, negar egitez aspertua, noiz edo noiz norbait etorriko zitzaion itxaropenetan. Korderik gabe zegoela zirudien. Ama-semeak bakarrik bizi ziran. Gazteena, baiña ura zeukan etxerako. Urteak ziran alargundu zala. Aurrera begiraturaz, etorkizun kaskarra ikusten zuen.

–Jainkoak egun on, Manuela.

–Baita iri ere, neretzat ez dek ala baiña.

–Ikasiko zenduen noski?

–Bai, motell. Bai azkeneko bere larriak ikusi ere. Txutik eziñik, ler egiña, odoletan igo dek gelara. Andik kartutxoak artuko zizkin noski, lasterka joanta.

Garbi-garbi entzun dizkit mundu ontako bere azke-
neko tiroak.

–Oraindik sagar azpian daukate, ilda geratu dan
bezelaxe. Nai badezu beiñepein, nik lagunduko di-
zut.

–Ez, ez. Olako ikuskariak etzaizkidak atsegin.

–Naigabeen laguntzen dizut, bada, Manuela.

–Eskerrik asko. Baiña zer egin ote diote nere se-
meari ortaraiño erotzeko?

–Ama izan ta etzenion nola zebillen igertzen?

–Guk zer zekiagu semeen berri? Ni bezelako
zaartu batek gaiñera. Iñor etzetorrek onera, eta etxe-
tik ez gaituk ateratzen. Zerbait banekiken neskarekin
gaizki zebilela. Baiña munduan amaika ibili dituk
orrela.

–Nik entzun detanez, aspaldi ontan katua ta txa-
kurra bezela zebiltzan. Nik laguna nuen seme ori, eta
bere biotzeko ezkutu asko kontatzen zizkidan. Neska
iges eta mutilla jarraika. Bati baiño geiagori kargu
artua izan bear du, neskarekin tratu pixar bat zutela-
ko.

–Baiña bere burua iltzeraiño?

–Oraindik ez da orrekin bukatzen. Aurretik bes-
teren bat edo bi eramanda, ordea, noski zoritxarrez.

–Norbait il ta iges etorri dek orduan?

–Seguru ez dakit: bat edo bi.

–Jesus maitea! Ikaragarria dek ori!

–Joanita zure erraiñaren aizpa karrikotxean aito-
narekin zetorren, esan didatenez. Iru tiro entzun di-
tut. Ez dakit bakarra dan edo bi il dituenak. Neska
iltzera joan omen da. Ura ilko zuen noski, baiña ez
dakit seguru.

Amari ondoeza egin zitzaion; eta, bere onera eto-
rri zanean, ala zion:

–Deabruak artua al zegoken, bada?

–Bera zan ura deabrua azken alde ontan. Alare, gu biok ondo konpontzen giñan.

–Izen ona erantsi ziok gure fameliari.

–Zuk zer erru daukazu, ogei ta zortzi urteko seme batek ori egiña?

–Baiña ni astinduko niotek. Atzera-aurrerakadaren batzuk egin bearko dizkit.

–Bai. Ala izango da ori ere. Neskaren etxean zer-bait esango dute, zu ango baten ama izaki ta.

–Neska txar batengatik ere orrenbeste itxutzea ere...

–Nik adiskide ona nuen au, eta amaika aldiz aolku ori eman nion. Baiña alperrik dena. Munduan besterik ez balitz bezela itxutu zan, ta kito.

–Ez ditek lur onetsian eortziko. Agian illetarik ere etziotek egingo.

–Ez det uste. Burua argi zeukan orrek. Beeko lanak bukatzean, aurki emen dituzu zure semearen bila.

–Datozela ta eraman dezatela. Lenbailen aztu dedilla.

Epailleak bereala egin zituen bere lanak. Garbi asko zegoen gertatua. Gorputz illak ezin zitezken artara eduki, eta jasotzeko agindua eman zuen. Baiña bikarioaren berri ere jakin bear zuten.

Onek, aringarririk bazan ondo aztertu arte lur onetsian ez eortzeko agindu zuen. Illetarik ere etzitzaiola egingo. Ori zan Elizak orduan agintzen zue-na.

Jose txo Peliperen amarekin izketan ari zala, etorri ziran illaren anaia eta bere lagun batzuk, jasotzeko epaillearen agindua berekin zekartela. Angarillak ekarri zituzten.

Anaiak an azaldu zigun bere anaiari zion maitasuna. Illak gerriko on bat zeraman eta, angarilletan

jarri baiño len, denen aurrean kendu zion beretzako. Bai an zeudenetan murmur ederra sortu ere.

Illa angarilletan jarri zuten, ta maindire batekin estali. Bidean erori etzedin, atzetik eta aurretik angarillari lotu, ta tiroz ildako txakur bat bezela eramane.

Illerriak bazeukan onetsi gabeko leku bat, orrela iltzen ziranak eortzeko; eta an sartu zuten, ez gurutze ta ezeren kristau ezaugarririk gabe. Agian bakarren batzuek ixilka mezak aterako zizkioten, eta kito.

Oraindik etzait ikuskari triste ori aztu. Bizi naitzen arte ere ez det uste. Eskerrak orduan eman nuen urratsari. Emen ere buruauste ta naigabe ta ezbearrak izan ditugu. Baiña zaartuta ere zorionekoa naiz, munduan gizon bat izan liteken aiñean.

ANTTONI AMONAREN BISITA

Peliperen eriotza ikusi ta benetan naigabetua, zer pentsatu etzekiela, joan zan bidetik zetorrela, begiratu bat egin zuen Josetxok beera. Joanitaren karrikotxea an zegoen oraindik. Epaillearen baimenaren zai egongo ziran.

Biderik motxena neskaren etxe aurretik zeukan. An barrena igaroko zan, baiña etzan sartuko. Berdin ango negarrak berari ere negar egin araziko zion. Bere aiton-amonak ere urduri egongo ziran onuzkeror, beeko sarraskiaren berri anbat iritxiko zan aien belarrietaraiño ere, eta billoba tarteko izan ote ziteken beldurrak aidean.

Biak il ote zituen edo bat, eta bietan nor, jakin arte, etzeuden lasai. Aldapak gora neskaren etxe aurrera iritxi zanean, etxe aurreko iturri ondoan norbait negar ta negar ari zan. Baiña bere bideari jarraitu zion. Etzuen alperrik denborarik galdu nai.

Aiton-amonak elkarrekin ari ziran lanean. Urduri zeuden. Bai aguro ikusi ere mutilla etxe aldera zetorrela.

–Josetxo badator, Jaunari eskerrak –zion amonak.

–Orain garbi jakingo degu bee alde ortan zer gertatu dan.

–Guri kontatu digutena egia bada, ez da onen lana.

–Bestela etzioten etortzen utziko.

Aitonak laster agertu zion beren naigabea edo eduki zuten estuasuna.

–Barkatu esan gabe joana. Oneraiño ere iritxi da orduan or beeko sarraskiaren berri gaiztoa –Jose txok.

–Ori, bada: orregatik gure ezin egona.

–Laster zabaltzen dira kontuak; eta, jakiña, atzekoz aurrera.

–Xanti igo dek goiko beren sorora, eta ekarri zizkiguk berririk gaiztoenetako batzuk. Ez dakiela zenbat eta nortzuk diran illak. Baiña mutillak bidera atera ta il duela neska. Auzoak izan bear zutela. Baiña beren izenik eman gabe. Ori kontatu ziguk eta gu larri geratu gaituk. «Ea Josetxok olakoren bat egin duen, neskarekin asarretuta?» galdetu zion arek Anttoniri, zer atera erazi noski. «Arek ez du eskupetarik» erantzun zion onek. «Baiña norbaitek utzi badio?». «Ez det uste gure mutilla orrenbeste itxutu danik. Egia bada ere neska il dutela, beste norbaitek egingo zuen». Jakiña, urduri geundenen, olako murmur gaiztoak geienetan beren egi-muturra izaten dittek eta.

–Zoritxarrez, orain ere badute.

–Eta zer gertatu dan badakik?

–Joanita aitonarekin joan da sendagillearengana. Bakarrik izan bazan, goitik zerbait zainduko nuen. Baiña nik ez det pentsatu ere aitonarekin dijoala erasoko zionik. Erotua egongo zan noski. Ni etxe alderanentorren eta iru tiro entzun ditut. Lasterka atera naiz kaskora. Pelipe ikusi det, eskupeta eskuan, aldapak gora, eta ari jarraitu diot. Etxetik berrogei bat

metrorra bere burua il du. Bertatik bertara dena ikusi det.

–Gizarajoa! Bere burua iltzeraiño ere erotu al da?

–Orixe gizarajoa! Baiña karrikotxean zer gertatu dan ez dakit: bat edo biak il dituen. Ni presaka etxera etorri naiz; ta ori, amona, zuk ikasi bearko dezu. Kotxea, beiñepein, ni onuntzean, oraindik lengo lekuan zegoen, epaillearen baimenaren zai noski, etxera ekartzeko. Alegiñak egin ditut, bada, iltzaillea arrapatzeko, baiña armatua zijoan eta ez naiz ausartu.

Amabiak alde ortan joan zan amona, olakoetan oitura dan bezela, bisitatzera.

–Ea, amona, berri onak ekartzen dizkiguzun –eskatu zion Josetxok.

–Zer besterik nai nikek nik?

Amona joan zan, bada. Dolumiñak eskeiñiz gaiñera gertatuaren berri ikasi. Ordurako karrikotxea ekarria zeukaten. Maindire batekin estalia, gelako mai baten gaiñean, garbitu ta jantzia, gurutze bat bi eskuen artean eta lau kandelen erdian, il-kaxa noiz ekarriko. Pelipe iltzaillearen anaiak egingo zuen lan ori.

Ur bedeinkatu ontzitxo bat ere bazeukaten, ereñotz-arbasta bat barruan zeukala. Arekin ziprztindu zuen gorputza. Ondoren aita gure bat erreztatu ta meza-dirua eman ez etorri zan, arratsaldean aiton-amonak joango zirala ta. Peliperen berri etzekiten. Amonak kontatu zien zer gertatu zan.

Ango bere egitekoak bukatu zituenean, txuxenean etxera etorri zan, bazkaltzeko ordua zalako. Baiña arratsaldean berriz aiton-amonak joatekotan. Urrutira ikusi zuen aitonak, eta illobari ala esan zion:

–Emen dek amona.

–Laster dator.

–Bazkal ordua dek eta. Laster jakingo diagu.

Amona serio zetorren. Josetxoren larritasuna etzan nolanaikoa.

–Egin degu, bada, gure bisita. Illa ekarri dute etxera.

–Eta nor da ori? –galdetu zion senarrak.

–Aitona. Bere bizia eman omen duela billoba salbatzeko. Joanitak ala omen dio. Baiña berarekin ez det itzegin. Madalen bat egiña dagoela esan didate. Ez duela ukiturik ere. Peliperen berri etzekiten. Nik kontatu diet, Josetxok ia arrapatuan nola erabili duen.

–Benetako naigabea ematen dit aiton gizarajoak. Beerakoan elkarrekin egon gera eta berritsua izketa-rako zegoen ori –Josetxok.

–Ea iri ere olakoren bat egiten diken neska orrek: atzera-aurrera ibili ta txoratu arazi ondoren, utzi.

–Litekena da ori ere. Baiña ez nintzake, Pelipe bezela, iñor iltzera joango. Ori da guzia.

–Euskalerrian tarteka-tarteka ikaragarriak gertatzen diran eriotz larri oietakoa dek au.

–Bazterretan zarrastada ederra eman bear du onek; ez inguru auetan bakarrean. Bisitatzera joan bearko dezute, berriz.

–Arratsaldean aiton-amonak joan bearko diagu. Aspaldi ontan fameli orrek on besterik etziguk egin. Gizon gogorra, langillea ta bizia izan dek ori, eta kristau zintzoa gaiñera.

Bere illetan egundoko jendetza zuen aitonak. Apaizak itz batzuk egin zituen:

–Kristau ta gizon bezela, osoa izan da au. Bere bukaera, berriz, zoragarria. Besterengatik bizia ematea baiño maitasun aundiagorik ez baidago, Jesusek ebanjelioan esaten digunez, eta aiton onek orixe egin du.

Illetak ospatu ta gora-beera batzuk erabili ondoren, batez ere gure bi gazteak –auek aurrera begira-

tzen baizuten-, eragozpen guziak moztu ta aske-askeak geratu ziran beren asmoak betetzeko. Epailleak erru guziak Pelipe gizarajoari erantsi zizkion, baiña mundu ontan ura zigortzerik ez. Ama gaixoak amai-ka negar egin omen zuen.

Egun batzuetan, Joanitaren aizpa ezkondua joaten zan kalera, bestea oraindik lotsatu egiten omen zala-edo.

Lenengo azaldu zanean, oraindik bazeukan igarotako ordu larri gaizto aien aztarrena. Lasaitu samarra azaldu zan. Baiña aitonaren izena aipatu orduko negarrari ematen zion.

Ura etortzerako, mutilla zai zeukan, gertatuaren berri jakiteko zorutzen. Mirari bat iruditzen zitzaion oni neska bizirik ateratzea.

–Jainkoak egun on, Josetxo –agurtu zuen neskak.

–Baita zuri ere, Joanita –eta maitasunez biak besarkatu ziran–. Ongi etorria. Lasaitu al zera?

–Ez berealakoan, baiña oraindik ez oso. Aitona gaixoa gogoratzean, malkoak asten zaizkit. Nere magalean illa ta alderik alde zulatua eduki bainuen.

–Ori joan da, Joanita. Arraixku guziak ere bai. Eskerrak zure aitonaren eskeiñari. Biok il ta piztu bagiña bezela elkarganutzen gera emen berriro. Orain gure etorkizuna garbi azaltzen da. Gu, gaurtik aurrera, jetxi ta igo giñezke lasai. Zure billa joan ta aitona iltzea, nola gertatu ziteken ori?

–Aitonak bere bizia eman zuen neregatik. Aren ausardia eduki banuen nik, iges egingo genion. Baiña ni, nai zuena egin, arkume bat bezela geratu nintzan. Ez, ordea, aitona. Eskuan neramazkien zaldia-
ren edeak kendu zizkidan. Zaldi ta karroxa Peliperen gaiñera bota, ia iraultzeraiño. Baiña neri sutzera zi-
joala igerrri zionean, eskuarekin atzera karroxara bota niñun; eta ain itxutua zegoen etsaiaren aurrean jarri
zan, bere gaiñera saltatzeko asmoan noski. Ez dakit
nola etzion eskupeta arrapatu. Alare, Pelipek maite

zuen nere aitona. Nere billa gure baserrira etortzen zanean, askotan beiñepein, ni azaldu arte biak aritzen ziran elkar-izketan atariko petrillaren gaiñean. Nere bidera atera zanean, eta ura karrikotxean ikusi, moztua, lotua geratu zan Pelipe, aurrera edo atzera zer egin etzekiela. Baiña, itza emana zeukan ezker, bete bearko zuela ta asiko zuen bere eraso. Alare, inguruko nekazariei esker salbatu nintzan ni. Aiek zer gertatzen zan antzeman ziotenean, karrikotxearen lau aldeetatik zortzi-amar bat bai gutxieneko lasterka guregana zetozen, eta bizirik arrapatzeko beldur ikaragarria zeukan Pelipek. Bestela, bein ura il zuenean, arkumetxo baten gisa bertan ilko niñuen ni. Aren asmoa, iñondik ere, lenbailen bukatzea zan. Bere ustez, minutu bateko lana. Aitonak aldrebestu zion arek bat-batean egin nai zuena. Etsi ta gero bere tiroak noizbait sutu zituenean, jendea bertan zan. Gaiñean genduen. Orduan Pelipek, lasterka goraxeagoa joanda, bere buruari sutu zion. Baiña ura ere gaizki atera zitzaion. Nonbait eskupeta baztertu. Etzuen beiñepein asmatu. Ortan pentsatu aren burua nola egongo zan. Lasterka joan zan emendik bere baserrira, bizirik arrapatzeko beldurrak, beste tiro baten billa.

—Eta etziñula zu il oartu ote zan?

—Ori ez dakit. Baiña zirrikitu bat arrapatu zuenean neri sutu zidala bai. Baiña irurak bakarrak izan bagiña, gure lanak laster egingo zituen. Zer egin zuen jakiteko naastu samarra zebillen. Alare, nere iritzia baiezkoa da. Tiroa txuxen neri sutu zidan. Aitonak egin zuen bitarteko, ni salbatzeagatik.

—Nik gain-beera jarraitu nion, eta ogei metro baiño alderagotik meta baten atzetik ikusi nuen bere burua iltzen. Benetako pena eman zidan. Aita gure bat ere errezatu nuen bere alde, arentzat alperrik izango zan baiña.

—Bi orduan ariko giñake, baiña agur, Joxetxo, Etxerakoan lasaiago itzegingo degu.

–Ori da. Zuretzako ta neretzako obe. Gaur ba-
zoazke lasai. Etzaizu bidean zemaika aterako. Baiña
benetan urrikaldu nintzaion.

Gorakoan langar, lanbro edo euri-intz txee-txeea
ari zuen, eta Joanitak ala esan zion mutillari:

–Or bustitzen ari zera ta igo zaite kotxera. Emen
lasaiago itzegingo degu.

–Zuk ala nai badezu, ni pozik.

Ordu erdiren bat pasa zuten kotxeko aulkian, iga-
rotako larriak kontatzen neskak eta Josetxok, eta au
etsaia ez arrapatua damututa.

–Esaten nizun nik odolik ixuri gabe etzala buka-
tuko. Pelipe amorratua baizebillen. Alare, etziñula il
oartu bazan, lengo kezkaiz gaiñera ori berria izango
zuen.

–Eta gure arazoan zer ikusirik etzeukan aitona
erori!

–Nik lenengo emen ikusi nuen. Gizon argia ta iz-
tuna benetan.

Noizbait neska erne zan.

–Ia ordu erdi igaro degu aulki ontan eserita.
Etxean erritan emango didate.

–Ez det uste. Ezta neri ere. Or kanpoan langar
ori, eta gu aterpe ontan ain geunden goxo. Au utzi
bearrak naigabe ematen dit.

IRU BILLERA

Eragozpen guziak garaituta, oraindik arazo ori aurrera zijoan. Denak batera zetozen, zaarrak eta gazteak. Alare, nagi.

Joanitaren gurasoak pozik sartuko luteke alaba auzoko baserrira etxeko andre bezela, bi auzoak elkarrengana geiago urbiltzeko. Bi sendiak beti izan ziran elkar maiteak. Laguntza ere bai; atzetik giza indar aundia zeukaten. Sarraski gaizto orren ondoren neska beste batekin asi baiño len.

Bestekoak ere pozik artuko luteke. Aspaldian arek laguntzen die. Oso ezagun eta maitea dute. Bear gorrian arkitzen dira gaiñera. Amona, ainbeste lan egiña, arrastaka dabil. Xaartu oraintxe, egundo bada; ta ordeko baten bearrean dago.

Joanitari, berriz, txoria oso atsegin zaio. Kabia zer esanik ez. Sortetxean lekurik ez dauka. Mutillak ez dio, ordea, kasorik egiten. Bera aurreratzea, berriz, lotsatu egiten da.

Josetxoren begiak ere, dirudienez, ez dute besterik ikusten. Aiton-amonak zirika ari zaizkio. Bera, berriz, lotsatia izaki. Egunak, asteak eta illebeteak joanta, beti bezela dago arazo ori.

Txirrikitu guzietatik begiratuagatik, ez da eragoz-

penik ikusten. Laguntza bai ugari. Mutilla oraindik gaztea da ta zerbait luzatu nai lukela dirudi. Zaarrak, berriz, aske utzi nai lioteke, berak nai duen garaia aukeratzen. Bazekiten, bada, biak elkar maite zutela. Alare, luzatzen zijoan. Eragozpen guziak garaituagatik, etzuten pausorik ematen aurrera. Azkeneko itza, berriz, gazteak eman bear zuten.

Baiña beste neska batekin asiko dan beldurrik ez. Sarraski aurretik eta atzetik naiko pruebak eman ditu ura daukala oso-osorik bere biotzaren jabe. Agian, zerbait luzatzeko elkar adituak daude. Zaarrak, ordea, lenbailen nai luteke.

Ori konpondu nairik, bi billera egin ziran, bada; eta egun batean gaiñera. Baiña irugarrenak balioko zuen. Bat, neskaren aita eta mutillaren aitonarena, trenean, nazio arteko pake egilleak bezela, Amezketatik etxera bitartean. Bestea, ama eta amonarena, Joserren etxean. Bietako elkar-izketa gaia ori izan zan: bi gazteak ezkondu arazteko zer egin bear zuten.

Joxek bazuen lagun maite bat artzaia, Amezketakoa. Aren auzoan zeukan borda artzaiak. Jakiña, negu-partean ara ekartzen zuen artaldea, eta Joxeren soroetan ibiltzen zituen ardiak. Zerbait ordainduko ziola? Gaztaren batzuk bederenik baliteke. Baiña dirurik ez, beiñepein, Joxek etzion artuko ta.

Neguko igande ta jaietan maiz bilduko zan auzoko kantina txiki batean; eta, biak elkarrenganatu ezkerok, bertsoz etzan faltako. Ez baziran punta-puntakoak ere, bazuten bertsolari kutsutik zerbait. Izatea nai beiñepein. Espiriturik, santua ez bazan ere, etzizaien palta.

Urtero artzaiak erriko jaietan deituko zuen Joxe San Bartolometan. Egun ortan baidira Amezketako jaiak. Aitona leku askotara deitzen zuten, baiña gutxitara joaten zan. Izan ere, berak aldegin ezkerok, amona bakarrik geratzen baizan. San Bartolometa-

koa, ordea, etzuen uts egingo. Ez bazan joaten, pentsa zezakean artzaiak gaixo zegoela edo eragozpen larriren bat zeukala.

Billera egin zuten egun artan, bada, artzaiaren bizkar egun bapoa botata, bazetorren Joxe etxera, nekatu ta aspertu samarra.

Joanitaren aitari an sartzea tokatu. Non exeriko zan? Aulki utsak geiago ere bazeuden, baiña aitona-ren ondoa beretzat atsegiñena. Onek leku egin zionean, an exeri zan, bada, eta bazeukan etxeraiñoکو laguna.

Ango ta emengo mundu guzia konpondu zuten, baiña etxeko arazo ori ezin. Alperrikako berriketaz aspertu ziranean, bada, bi fameliren kezka zan neska-mutillen ezin ezkonduaz asi ziran.

—Zer moduz konpontzen zerate orain? —galdetu zion Joxeri auzoak.

—Beti bezela, neketan. Mutil gazte eder bat bazeukagu soldaduskatik aske, langillea, bi beso indartsurekin. Baiña baserri baterako ez dek bakarra aski. Gure atarian aurrak jolasean ikusi arte, ez nauk lasaituko.

—Arrazoi orrek etzeukak erantzunik, Joxe. Amai-ka baserritan gertatzen ari dana dek, eta zuena bat geiago. Golde-mordoska bat badik zuen baserriak. Mendi ta zelai ordeka ederrik ere bai. Or jo bearra zegok. Etxe barrurako beste bat ere palta, ordea. Anttoni bakarrik geratzen dek, eta erori xamarra zegok. Geronekoan, mezetatik etxerakoan itzegin nin berarekin, eta Joanita gora ta Joanita beera zerabilkiken.

—Ni oraindik or nonbait nabillek. Gaitz gaizto artatik ondo atera niñun. Goiz ta illunabar, ukuilluko lanak billobak egiten zizkidak. Larunbatetan sui kazereñoak sekulako lanak egiten zizkiguk. Langille ona dek. Gizon ori gaizki epaitu genin. Baiña, ik

dioken bezela, etxeko martxa ere norbaitek eraman bear.

–Amona ibiliko dek lanarekin gaizki samar?

–Bai. Estuegi noski. Ez dek emakume motela izan, baiña betikorik ez gaituk iñor. Etxe aundia dek eta zaar batentzat geiegia, dena garbi edukitzen eta beste gaiñerakoak geigarri. Azkeneko urte auetan beerako aundia egin dik. Gazte bat bear likek orrek, etxe ori garbitu ta lanak arintzeko.

–Eta Josetxok zer egiten dik, andre koxkor bat etxera ekarri gabe? Etzeukak, bada, adin txarra.

–Etzegok makala, ez. Baiña lotsatia, gu bezela. Zaartuta baiño obe likek orain. Berrogei ta amar ur-tetarako famelia azia. Orain oartzen nauk gure gurasoen larriaz ere, gu ezin ezkondu arazirik. Gu gauden egoeran zeudeken aiek ere. Nik bazekit Josetxo eta Joanita ezkonduko dirala. Elkar ikusten duten guzietan, ezin berezirik ibiltzen dituk. Guk, ordea, orain nai.

–Gurean bazegok bat pozik joango litzakena, neska gazte bikaiña. Ik arestian aipatu dekan Joanita alegia, Jainkoaren milagrozt bizirik geratua. Etxean etzeukak lekurik, eta ez genikek nai beste olako batekin astea.

–Ezagutzen diagu, bai, ondo Joanita, ainbeste laguntzen diguna. Guk ere etxeko andre bezela pozik artuko genikek gazte ori. Ortaz izketan asten geranean, oso ona dek Josetxorentzat. Etziok alderdi txarrik arkitzen. Maite duen seiñale garbia dek ori. Baiña urrats ori emateko nagi.

–Gurea etzebillek gordean. Etxetik ara joateko ordu ori etzaiok aztuko. Izketaldi luzeak eginta etorri gaiñera.

–Len ere esan dit ezin berezirik ibiltzen dala.

–Arritzekoa dek orixe: gurasoak nai, gazteak ere bai, eta ezin ezkondu.

–Garrantzi aundiko urratsa dek ori, ta ondo pensatuta eman bear dana. Gurea olakoxea dek. Oraindik gazteak dituk. Nork zekik oien buruan nolako ametsak dabilzan?

–Elkar ezagutzeko denborarik izan al ditek?

–Ezkontzari iges egiteko asmorik ez, beiñepein. Aren izketako moduak ala zirudik.

–Ez al dik ama nola dabillen ikusten?

–Urrikalduta lan askotan lagundu ere bai. Baiña, ondo laguntzezkeroz, emakume gazte bat bear likek. Laster ezkontzen bada, amonarekiko maitasunak eraginda izango da. Askotan esaten zidak: «Amona gaizki dabil ta laguntzera joan bear det». Nik zirikatzen dit orduan: «Ori ire esku zegok, motell». «Bai; badakit eta badaukat begiz joa. Baiña ez dago aske» esaten zidaken len. Orain, ordea, etzeukatek eragozpenik.

–Ingurukoa al dik ori?

–Auzorik urbillenekoa.

–Zalantzarik gabe, Joanita dek orduan ori.

–Bai. Berak ere bein baiño geiagotan aitortu zidak: «Auzoko neskata ori bai langille ta zerbitzaria dala». «Orain, aske dagoen ontan, ez aiokela joaten utzi».

–Nere aitak bere biziarekin salbatu zin kakatsu aren gorrototik, eta oiek elkarganatu bear dizkiagu.

Aitonak billobari eta aitak alabari esatekotan gelditu ziran.

Etxean, berriz, amonak eta amak egin zuten bigarren billera. Anttoniren etxean bazirudien errege ta erregeñak aukeratzen ari zirala, errietako ministroak bezela. Auzokoak bazekien Joxe Amezketara joana zala.

Billera luze samarra, beren senarrak bezela. Bazter geienak astindu zituzten. An ere, ordea, beren elkar-izketaren ardatza bi gazteak izan ziran.

–Zuen mutil ori, aitona bezela, otz samarra da noski.

–Otza danik ezin gentzake esan. Gaztea dala oraindik. Jakiña, gure seme-alabak gu bakarrik utzi ta iges egin ziguten emendik. Zaartuta, guk etsi ta gero, etorri da. Eziñcan, berriz, gu, eta laguntzea nai. Ogei urte bete berriak dituen mutillari presa eman bear al diogu?

–Ez al da emakume baten bearrean zeratela oartu?

–Bein baiño geiagotan esan digu nor daukan be-retzat aukeratua ere.

–Nere alaba da ori, Anttoni. Deabru arek bere burua il zuen ezkeru, ez dauka noski beste iñorekin konpromisorik.

–Orain aske dago. Baiña guri itzegin zigunean, ez. Orain, Jaunari eskerrak, bai.

–Erne ibili bearra dago. Joanitak ez dauka etxean lekurik. Batekin edo besterekin laster asiko da berri-ro.

–Iñaxi, orrekikoa egiña dago. Auek biak maitasunez ondo lotuak daude. Ez dago olako arraixkurik. Denbora bear. Datorren urtean garai ontarako auek biak elkarrekin ezkonduak ditugu, zalantzarik gabe.

–Obe, obe. Eta dotea? Seme-alaba asko ditugu, eta denei zerbait eman bear.

–Dotea diozu? Urte auetan xentimorik kobratu gabe ainbeste lagundu digun eta gure etxera ezkonduko dan bati, zer eskatuko diogu? Bera da ura etxe ontarako naiko dotea. Ortan konpontzen izango da errezena.

Gutxi gora-beera, au zan aien elkar-izketa. Baiña zalantzarik gabe biak ezkonduko zirala, ori seguru joa zeukaten.

Billera auen berri ikasi zuen Josetxok, amonak esanta. Ageria zegoen aien larria: etsi ta neska beste-

ren batekin ezkontzeko beldurra. Ori ez; mutillak ondo zekien olakorik etzala gertatuko.

«Bi billera egin dituzte batera, eta ez leku be-rean. Azkenean, gure ezkontza gurasoak egin ez de-zaten, gure eginkizuna nola baitan, guk erabakiko degu irugarren billera batean, noiz ta non uztartuko geran» zion berekiko Josetxok.

Mutilla goiz joan zan bere trasteekin. Bai neska ere ordurako etorri. Zerbait entzuna arek ere amari, eta jakin naia.

Neska lekura iritxi zanean, bada, zai arkitu zuen mutilla. Laster antz eman zion bera bezela ura ere zirikatua zetorrela, eta lan ori lenbailen bukatzeko asmoan, irugarren bat sartu etzedin.

–Jainkoak egun on, Josetxo. Aguro egin dituzu ukuilluko lanak –agurtu zuen, eta ondoren galdetu zion:– Baiña urduri arkitzen zaitut. Berri onen bat bai al degu?

Adarra jotzen ari zitzaion neska.

–Baita zuri ere. Ikusten detanez, zu ere etzabiltza atzeraka. Gaur, beiñepein, iru edo lau eman bear dizkizut. Nere ustez, zuretzat ere atsegiñak izango diralakoan nago.

–Esan, esan, belarriak ondo garbituta etorria naiz ta.

–Eta zuretzat zer litzake berri ona?

–Zuretzat ona dana neretzat ere ala da, bat beiñe-pein, kontatu nai didazun ori.

–Ona zera zu. Etzera gordean ibili, ez. Zerbait entzun dezu orduan?

–Ez badidazu garbiago esaten...

–Zuk dakizun guzi ori neri atera arazi nai.

–Zerbait esan nai ta larri zabiltza, Josetxo, non-dik asi ezin asmaturik.

–Bi billera egin dituztela. Ori da guzia.

–Orrenbeste nik ere badakit. Ori esateko estua-

sun oiek? Beste zerbait badakartzu buru ortan. Esan nai ta nola esan jakin ez.

–Guk ere irugarren billera egin bear degula.

–Egunero bi ez al ditugu egiten?

–Baiña oraingo au garrantzi aundikoa da; eta egin dituzten guzien gainetik, onek bakarrik balioko du.

–Ari zera, nekez bederen, polliki-polliki bidea garbitzen. Oraingo onek zer berezirik dakar?

–Gure zaarrak alegiñetan ari dira; eta, gu ez bagera konpontzen, Errusi ta Norte-Amerikako lenda-kariak ere alperrik etorriko dira. Gu biok bakarrik egin bear degun antolaketa da au.

–Nolako antolaketa izan liteke, bada?

Illebeteak ziran gure bi uxapalak ezkontzeko asmoak artu zituztela. Alare, olaxe ariko ziran pake-pakean, elkarri adarra jotzen. Baiña aitonaren erioztzak zerbait atzeratu zituen beren asmoak.

–Erne belarri ori, Joanita. Badijoa lenengo berria: ogei urte bete ta nere bizia aurrera dijoala.

–Eta orrekin zer? Nik ere ez ditut urruti.

–Bai. Badakit ni baiño gazteago zerala.

–Ori al zenduen ezin kontatutako berria?

–Nai ta nai ezkoa, Joanita. Eragozpen bat zegoen tartean: soldaduska.

–Barkatu, Josetxo. Ez nintzan ortaz oroitzen ere.

–Zu aske zeunden, baiña ez ni. Traba ori ere igarro da, bada. Bestela, tristeza izango zan ezkondu orduko zu etxean bakarrik utzi ta joan bearra, agian Afrika aldera. Konturatzen al zera?

–Arrazoi osoa dezu. Gaizki epaitu zaitugu. Eta nola geratu zera?

–Ez zuk bakarrik. Baita zure guraso ta aiton-amonak ere. Baiña ni lotsati samarra banaiz ere, ez zuek uste zenduten bezelakoa. Orain bide guziak eta ateak zabalik dauzkat. Aitonak askatu nau.

–Etzera orduan guk uste bezin otza?

–Joanita, lan auek buru otzarekin egin bear dira, ondo pentsatuta. Nik eragozpen ori ikusten nuen bion zorionerako, eta zergatik aurrea artu? Oroi zaitte zuk Peliperekin zer egin zenduen. Aurra ziñala asi. Gero, arek eskea egin zizunean, zuk nai ez, etzan zurzat egiten zana ta. Baiña bigarren berria, larunbatean banoala berriro San Antonio Urkiolakora, nere aiton-amonekin.

–Ederki pentsatua. Beste andregairen baten billa?

–Ni ez naiz zu bezelakoa, batera bi mutillekin ibiltzeko. Neri lengoak ere naiko lanak ematen dizkit.

–Eta oroitzen al zera neri zer eskeiñi egin zenidan?

–Azkenekoa izango duela amonak noski?

–Nere galderari ez diozu erantzun, Josetxo. Urrengoan ni ere zuekin batera joango nintzala etzenidan esan?

–Barkatu, Joanita. Gaur buru aundi au naastu samarra daukat eta. Bai; olako zerbait eskeiñi nizula oroitzen naiz. Joango zerala? Bai orixe. Ez dute nere aiton-amonak nolanaiko atsegiña artuko. Ez dakit zuk barkatuko zenidan. Baiña gure zaarrak, epelak esan gabe ez. Ta irugarren berria: ausartuko al zera ni txoper noan berebillean emendik Urkiolaraiño joatea?

–Zergatik ez? Etzera noski, Pelipe gizarajoa bezela, andregaiarekin batera zere burua iltzera joango. Ikasi dezu orduan. Ondo ixilik zeneukan.

–Urtebete izango da onuzkero.

–Beste norbaiteren berebillan?

–Ikasi bai. Iru berri eman dizkizut, eta au zan laugarrena: aitonak erosi du eta gaur joango gera ekartzera.

–Bejondeiola ari! Aurrerapenak sartu bear ditu-

gu. Gasolina erreko duela? Zaldia ere ez da baraurik bizi.

–Geiena zuk erabiliko dezu eta txoper ikasi bearean zera.

–Bai, Josetxo, ori besterik ez bada. Pozik gainera.

–Beste gainera, nik badakit nere ta zure gurasoen berri. Zuk ere bai nere ta aiton-amonena. Zertarako dira beste gainerako etiketak?

–Oraintxe lasaitu naiz. Dena bukatua dago.

–Zure amaren aurrean, txapela eskuan, belauniko jarri ta eskuan muin egiñaz, zu nere emaztetzat eskatzea ez dezu naiko noski?

–Adar jotzaille ori, zaude ixilik. Besteren batekin joango ziñan beldurrak eta orra dena, zine oietan bezela, ondo bukatu.

–Ez dizut sinisten, Joanita. Nere berri ondo zenekin.

–Zuk eraspen aundia diozu San Antoniori. Aren aurrean zin egingo degu, eta ezkonduko geran eguna aukeratu ere bai. Nere benetako atsegiña an bertan egitea izango litzake.

–Baita nerea ere, eta benetan eskertzen dizut ori, Joanita. Denetan bat gatoz. Naiago nuke gerora ere, egiaren orduan, ala etorriko bagiña. Txeetasun geiago ekarriko dizkizut biar.

–Orra dena bukatu –zion zorientsu Joanitak–. Orain ez daukagu eguna aukeratu beste lanik.

BI TXANGO TA EZKONTZA

Aiton-amonak zoraturik artu zuten berri ori. Gurasoak berdin. Azkenean bidean zuten ainbeste aipatutako ezkontza.

Etxeko lanak lasai utzita joateko esan zien kaze-reñoak. Bear-bearreko lanak egingo zituela arek, berdin egun ori jai zuela eta.

Larunbat goizean, bada, zortzirak inguruan atera ziran aitonak ekarritako berebil berrian, Josetxo txoper zutela. Goxoa zijoan au. Zaarrak elkarrekin atzean. Besteak, berriz, aurrean.

–Zuk, Joanita, al dezun guzia ikusi. Baiña neri gutxi itzegin, lauron bizia nere eskuetan daramat eta.

Abiarako artu zituzten neskak ekarritako txorbioaren kontrako pastilla batzuk. Artzaillea zuten sendagille batek eman zizkiola. Txango goxo bat egiteko bearrezkoak izango zituztela. Txoria baiño alaiago atera ziran etxetik laurak, biziro baikorrak. Alderdi txarrik etzioten ikusten egunari. Oskarbi ta zoragarria zuten gaiñera.

Amonak zionez, berak ura izango zuela azkene-ko txangoa. Baiña etzuen asmatu. Oraindik beste bat egin bearko zuen, eta beretzat alaienetako bat, aspal-diko ametsak beteko ziran eguna ura zan ta.

Len esan dedanez, eguraldi goxoa egokitu zitzaien gaiñera, eta bikaiña igaro zuten. Bai zaarrak ere ondo erantzun. Aruntzean gazteak ibili ziran okerrera. Oraindik ondo oitu gabeak. Bertara iritxi ziran, amonarentzat naigabe txiki bat: meza emalerik etzutela arkitu, berandu samar iritxi ziran ta.

–San Antonioren egunean etorri bagiña... –zion amonak.

–San Antonio egunean, gure asmoak betetzeko gaizki ibiliko giñan –Josetxok.

–Nolako asmoak dituzute, bada? –Anttonik.

–Egon lasai. Bere orduan ikasiko dezute.

–Ondo etorri al zera? –galdetu zion Joanitak amonari.

–Bai; oso ondo, zuk emandako pastilla orri eskerak.

Amonak mezaren batzuk enkargatu zituen. Zarrak elkarren ondoan eguzkitan gelditu ziran, moka du bana artu ondoren. Gazteak, bazterrak ikusiz, mendi aldera artu zuten. Baiña Urkiolak bere ikusgarrikeria onenak basoak ditu. Garaiz bildu ziran, eta bazkariaren aurretik gure gazteak San Antonioren aurrean beren ziña egin zuten. Eguna aukeratu ere bai. Eta, ondoren, lauren artean pake-pakean bazkari eder bat.

–Mendi au zer moduzkoa iruditzen zaizue? –galdetu zion aitona.

–Zoragarria –zioten gazteak–, udarako beiñepein. Negurako gogor samarra izango da. Baiña alde ederra dauka ipurditik arpegira. Zoritxarrez, eliza ez dago bukatua. Bizkaian ez al da orrenbeste diru? Orduan bai benetan dotorea geldituko litzakela.

–Bai. Probintzia aberatsa da au. Badakizute, ordea, zenbat milloi bearko liraken ori ondo bukatzeko?

–Egia. Alare merezi luke. Jendeak eraspen aundia omen dio San Antonioren.

–Ori ala da. Guk beiñepein ez degu ondo bukatua ikusiko –zioten zaarrak.

–Ni beintzat aula nago onera beste txango bat egiteko –amonak.

–Nola, olako biaje atsegiña egin ondoren? –erantzun zion neskak.

–Etxetik erteeran uste nuen baiño goxoagoa. Eskerrak zuri, Joanita; eta, jakiña, gure txoper berriari. Ez dio, lengoak bezela, eragin ta dantzarik eman berebillari. Bejondeikala, motell!

–Guk biotz-biotzez eskertuko genizuke, beste bat egitera ausartuko baziña –erantzun zioten bi gazteak.

Aitonak laster ulertu zuen aien eskaria nora zi Joan.

–Illebete gutxiko epea bada, nik baietz uste, Anttoni, gaur denetan lasaiena noski zerori etorri zera ta –eskatu zion.

–Illebete ta erdi besterik ez. Egun ale oietan ez dezu noski olako erorikadarik egingo. Aitonak esan dizun bezela, ia ondoen zerori etorri zera ta –erantzun zion Joanitak.

–Ondo dago. Al badet beiñepein, etorriko naiz, eziñetik indarrak aterata bederen. Egun ori ez nuke galdu nai, olako txoperrarekin gaiñera.

–Emen nai genduke ezkondu, San Antonioren aurrean, Josetxok eta nik ala erabaki degu ta.

–Bejondeizuela! Gure aldeko asko ezkontzen dira emen, eta gu ere ala egin giñan. Ez dira oraintxe-oraintxeko kontuak. Geroztik urtero bisita labur bat onera egiteko naiko aitzakia. Gauza banaiz, kontatu nerekin. Ainbeste ixtilu igaro ta gero, ez nuke gertakari zoragarri ori galdu nai, aurten bada beiñepein.

–Guk nai bezela arazo au badijoa, urriaren 4-ean. Len ere esan dizugu.

–Gaurko ontan oso ondo ibilli naiz.

Esandako egunean, bada, berriro Urkiolako San

Antonion ziran. Ezkongaiak baiño zoriontsuagoak ziran noski aiton-amonak. Azkenean, beren neke ta eziñak mundu ontan ere bazuten beren saria. Bearezkoak bakarrak aukeratu zituzten; ez kastu beldurak. Joxek gertakari ori ospatzeko jarriko zukean bere burua ere. Baiña aitonaren oroitza bizirik zegoen oraindik. Aren opariari esker ezkonduko ziran orain bi gazteak, eta etzioten ots ta apaindura geiegiarik eman. Eztaietan aren utsuna norbaitek nabaituko zuen. Etzuten, bada, zarata eta iskanbilla geiegiarik atera.

An ezkondu ta, eztai ondore bezela egun batzuk atzera-aurrera igarota, bereala etorri ziran, aiton-amonak ematen zieten baserrira, fameli bat azitzeko bizimodu garratzera.

Josetxok agindu bezela, Joanitak txopertza ikasia zeukan. Berdin berebillari etekiñik geiena berak aterako zion, eguneroko joan-etorrian. Eztai ondorea bukatu ta urrengo egunetik eraso zion kalerako martxari.

Aldaketarik gabeko lan aspergarria burutzeko, bai biotz zabal ta etengabeko maitasuna bearko zutela ezkonberri ziran gazte batzuek. Etorriko zaizkie zailtasunak. Etxeko arazo guzietan batera etortzen ez da erreza izango. Neurtu al dituzte ondo?

Aiton-amonen baserrian, bada, jarri zuten beren martxa, aurrerapen guziekin. Joxek bere diruak ortan urtuko zituen noski.

Illebeteak igaro aiñean, laurak anka gorri baten itxaropenetan zeuden. Ori ere bere garaian azaldu zan, mutilla bera. Jainkoak beren otoitzak entzun zituen. Beren nekeak bedeinkatu ere bai. Etziran asarre. Amonak, besoetan artu ta musu bat emanik, ala omen zion:

—Urteetan aurtxo baten zai dauden senar-emazte batzuei bat jaiotzean artzen duten aiñako atsegiña ematen didak, aurtxo kutuna. Lenago etorri izan

baintzan mundura, nik ederki zainduko iñudan. Baiña ni illunpera eta i argira.

Alare, oraindik amonak beste bi aurtxo besarkatzeko zoriona izan zuen. Etxeko andre berria etorri zanean atsedean aundia artu baizuen zaarrak.

Aitonak ere benetan baikor artu zuen aurtxoaren jaiotza. Simeon zaarrak bezela, baserriari arek baizekarkion bigarren gizaldiraiñoako iraupena, besoan artuz ala omen zion:

–Eramatea al nauzu, Jauna! Nere begiak ikusi baidute ainbeste maite detan baserri onen luzarorako iraupena. Gure seme-alabak maite izan gaituzten baiño geiago maite itzik, gaurtik aurrera iregatik beren askatasuna galduko duten ire gurasoak.

Mundu ontatik joan baiño len orixe ikusi nai zuen aitonak, eta orain lasaitu da. Emendik eramango zuen naigaberik aundienetako bat ori izango zuen: aurrekoak ondareztat utzitakoa galtzea.

Nazio bateko lendakari bat ateratzea aiña kosta omen zitzaiela? Merezi zuen, ordea. Gazteak etxeko martxaren jabe egin ziran. Andik aurrera zaarrak joan zitezken emendik lasai.

ZAARREN AZKEN AGURRA

Beera bear ori etzaigu atsegin, baiña ori da gure izatearen martxa. Berebil bat bezela, urteetako ibille-
rak erre egiten gaitu. Ezertarako balio ez duten tras-
teen antzera goaz gu ere polliki-polliki beera ta bee-
ra, geiago azalduko ez geran lekuan ezkutatzera. Gaitzak edo matxurak asten zaizkigu indartzen-in-
dartzten; eta azkeneko langara irixten geranean, naiz
ezertarako gauza ez izan, eta etxeko enbarazoa, iñor
gutxik andik igarotzeko gogoa dauka. Langa aurrez
aurre ikusten dute. Baiña, bada ez bada, gogotik bi-
ziari eutsi. Nork daki an zer ikusteko gauden?

Gure aiton-amonak ere langa ortaraiño iritxi zi-
ran. Baiña, ai!, nagi betiko urrats ori emateko.

Bietan amona erori zan lenengo. Baiña fameli
berria goraka ikusi ta gero, bizitzea merezi zuen ga-
raian. Eziña etorri zitzaion –bizi danaren legea– eta
oatzean geratu zan. Aitona gaixoa etzan orduan aren-
tzat bestetarako bizi. Arkitzen zituen gauzarik one-
nak ari eramango zizkion. Goizero lenengo bisita ari
egingo zion.

–Jainkoak egun on, Anttoni –bere betiko agurra;
eta, beti bezela, musu bat emango zion–. Zer moduz
pasa dezu arratsa?

Amonak etzeukan ezeren gaitzik. Zaar miña. Orixe eta nekatua. Urte luzeetan kilometro geiegi igaro ta errea zegoen, eta biotzak noizbait geratu egin bear, berebil baten motorraren gisa.

–Ia begirik itxi gabe –erantzungo zion–. Baiña nekerik ez daukat, izan ere egun guzian lo kuluxkaka ari naiz ta. Zu, berriz, Joxe, negarrez.

–Nola antz ematen diozu?

–Zure malkoak arpegia busti baididate.

–Izan ere, ainbeste urtean elkarrekin ain ondo bi zi izan geranok, eta gaur dagoen giroarekin baratzan barrena urrats batzuk ezin emana...

–Lasaitu zaite. Ez gera luzarotan berex biziko.

–Ezer ere artu nai al zenduke?

–Baso erdi bat ur presko ekarriko bazenida...

Ixil-ixilik, txintxo-txintxo egingo zuen emaztearen agindua. Anttonik, txurrapaka, al zuen bezela, edan ondoren:

–Eskerrik asko, Joxe. Onuzkero ez dizkidazu asko ekarriko.

–Okerrago al zaude, bada?

–Badakizu zaarron martxa nolakoa dan: polliki-polliki beti beera.

Sarreran bezela, erteran beste musu bat emango zion; ta, bakarrik utzirik, kanpora joango zan. Egunsentiro orrela jardungo zuten biak.

Sendagilleak elizakoak ekartzeko aolkua eman zien: oraindik burua argi zeukan bitarte ohea zala, joango etzitzaion lo zorroren bat arrapatzeko arraixkuan zegoela ta.

Abisua biali zien aitonak bere seme-alabei. Injenieroa ere etorri berria zan. Batzuk amar bat urtean gutxieneko ikusi gabeak zituen. Denak batera bere aurrean azaldu ziranean, banaka-banaka denei arpegira begiratzuz ezin ezagutu balitu bezela, negarrari eman zion gaixoak.

–Ama, zergatik egiten dezu negar? –galdetu zioten.

–Oraintxe benetan sinisten baidet iltzera noala. Bestela, zuek denak batera etziñaten sekula zuen ama ikustera etorriko.

Ango garbitasunak Joanitak egingo zituen. Baiña zaindu ta serbitu aitonak. Elkar-izketa luze ta goxoak edukitzen zituzten.

–Oroitzen al zera, Anttoni, txarrantxak arrapatu ta galtz-ipurdiak autsi zizkidan goiz zorioneko ura artaz?

–A, ja, jai! –algara goxoa egin zuen Anttonik–. Bai, Joxe. Ondo alare. Jainkoak bidean jartzen dizkigun sareak dira oiek. Eta geroztik ez al gera zorionekoak izan?

–Naiago nuke oraindik geiago iraungo balu.

–Zertarako? Biok ez al gaude, bada, ondo elduak?

–Ez genduke erori nai, baiña egia da zuk diozun ori ere. Lasai al zaude, etorrerik ez duen betiko urrats ori emateko?

–Pekatu gabeak ez gera gu ere, Joxe. Baiña nor naiz ni neregatik bizia eman duen Jainko baten errukian ez itzaroteko? Benetako arrokeria izango litza-ke. Nere lan txar edo onekin, zer kendu edo eman nezaioke nik Jainkoari? Ezta ezertxo ere. Galtzen diranak beren borondate txarragatik galduko dira. Beste gaiñerakoak Jainkoaren errukiak salbatuko ditu.

–Bai pentsamentu zoragarria dala ori, gure bizitzan txirristadak izan ditugunontzat. Ura, neurri gabeko errukitsua. Gu, berriz, aren ondoan gixaixo batzuk. Baiña benetan maite gaituela eta gure eziña ederki ulertzen duena.

–Bai, Joxe. Ori ala da. Jesuita jakintsu bati –ala zala uste det– entzuna daukat, urean ogia zopa egiña bezela gaudela gu ere Jainkoaz aseta. Eriotzean ere ez generala arengandik bereziko. Gorputza ere illa

Jainkoan geratuko dala, eta gure animak ere emendik besterako txangoa Jainkoan egingo duela. Baliteke tarte ortan tunel motx illunen bat izatea, emen illundu ta bestean argitu bitartean. Baiña andik arrigarrizko argitasunera aterako gerala, eta geiago illunduko etzaiguna. Donostiko Kontxan, estropada egunean, beti itxu izan dana bat-batean argituko balitz bezelako zarrastada egingo zaigu tunel txiki ori igarotzean. Olako aldea dago munduko edertasunetik gero izango degunera.

–Arraioa! Baiña, Anttoni! Ez erriko bikarioak ere olako sermoirik. Etzaitut egundo orrela itzegiten nabaitu. Non ikasi dituzu oiek guziak?

–Gogo-jardunetan.

–A, bai! Zu zalea ziñan. Ni ez, ordea.

Olaxe ariko ziran aiton-amonak, geldi-geldi, bere ondoan exerita, txintxo asko ekarriz emazteak eskatzen ziona.

Benetan gaizkitu zan eta billoba txikiak eskatu zituen. Aiei azkeneko musu bana emanaz, eta inguruan zeuzkan guziei «laster arte» agur egiñez, gorputza daldaratu ondoren, burua bular gaiñera erori ziztaion. Betiko loak artu zuen Anttoni amonaxoa, berak sinistu bezela, tunel txiki ura igaro ta betiko zorion argitsuan esnatzeko.

Aitona, serio ta triste, azken musua eman ta atera zan andik.

Igandero, lore xorta bat eskuan, goizean berak bilduak, bere emazte zanaren illobira joateko oitura zuen. Arlos otzaren gaiñean, musu bat eman ta lore xaarrak kenduz, berriak jarriko zizkion, aita gure bat errezatuta.

–Laster arte, Anttoni –esan ta geldi-geldi igokozan illuntzerako baserrira.

Igande batean, Josetxoren amarekin topo egin zuen.

–Zer dezu, txundituta mendi aldera begira?

–Ez al dezu ikusten gure baserriko tximinia kea dariola, eta eguzkiak bere sarreran goxo-goxo musu nola ematen dion?

–Orrenbesteraíño pozten al zaitu orrek?

–Jakiña! Bizi baita, bizi, gurasoak ondareztat utzi zidaten baserria, Eskerrak zure semeari. Bestela, zer erantzun bear nion, etxearekin zer egin dedan galde-tzean? Datozela Josetxo asko gure mendietako jauregi oiek salbatzera. Ori litzake nere benetako atsegiña.

Igande-goiz batean, mezetan ondoez eginta, igo zuten baserrira. Urrengo goizerako gorputz zegoen. Il zan gure aitona. Lau lagunen bizkarrean eta jendetza-mordoska batek atzetik jarraiz, joan zan emendik maitasuna besterik ez dagoen etxera, ainbeste maite zuen lagunarekin betikotasun zoriontsuan bizitzera.

ARKIBIDEA

Baserria	7
Bikote berria	16
Egokiera	23
Aari-jokoa	29
Ankagorriak	36
<i>Aquí hay olor a vaca</i>	46
Biamonean	51
Joxe, gaixo	56
Jose txo	65
Illobaren biozkada	70
Aitonaren bedeinkapena	76
Aiton-amonen ametsak	81
Egoskorkeria	85
Auzitara	93
Ur tantoak arian-arian arria txulatu	99
Eztabaidak	109
Urkiolako San Antoniora	114
Neskaren jakin naia	123
<i>¡Santo Dios!</i>	129
Aari gogortxo	134
Otsoa joan ta ardia etorri	143

Pelipe	148
Naaspillak	153
Donostiko Bretxan	161
Sarraskia	168
Lasterkariak	176
Peliperen laguna	181
Anttoni amonaren bisita	186
Iru billera	193
Bi txango ta ezkontza	203
Zaarren azken agurra	208



1051054
G-128/77



Salvador Zapiain "ATAÑO"

Bere amabigarren liburua eskeintzen digu *Ataño* idazle ugariak –Salvador Zapiain beraren izen-abizenak–, *Nora goaz?* izeneko nobela onekin.

Baserriaren etorkizunak euskaldun guziak kezkatzen gaitu. Bera izan da orain artean gure izkuntzaren eta nortasunaren eusgarririk sendoena. Baiña gaur egunean gain-beera ikusten degu. Mundu berriak kolokan jarri du. Galduko balitz, beerrakada ikaragarria egingo luke Euskal-Erriak.

Gu guziona kezka bere gain artu eta orixe du *Ataño*-k liburu ontako gaia, bere betiko euskera aberats, bikain eta dotoreaz erabiltzen duana.

ISBN 84 85816 88 5



9 788485 846887